ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-02-17
ASTELEHENA
441. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

JOKIN BEREZIARTUA

"Ez dugu murrizketa bat bera ere aplikatuko, esfortzua eskatu arren"

Ander Rodriguez | Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako diputatua | 7

Amets Arzallus eta Andoni Egaña ere angulen pisua asmatu nahian | 12

UDAk 2-1 menderatu du Bergara etxean | 24

Erdaldun berriaren terapia egin dute Arrasaten, AEDren eskutik | 29

Antzuolako herriak dena eman du 8 Milietan

Ekaitz Kortazar durangarra (1:04:41) eta Leire Fernandez errenteriarra (1:18:29) izan dira gizon-emakume azkarrenak. Lokatzak ordezkatu du iazko elurra | 22

241 lasterkari irten ziren herriko plazatik eta bostek ez beste guztiek amaitu zuten proba.

JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako Geyser-Gastech lantegiaren etorkizuna lehen baino ilunago orain

Mondragon Taldeak ez du parte hartuko Konforteko negozioen bideragarritasun planean. Bergarako Geyser-Gastechen eta Basauriko Edesaren etorkizuna ilundu egin du erabaki horrek; Jaurlaritzaren ustez, "egoki kontrastatutako" erabakia da. | 4

SINADURAK

XABIER ARREGI | 8
8 | MIRIAN BITERI
OSCAR RODRIGUEZ | 14
17 | JOSU ELORTZA
AITOR UGALDE | 18
19 | IÑAKI PIERRUGUES
OIHAN VEGA | 37
40 | MARKOS BALENTZIAGA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ON EGIN 35 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Umetatik ondo jaten ikasiz gero, medikuaren beharrik ez dago

- Gizentasuna prebenitu egin daiteke, etxetik hasita
- Ume-loditasun Klinikak 120 ume atenditzen ditu
- 4.000 umeren pisua eta ohiturak aztertuko dituzte

Urgain eskolako ikasle batzuk, Fruta Egunean; martitzen eta eguenetan, frutak ipintzen d

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Ume batek 100 gramo gomazko goxoki jaten dituenean, 360 kaloria eta egun osorako behar duen azukrearen erdia jaten du, eta kolazko edari freskagarri latatxo bat edaten duen bakoitzean, 10 goilaratxokada azukre irensten ditu. Azkenik, txokolatezko palmera bat edo esne-gainez betetako opil industrial bat jaten badu, beste 400 edo 450 kaloria kontsumituko ditu, egunean behar dituen kalorien ia herenak, eta koipe trans eta kolesterol mordoa.

Otordu bizkorretako jatetxeetan saltzen diren hanburgesak ez ditugu aipatuko, izan ere, horiek ez dira arazo Debagoieneko umeen elikaduran, "aste bukaera bat edo beste" kenduta; benetako arazoa litxarreriak eta opil industrialak dira. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Pediatria buru Daniel Jimenez Villarrealek diosku. Berak eta Agustin Rodriguez pediatrak Debagoieneko Ume-Loditasun Klinikan jarduten dute. 120 bat umerekin dihardute orain. Badira ia hiru urte klinika edo unitate berezi hori ireki zela. Lana etengabekoa da, eta emaitzak poliki-poliki ikusten dira: "Lehenengo emaitzak hasi eta urte eta erdira lortu genituen". Agustin Rodriguezek dioenez, "umeak etxean ikusten duena ikasi eta egingo du eta, 3-4 urte dituenetik ondo jaten ikasten badu, 18 urte dituenean ere ondo jango du. Askoz errazagoa da ohitura onak txikia denean erakustea, handiagoa denean ohitura txarrak aldatzea baino".

Lehen pausoa, armosua

Ohiturak eta mentalitatea aldatzeko, Loditasunaren Klinikan beti leku beretik hasten dira: "Umea kontsultara datorrenean, lehenengo-lehenengo armosuaren garrantzian eragiten dugu", esaten dute pediatrek. Izan ere, Loditasun Klinikara doazen "ume gehienek oso gaizki armosatzen dute". Eta Jimenez doktoreak ematen dituen datuek ez dute komentariorik behar: "Kontuan hartu behar da umeen %8k ez dutela inongo armosurik hartzen, eta hartzen dutenetatik askok ez dutela egoki armosatzen. Ondorioz, umeen %8k armosatzen dute ondo".

Armosatzen dutenen artean, "askok bakarrik esnea, edo esnea eta galletak... jaten dituzte, eta horregatik, gosari horiek ez dira osoak".

Adi zuku eta zerealekin

Argi dago, hortaz, armosua oso-oso garrantzitsua dela osasuntsu egoteko eta pisu egokia izateko. Agustin Rodriguez pediatrak laburtzen digu zer den armosu osasuntsua: "Esneki bat izan behar du –esnea, jogurta, gazta edo gatzatua–, zereala –ogia, zerealak edo galletak–, fruta –pieza bat edo zukua– eta proteina bat gehitu diezaiokegu, Yorkeko urdaiazpikoa, adibidez. Opil industrialak, gehienez ere, astean behin jan daitezke".

Baina, kontuz: "Dendan erositako zukuak eta etxean egindakoak ez dira berdinak, inondik ere; dendakoek askoz azukre gehiago izaten dute", ohartarazten du Rodriguezek.

Bestalde, "esnekiak koipe gutxikoak izatea komeni da; erdi-deskrematua da egokiena".

Zerealek ere, askotan, azukre gehitu asko edukitzen dute, hau da, ekoizleak ipintzen diena. Horri gehitu behar zaio etxean norberak ipintzen diena. Horregatik, hau diote medikuek: "Umeak gusturago jango ditu azukre edo txokolate gustua duten zerealak, baina ez dira egokiak. Azukre larregi ez dutela begiratu behar da".

Beraz, dendan erosten diren produktuen etiketak ondo irakurri behar dira, kontuan izanda *azukre* hitza batzuetan ez dutela ipintzen, eta azukre kantitateak karbohidrato gisa ematen dituztela (azukrea karbohidrato mota bat da; baina karbohidrato guztiak ez dira azukrea).

Neskatila talde bat, Gosari Osasuntsuak jardunaldian. | TXOMIN MADINA

Nahikoa dira goizero-goizero 10 minutu gehiago

Debagoieneko ikastetxeak orain dela urte batzuk hasi ziren elikadura osasuntsuan eragiten, eta gehienek egiten dute armosuaren gaineko ekintzaren bat: egunotan, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean Gosari Osasuntsuak jardunaldia egin zuten, eta Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolan, Bihotz Bizi Elkartearen eskutik, Gosari Bihotz Osasungarriak egin zituzten LH 5eko 38 ikaslek; bihar, martitzena, Arizmendi Ikastolako 40 ikaslek egingo dute ekintza bera, eta oro har, Debagoieneko ikastetxe gehienek egiten dute antzeko jardunaldiren bat ikasturtean zehar. Saio horietan, dietista edo nutrizionista batek egoki eta osasuntsu armosatzea zer den azaltzen die eta, gero, armosua hartzen dute. Aurten, are arrazoi handiagoarekin, Eskola Agenda 21 barruan dabiltza lantzen, Elikadura delako gaietako bat.

Dietistek azpimarratzen dute ez dela ahalegin berezirik egin behar ondo armosatzeko: nahikoa da 10 minutu lehenago jaiki, presarik gabe ibiltzeko, eta gorputzari eta buruari behar duten *erregaia* eman.

Bazenekien...?

- Ikerketa baten arabera, Espainiako eta Hego Euskal Herriko telebistetako iragarkien erdiak baino gehiago janari eta edari ez osasungarrienak dira.
- Familiarekin jaten duten umeek fruta eta barazki gehiago jaten dute. Eta frutak eta berdurak gurasoek mozten zizkieten umeek gehiago jaten zituzten.

- 2 eta 6 urte arteko 120 umeri 73 produktu eskaini zizkieten. Bada, gurasoek erosten zituzten produktuak aukeratu zituzten.

itu ikastetxeak ikasleen eskura. | AMAIA AGIRRE

Prebentzio lana

Doktoreen esanetan, elikadura ohitura txarrak dituzten ume eta gaztetxoen armosuak aldatzeak "lauzpabost hilabete har ditzake, baina, azkenean lortzen dugunean, tratamenduaren aldeko puntu garrantzitsua da eta gainerakoa berez dator. Ordea, umeak ez badu bere egiten ondo armosatu behar duen ideia, ez dugu ezer lortuko".

Hain zuzen, ikastetxeek antolatzen dituzten jardunaldietan, ikasleekin prebentzio lana egiten dute, ohitura onak eta osasuntsuak garaiz erakutsiz.

Ikastetxeen curriculumean

Armosu onetik hasita, eguneko beste otorduen gaineko informazio gero eta gehiago dago eta gero eta kontzientzia handiagoa dute gurasoek eta baita umeek eurek ere. Ikastetxeek ere badihardute horretan lanean. Arrisku handiena litxarreriak eta opil industrialak dira, are gehiago horiek etxetik eroaten dituztelako umeek edo, bestela, oso eskura izaten dituztelako: "Errazagoa da umea opil industrial batekin bidaltzea eskolara fruta edo barratxo egoki batekin baino". Eta gainera, batzuetan hain eskura dauden vending makinetan izaten dituzte horrelako produktuak.

Arrisku hori txikitzeko, gero eta ikastetxe gehiago dabiltza jardunaldi bereziak egiten, batez ere Eskola Agenda 21 barruan Elikadura lantzen dabiltzanetik.

Hala, Oñatin, adibidez, Elkar Hezi ikastetxean abendua ezkero dabiltza eduki bereziak lantzen: garaian garaiko errezetak, elikagaien kontserbazioaren gaineko saioa, Maialen Arrazola aditu oñatiarrak gidatuta; *Goazen merkatura* izeneko tailerra; *El plat o la vida* dokumentala ikustea... eta, datozen asteotan, eskola-baratzerako lanabesak diseinatuko dituzte DBHko ikasleek, eta Ikastetxeko ikasleek zer eta nola gosaltzen dute? izeneko ikerketa egingo dute, inkesta bidez, eta horko emaitzen arabera zehaztuko dute datorren urteko ekintza plana.

Urgain Eskolan, Zuazola Larraña BH Institutuko ikasleekin, Elikadura Jasangarria dabiltza lantzen VII. Kultur Jardunaldietan eta Eskola Agenda 21en barruan. Hamaiketako Osasungarriak egiten dituzte: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, tortilla-pintxoak ematen dituzte hamaiketako gisa, eta askotariko ogi motak eskaintzen dituzte; eta martitzen eta eguenetan, Fruta Eguna egiten dute: fruta eskaintza bariatua ipintzen dute ikasleen eskura. Elikadura Jasangarria tailerrean, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistarekin, armosu osasungarria landuko dute. Eta Txokolate Tailerra ere egingo dute, Oñatiko Txokolateixako Anton Azpiazurekin.

Urgainen Eskola Agenda 21ren ardura daraman Amaia Agirrek honela azaltzen digu programa horren helburua: "Elikadura curriculumean dago gai gisa, baina orain garrantzi handiagoa eman gura izan dio zentroak, kontzientzia lantzeko. Eta orain arte, pozik gaude: Fruta Egunean eta ogi mota desberdinak probatzen ikasleak gustura ibiltzen dira, eta irakasleak ere bai, ekintzak denondako direlako".

Beste helburu bat aipatzen du Amaia Agirrek: "Hemengo produktuei garrantzia eman gura diegu, eta elikadura jasangarria izan dadin". Horretarako ere, gozogintza tailerrak egingo dituzte. Izan ere, etxean egindako gozoak beti dira dendan erositakoak baino osasungarriagoak.

Txantxiku Ikastolan, beste ekintza batzuen artean, LH 1ekoekin Jatordu Osasungarriak egiten dituzte: elikadura mundura lehen sarrera. LH 4koekin, Osasuna eta Elikadura lantzen dute, unitate didaktiko batekin; eta LH 5ekoekin dieta orekatua, nutriziaren oinarriak... jorratzen dituzte.

Bailarako lehen datuak

Bestalde, iaz hasita, Debagoieneko ESIko Ume-loditasun Klinika eta Debagoieneko ikastetxeak proiektu bat aurrera eroaten dabiltza. Klinikaren iniziatibaz, Debagoieneko umeen eta gaztetxoen pisuaren gaineko datuak egongo dira. Horretarako, Ume-loditasun Klinikakoak eskolaz eskola doaz, mailaz maila umeak pisatzen, altuera neurtzen eta koipe portzentajea ere neurtzen, galdera batzuen bidez, bestelako datu batzuk jasotzen: elikadura eta ariketa fisiko ohituren gainean galdetu diete. Orain arte egindakoa laburtzen digute: "10 eta 12 urte arteko ume guztien datuak batu ditugu, 1.100 eskola-ume, eta 6 eta 9 urte artekoen datuak bilduko ditugu orain. Denetara 4.000 bat ikaslek hartuko dute parte".

Proiektu horren atzean oso talde bariatua dago: pediatrez gain, ikastetxeak, gurasoak, kirol teknikariak, dietistak eta nutrizionistak, psikologoak...

Jimenez eta Rodriguez pediatrek esaten dutenez, datu guztiak dituztenean eta behin ondorioak aterata, "ikastetxean eta familian" parte hartu ahal izango da.

Modu batera edo bestera, neurriz gaineko pisua prebenitu egin behar da, eta medikuek esaten digute zergatik: "Gure klinikako umeek autoestimu arazoak dituzte, mugitzea zailago egiten zaielako eta pisu handiagoa dutelako. Kolesterol eta hipertentsio arazoak oraindik ez dituzte, baina laster ikusiko ditugu, helduetan agertzen diren arazoak nerabe horietan agertuko direlako".

DATUAK

%8

UME

Ume-loditasun Klinikaren arabera, soilik umeen %8k egiten dute armosu oso, orekatu eta osasuntsua.

4.000

IKASLE

Ume-loditasun Klinikak bailarako 4.000 ikasle ingururen pisua eta ohiturak aztertuko ditu.

%8

UME

Umeen %8 baraurik joaten dira eskolara. Loditasun arrisku faktore bat da.



LEIRE KORTABARRIA

AGUSTIN RODRIGUEZ ETA DANIEL JIMENEZ | ESI-KO PEDIATRIA SAILEKO LODITASUN KLINIKAKO MEDIKUAK

"Familiak bat egin behar du tratamenduarekin"

Zuen pazienteetan, ze lotura ikusten duzue armosu edo gosari txarraren eta loditasunaren artean?

Agustin Rodriguez: Gure kontsultako gehienek oso gaizki armosatzen dute.

Daniel Jimenez: Gainera, hona datozenean, lehenengo-lehenengo bultzatzen dugun aldaketa armosua da. Askotan, hilabeteko lana egiten dugu umeek ondo samar armosatu dezaten lortu arte. Ez da gauza erraza.

AR: Guk, helduok, gure buruari galdetuz gero egoki eta osasuntsu armosatzen dugun, ea zenbatek jasoko genukeen eskua! Normalean, jendea presaka dabil goizetan. Aste bukaeretan denbora luzeagoa hartzen dute.

"Hilabeteetako lana da umeek hobeto armosatu dezaten lortzea"

Loditasunean, maila sozioekonomikoak eragiten du?

D.J.: Latinoamerikan uste zen zenbat eta maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoa, orduan eta loditasun arazo handiagoa zegoela. Euskadin, klase ertain handia dago eta arazoa berdin-berdina da: ume lodiak edo behar baino pisu handiagokoak daude ekonomia eta hezkuntza maila oneko gurasoekin.

Zergatik kostatzen da hainbeste arazoari buelta ematea?

A.R.: Azkenean, heziketa kontua da, eta heziketa kontuak aldatzea ez da samurra.

D.J.: Ahalegin guztia egin dezakezu, baina, ez baduzu lortzen pazienteak eta bere inguruneak tratamentuarekin bat egitea, haien mentalitatea aldatzea, alperrik zabiltza. Ume bat neumoniakin etortzen bazait, diagnostikoa egingo diot, tratamendua ipiniko diot eta 10 egunean osatuta egongo da; baina familia, psikologia, elikadura, ariketa, autoestimua... bezalako faktoreetan eragin behar baduzu, zailagoa da eta luzeago jotzen du. Loditasun Klinikak ia hiru urte daroa zabalik, eta hasi eta urte eta erdira hasi ginen emaitzak ikusten.

Gosariaz gain, ze beste otordu egin behar ditu umeak?

D.J.: Asko azpimarratzen dugu bost otordu nagusi daudela: armosua, goiz erdiko otordua, bazkaria, merienda eta afaria. Produktu industrializatuek beti gehigarri bat dute, azukre edo koipe aldetik. Goiz erdian eta meriendan, janari naturalagoak gomendatzen ditugu: fruta, azukre larregi ez duen zereala, urdaiazpiko edo koipe gutxiko gazta ogitartekoa... Beretako erakargarriak diren aukerak eman behar zaizkio.

A.R.: Eta afaltzeko, zer bazkaldu den kontuan hartu. Okelaren proteina bat bazkaldu badu, arraina afaldu dezake. Eskola-jantokietan bazkaltzen dutenez ume askok, horko dietak kontuan hartu behar dituzte gurasoek, etxean eta aste bukaeretan antolatzeko.

Zenbat ariketa fisiko egin beharko lukete umeek?

D.J.: Egunero ordu erdi ibiltzea eta egunero ordu bete ariketa egitea gomendatzen da, baina ez dute egiten. Astean bost ordu egin dezaten nahikoa da, eta eskolako gimnasia orduekin ez da hori betetzen. Gaur egungo jostailu modernoek eta gainerakoek ez dute uzten behar adinako ariketa egiten, eta sedentarismoa bultzatzen dute.

Mondragon Taldeak ez du parte hartuko Konforteko negozioen bideragarritasun planean

Bergarako Geyser-Gastechen eta Basauriko Edesaren etorkizuna ilundu egin du erabaki horrek; Jaurlaritzak adierazi du "egoki kontrastatuta" hartu duela erabakia Mondragonek

T.M. / I.G. | ARRASATE

Bergarako Geyser-Gastech eta Basauriko Edesa lotzen dituen Konfort proiektuaren bideragarritasun planean parte ez hartzea erabaki duela iragarri zuen Mondragon Taldeak egubakoitzean. Korporaziotik adierazi dute "nekez" mantendu daitekeela jardueren errentagarritasuna denboran zehar. Horrenbestez, Geyser-Gastechen eta Edesaren etorkizuna ilundu egin da.

Egubakoitzean hartu zuen erabakia Kontseilu Orokorrak, eta berau arrazoitzeko, Taldeak berak egindako behin betiko azterketa eta kanpoko eragile batek egindako txostena aipatzen dituzte.

Bergarako San Juan auzoan dagoen Geyser-Gastech enpresa, kanpotik. | GOIENA

IBR txostena

Hain zuzen, korporaziotik igorritako prentsa-oharrean honakoa zehazten da: "Korporazioaren eskariz, kanpoko eragile independente batek egin duen IBR txostenaren arabera (Independent Business Review), sustatzaileek aurkeztu duten planak zalantzak planteatzen ditu epe ertainera eta luzera bideragarritasuna mantentzeari dagokionez". Horretaz gain, diotenez, beharrezko indar-gune lehiakorra bermatzeko zailtasuna dagoela zehazten du txosten horrek. "Ziurgabetasuna azaltzen da salmenten, prezioen eta kostuen murrizketa mailari buruzko helburuekiko. Gainera, gakoak diren kanpo baldintzak sustatzaileen erabaki eremutik at daude".

"Sektore oso lehiakorra"

Mondragonek oharrean gaineratzen du sektorea oso lehiakorra dela. Hala, honakoa zehazten du: "Komertzio maila handia dago, eta estatuko merkatua erabat ahulduta eta oso baldintzatuta dago, bilakaera teknologikoagatik, kostuen efizientziagatik eta merkatuaren exijentziengatik".

Korporazioaren iritziz, planaren azterketan oinarrituta, negozioaren errentagarritasuna nekez mantendu ahal izango da ingurune sektorial lehiakor horretan, eta ezin dakioke aurre egin planteatu den moduan.

Halaber, bere iritziz, sektorean lehiakorra izateko beharrezkoa da enpresa talde handi baten babesa izatea, eskariaren eta jardueraren maila jakin bat mantentzeko, eta merkatuan lidergoa izateko.

Mondragonen rola

Oharrean zehazten da Korporazioak Fagor Etxetresnetako jarduerarik errentagarrienentzat irtenbideak bilatzen laguntzeko borondatea eta konpromisoa duela. Eta hala, Geyser-Gastechek eta Edesak aurkeztutako proiektuen bideragarritasuna aztertuz, kontrastatuz eta proiektua finantzarioki babestuz, babes korporatiboa eman zaiela. Gaineratzen da Mondragonek jarraitu egingo duela bere ahaleginak egiten soberan dagoen enplegu estrukturalerako irtenbide sustapena bideratzen, elkartasunezko neurrien bitartez.

"Plana errentagarria"

Bada, Basauriko lantegian prentsaurrekoa egin zuten zapatuan Edesako langile-bazkideek, Korporazioaren erabakiari erantzuteko. Hala, adierazi zuten: "Ez dugu zalantzarik gure planak errentagarritasun berme nahikoa eskaintzen dituela esateko". Gaineratu zuten, baina, badakitela lehen urteetan salmentek behera egingo zutela, baina gaineratu: "Edozein enpresa proiektuk arriskuak ditu epe ertain eta luzera". Gogora ekarri zuten 260 lanpostu sortuko liratezkeela eta zeharkako beste 85. Horrenbestez, "konpromiso argia" eskatu zioten Mondragon Taldeari. Langile-bazkideek itxialdian jarraituko dute.

Geyser-Gastechetik ez da jakinarazpenik igorri, Korporazioaren erabakiaren harira.

"Egoki kontrastatua"

Eusko Legebiltzarraren, Bizkaiko Aldundiaren eta Gipuzkoako Diputazioaren babesa zuen bideragarritasun planak, baina Mondragon Taldearen ezezkoa ontzat eman du Eusko Jaurlaritzak. Korporazioaren jakinarazpenaren ostean, Ekonomia, Garapen eta Lehiakortasunerako sailburu Arantza Tapiak adierazi zuen: "MCCko erabakia errespetagarria da, bideragarritasunaren arabera, egoki kontrastatua izan delako". Maila honetako erabakiak hartzerakoan, bideragarritasun eta erantzukizun arrazoiak nagusitu behar direla ere zehazten da Jaurlaritzatik bidalitako oharrean, epe laburreko itxaropen faltsuak saihestuz.

Bestalde, oharrak dio Jaurlaritzak lanean jarraituko duela, Fagorren ahalik eta jarduera eta enplegu gehien mantentzeko helburuarekin: "Hemendik aurrera lanean jarraituko dugu, hartzekodunen prozesuaren testuinguruan, Fagor Etxetresnen arazo orokorrari erantzuteko. Ahalik eta jarduera eta enplegu gehien mantentzen saiatuko gara, kontutan hartuta guztira 1.900 lanpostuz ari garela". Horregatik, Jaurlaritzak hartzekodunen prozesuan jarriko ditu indar guztiak, beti ere Fagor Etxetresnen osotasunari ahalik eta irtenbide onena eman ahal izateko. "Irtenbiderik onena epe luzerako ahalik eta enplegu gehien mantentzera lagunduko duena izango da, beti ere jarduera eta enplegua bere osotasunean kontutan izanda. Jaurlaritza horretan dabil, jarrera proaktiboan eta lankidetzarako prest, erakundeekin batera, hartzekodunen administratzaileekin eta baita Mondragon Taldearekin ere".

Tapiak gogora ekarri du badirela tokiko agenteen esku ez dauden faktore oso garrantzitsuak; eta hartzekodunen administrarien, ager daitezkeen inbertitzaileen, marka eta patenteen kudeatzaileen eta abarren esku daudenak aipatu ditu, besteak beste.

"Sektore oso lehiakorra"

Ezker Anitza-IUk ere bidali zuen oharra komunikabideetara. Bertan Edesa eta Geyser-Gastech enpresetako langileei euren babes osoa aurkeztu die. Horretaz gain, Mondragonek bideragarritasun plana ez babestea oso larritzat jo du, "300 lanpostu mantentzea ekarriko lukeela" esanda. Bestalde, "elkartasun printzipioak, enpleguaren mantentzea eta garapen soziala" non gelditzen diren ere galdetzen dio Mondragoni Ezker Anitza-IUk bidalitako prentsa-oharrean.

Kaltetuak irtenbide bila

Eguenean, Batzorde Iraunkorrarekin batzera joan zirenekoa. | A. TXINTXURRETA

Ordaindu plataformako kideak Mondragon Taldeko Batzorde Iraunkorrarekin batzekoak ziren eguenean. Mikel Zabala Mondragon Korporazioko gizarte kontuetako zuzendariarekin eta Arantza Laskurain idazkariarekin elkartu ziren, ordea. 30 minutu inguru iraun zuen batzarrak. Mikel Olabe plataformako kideak adierazi zuen ez zirela bildu espero zuten pertsonekin eta "bitartekari" batzuekin egon zirela. Horrela, eskatu zuten astebeteko epean Korporazioko Batzorde Kudeatzaileko kideren batek har ditzala. Bestalde, kaltetuei gutxienez interesak ordaintzea ere eskatu zuten. Ordaindutik gaineratu zuten Mondragon Taldeko Batzorde Kudeatzailearen lehentasuna ez dela plataformakoen arazoa konpontzea. Hala ere, diote Ordaindu osatzen duten kideek lortuko dutela Korporazioaren iritzia aldatzea. "Dorre handiagoak erori dira".

Bestalde, egubakoitzean, Fagor Etxetresnetako kaltetuak Gasteizera joan ziren, Eusko Legebiltzarrera. Arrasatetik autobus bat abiatu zen eta autotan ere jende dezente joan zen. Guztira, 200 lagun inguru batu ziren Gasteizen. Ekonomia, Garapen eta Lehiakortasun batzordeko lehendakari Javier Garrorekin batu ziren. Euren egoeraren berri eman zioten eta MCCren aurrean Jaurlaritzak bitartekari lanak egitea eskatu zioten, arazoak konpontzen joan daitezen. Esandakoak Arantza Tapiari jakinaraziko zizkiola esan omen zien Garrok. Ondoren, legebiltzarraren kanpoaldean izan zen Fagorreko kaltetuak.

Biharko, hilak 18, antzezlan alternatiboa antolatu dute Fagor Hozkailuetan (San Andres). Talde kataluniar batek egingo du saioa eta doakoa da. Fagorren erorketa irudikatuko du.

Ernaiko gazteek martxan dute 'Izan, Hezi, Hazi' dinamika; festa giroan abiarazi dute

Bailarako 40 gaztetik gora elkartu ziren, zapatuan, Elorregiko ekitaldian

Bailarako gazte taldea, Debagoieneko Ernaik zapatuan Elorregin egindako ekitaldian. | L.Z.

LARRAITZ ZEBERIO | DEBAGOIENA

"Abiapuntu ona markatu dugula uste dut", zioen Igor Tome oñatiarrak zapatu eguerdian, Debagoieneko Ernaik Elorregin egindako ekitaldian. Herri ezberdinetatik etorritako 40 bat gazte elkartu ziren *Izan, Hezi, Hazi* ekimenari hasiera emateko, eta pozik ziren deitzaileak. "Euskal Herrian eta Europan oso une berezia bizi dugu. Espainiar estatuaren krisi estrukturala eta Europatik datorren olatu independentista —Eskozia eta Katalunia— nabarmenak dira. Horren aurrean gazteok ere gure ekarpena egin nahi dugu", azaldu zuen Tomek.

Eta helburu horrekin, lan ildo ezberdinak abiaraziko dituzte gazteek: formazio saioak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoen proiekzioak, elkartrukeak... Proposamen ezberdinak dituzte mahai gainean eta hurrengo hilabeteotan gauzatuko dituzte. "Gure diskurtsoa eraiki eta indartu nahi dugu", adierazi zuen Tomek, independentziaren bideragarritasunaren inguruan "intoxikazio kanpaina itzela" dagoela salatu ostean. Ondo informatu, esperientzia ezberdinen errealitatea gertutik ezagutu, eta diskurtso propioa eraiki nahi dutela adierazi zuen.. Helburu horrekin datozen hilabeteotan landuko dituzten gaien artean nabarmentzen dira burujabetza, ekonomia —genero ikuspegitik—, hegemonia, historia... eta denen artean eta denen ekarpenekin osatuko dute programa. Ernaik ekainera arteko kanpaina iragarri du, baina argi dute ekainetik aurrera ere lanean jarraitu beharko dutela.

Festa giroan

Zapatukoa, ordea, prozesu berri baten abiapuntua finkatzeko festa giroan egindako ekitaldia izan zen. Elorregiko frontoian elkartu, asanblada informatiboa egin, proposamenak eta ekarpenak egiteko gonbidapena luzatu eta *Ametsa da hazia, herria bizia* zioen pankarta erraldoia koloreztatu zuten guztien artean. Taldeko argazkia egin, eta lagunarteko hamaiketakoa ere egin zuen.

Elkartrukea kataluniarrekin

Zapatuan egindako asanbladan eta *Izan, Hezi, Hazi* dinamikaren barruan, Kataluniako gazte antolakunde batekin egitekoa duten elkartrukearen berri ere eman zuten Ernaiko gazteek. "Arran gazte antolakunde independentistarekin kontaktuan gaude", adierazi zuen Itsaso Ruiz de Larrinaga arrasatearrak. Jakitera eman zuenez, gazte kataluniarrak maiatzeko lehenengo aste bukaeran izango dira Debagoienean, eta asmoa da joan-etorriko elkartrukea egitea.

Mozambikera joango da talo solidarioekin lortutako dirua

Munduzabal gobernuz kanpoko erakundeko kideak gustura, Arrasaten jasotako erantzunarekin

L.Z. | ARRASATE

Eskaintza berezia egon da aste bukaeran Arrasateko Eroski hipermerkatuan. Sarreran bertan bospasei laguneko taldeak taloak eskaini ditu 2,5 euroko prezioan. Markina Xemeingo Munduzabal GKEko kideak ziren talogileak. Egun, eta Mundukiderekin lankidetzan, Mozambiken —Afrika— dihardute lanean, gehienbat. "Ortuak eraiki, zuhaitzak landatu, mikro-krediduak lortu... Mozambike munduko herrialde txiroenetakoa zen orain gutxi arte. Zorionez, eta garatutako proiektu ezberdinei esker, aldaketa handia egon da herrialde horretan", zioen Munduzabaleko kide Jabier Gartziak.

Pozik erantzunarekin

Ekimenak harrera ona izan du Arrasaten. "Jendea gerturatu da, eta batzuk interesa agertu dute egiten dugun lanaren inguruan", azaldu zuen Gartziak.

Munduzabaleko kideak, zapatuan, talo solidarioak saltzen. | IMANOL SORIANO

80 bat herritar Aretxabaletan Gureskuklip lehiaketarako grabatzen

Gure Esku Dago ekimenak deitutako lehiaketan izango da zapatuan Aretxabaletan grabatutako bideoklipa. Adin ezberdinetako 80 bat herritar elkartu ziren Herriko Plazan eta giro onean joan zen grabaketa. Ekimenak, herrian, Gure Esku Dago dinamika pizten laguntzea espero dute antolatzaileek.

IRATI PAGOAGA

EPPK-ko presoek Euskal Herrira ekartzeko eskaera egingo dute, banan-banan

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko bi mintzakidek –Marixol Iparragirre eskoriatzarrak eta Jon Olarrak– eskainitako elkarrizketa argitaratu zuten atzo *Berria* eta *Gara* egunkariek. Bertan, urrats zehatza iragarri dute: destino aldaketa eskatuko dute. Zehazki, Espainiako ziegetan dituzten kolektiboko kide guztiek Zaballako espetxera aldatzea eskatuko dute. Frantzian dituztenei dagokionez, herritik gertuen dagoen espetxera eramatea galdegingo dute. 70 urtetik gorakoek eta preso gaixoek, berriz, aske uzteko eskatuko dute. Erabaki kolektiboa den arren, presoek banan-banan egingo dute eskaera. Iragarri dute berehala hasiko direla eskaera formalak tramitatzen. Euskal Herrian batzea "ezinbesteko" neurritzat jo du kolektiboak, konponbideari ekarpenak egiteko: "EPPK subjektu aktibo izateko, ezinbestekoa da kide guztiak espetxe berean egotea", adierazi dute mintzakideek.

Diru-sarrera nagusia gizonek duten familiek %26 diru gehiago dute

Diru-sarrerak emakumeek dituzten familiek 34.717 euroko errenta dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gizon eta emakumeen arteko arraila ekonomikoa handia da Euskadin: familien diru-sarrerak gizonezkoak dituenean, familiaren batez besteko urteko errenta erabilgarria 46.513 eurokoa da, eta familia hori errenta-jasotzearen araberako erdi eta goi multzoetan dago; aldiz, errenta-jasotzaile nagusia emakumezkoa denean, familiaren batez besteko errenta 34.717 eurokoa da –aurreko familien baino %26 gutxiago–, eta beheko errenta-geruzetan dago familia.

Eustat erakundeak argitaratu berri ditu 2011. urteari dagozkion Euskadiko familia-errentaren eta norbanakoen errentaren inguruko datuak, eta horko ondorio bat da.

Eustatek oraindik ez ditu argitara eman 2011ko herriz herriko datuak, eta Debagoienari dagozkion datu berrienak 2009koak dira. Hor ikusten denez, emakumeek askoz diru gutxiago zuten erabilgarri gizonek baino: 15.339 euro inguru batez besteko, gizonezkoek (26.328) zutenaren %58.

%62,5ek, diru gutxiago

2011ko datuetara bueltatuz, Gipuzkoak du Euskadiko familia-errenta handiena: 43.589 euro. 2009an baino %0,8 gutxiago da hori. Euskadiko batez bestekoa 42.192 euro izan da 2011n.

Sexuaren inguruko aldea ez da errenta banaketan dagoen alde handi bakarra. Hala, euskal familia gehienek (%62,5ek) batez bestekoaren azpiko errenta dute, edo errentarik ez. Familien %3,2k ez dute inongo errentarik aitortu 2011n. Beste muturrean, familien %9k (76.329 familiak) batez bestekoa baino bi aldiz gehiago, edo hortik gora jaso zuten: 84.000 euro pasa. Euskal familien erdien errenta 34.104 euro baino txikiagoa da.

Familia-errenta handiena Laukizek du, Bizkaian: 93.161 euro; Araban, Arrazua-Ubarrundiak, (70.355), eta Gipuzkoan Aramak (62.275). Beste muturrean, familia-errenta txikienak hauek dituzte: Araban, Bilar (25.826 euro); Bizkaian, Karrantza Harana (28.030 euro); eta Gipuzkoan, Pasaia (33.249 euro).

Aretxabaletan, altuena

2009an, Debagoienean, norbanakoen batez besteko errenta handiena Aretxabaletak izan zuen: 22.482 euro. Gizonezkoek 27.285 euro jaso zuten. Familia bakoitzak, batez beste, 49.968 euro erabilgarri izan zituen urte horretan. Errenta txikiena Leintz Gatzagakoa izan zen: herritar bakoitzeko 18.900 euro; gizonezkoendako, 23.303 euro; emakumeendako, 12.774 euro; eta familia bakoitzeko, 44.484 euro. Beste herrien kasuan, norbanakoen batez besteko errentak hauek izan ziren: Oñati: 22.413 euro; Antzuola: 21.863; Aramaio: 21.567; Bergara: 21.280; Eskoriatza: 20.782; Elgeta: 20.164; eta Arrasate: 19.837.

DATUA

42.192
EURO
Euskadiko familiek 42.192 euroko errenta izan zuten, batez besteko, 2011n.

%0,8
EURO GUTXIAGO
Gipuzkoako familien batez besteko errenta %0,8 txikitu zen 2009tik 2011ra.

%3,2
FAMILIA
2011n, euskal familien %3,2k ez zuten inongo errentarik aitortu.

130 milioi euro, enpresei atzerrira irteten laguntzeko

Adegik eta SabadellGuipuzcoano bankuak finantzazio hitzarmena berritu dute

L.K. | ARRASATE

Adegik eta SabadellGuipuzcoano banketxeak berritu egin dute Gipuzkoako enpresak atzerrira zabaltzeko dirulaguntzen hitzarmena: 130 milioi euro ipiniko dituzte oraingoan.

Hiru urtean izan dute martxan dirulaguntza hori, eta 343 milioi euroko dirulaguntzekin Gipuzkoako enpresek egindako 250 nazioarteratze proiektu finantzatu dira. Beraz, "arrakastatsu" jo dute hitzarmen hori Adegiko arduradunek. 2013an bakarrik, 133 proiektu lagundu dituzte 128,5 milioirekin, proiektu bakoitzeko milioi bat inguruko laguntzarekin. Exporta eta Implanta proiektuak izan dituzte horretarako. Bestalde, formazio-programak egin dituzte, eta aurten aplikatuko diren arau berrien gaineko informazio jardunaldiak eman dituzte. Horietan 500 enpresatik gora hartu dute parte.

Hiru inplantazio atzerrian

Exporta lerroan, zehazki, atzerrian saltzeko laguntzak ematen dizkiete enpresei, eta 130 eragiketa finantzatu dira, 121 milioirekin. Europako Batasuneko eta AEBetako merkatuak badira ere nagusi, gero eta enpresa gehiagok eskatzen dute laguntza hori Txina, India, Maroko, Argelia eta beste herrialde batzuetarako.

Implanta lerroak, bestalde, beste herrialde batzuetan enpresa ezartzeko laguntza ematen du, eta hiru inplantazio-proiektu lagundu dituzte (Txinan, Indian eta Hego Afrikan), 7,4 milioirekin.

"Esperientziarengatik, ibilbidearengatik eta merkatuan lider delako, Nazioarteko Saila da Banco Sabadell-en indarretako bat. Horregatik berritu dute hitzarmena Adegik eta SabadellGuipuzcoanok", esan dute arduradunek.

IRPHren inguruko aurreko bistara eta Colauren hitzaldira deitu dute

IRPH indizeak kaltetutako lau familiak salaketak ipini dizkiote Kutxari

L.K. | ARRASATE

Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak dei egin du gaur, astelehena, Donostian egingo den prentsaurreko irekirako (interesa duen edozein joan daiteke), Calcuta plazan, epaitegi ondoan, 13:00etan. IRPHk Kaltetutako Plataformako lau familiak, Gipuzkoako Kaleratzeak Stop-en laguntzarekin, salaketak ipini dizkiote Kutxari, eta salaketa baten aurreko bista izango da gaur. Horregatik, Espainiako Hipotekak Kaltetutakoen Plataformako (Kaleratzeak Stop) (PAH) bozeramale Ada Colauk prentsaurrekoa egingo du, eta "estatu osoan milioi bat lagun baino gehiagoren hipoteketan IRPH indizeak aplikatu izana" salatuko du.

IRPHk Kaltetutakoen Plataformako lau familiak salaketa bana dute Kutxaren aurka ipinita. Gaur, astelehena, izango da horietako baten lehenengo saioa: Tolosako Karmen eta Rokerena, IRPH Kutxak indizea abusibotzat jo dadin eskatzen dutenak. Gipuzkoako kaltetuen plataformako kide Iñaki Colinak azaltzen duenez, gaurko saioan "plataformaren abokatuek salaketaren oinarriak azalduko dituzte epailearen aurrean".

Ada Colau, Bartzelonan, kale-agerraldi baten. | ANDREA CIAMBRA (TCHACKY)

Ikur bihurtu den emakumea

Bereziki deigarria izango da Kaleratzeak Stop mugimenduaren ikur bihurtu den Ada Colauren parte-hartzea. Bere hitzaldian, Colauk "babesa" azalduko die IRPH indizea duten familiei eta salaketa ipini dutenei, eta "IRPH abusiboa dela salatuko du, kaleratze batera eraman dezakeelako", Iñaki Colinak aurreratu digunez.

Lorenari babesa emango diote ere gaurko ekitaldian. Lorenak bere babes ofizialeko etxebizitza galdu du, eta berreskuratzeko, eskatzen du IRPH Kutxak abusuzkotzat jotzea. Aurretik epaitegiek dagoeneko arrazoia eman zioten beste bi klausula abusibotan gutxienez (posizio zordunak erreklamatzeagatik kutxak kobratzen dituen 30€euroak, eta berandutze-interes neurriz kanpokoak: %17 inguru). Gaur egun Lorenak etxean darrai hala ere.

ESANAK

"Ada Colauk babesa azalduko die IRPH duten familiei"

"IRPH abusiboa da, kaleratzera eraman dezakeelako"

IÑAKI COLINA
IRPH-K KALTETUTAKOEN PLATAFORMA

%0,6ko prezio igoerarekin eta %1,6ko batez besteko inflazioarekin bukatu zuen Euskadik urtea

INEk argitaratu dituen datuen arabera, Euskadik %0,6ko prezio igoerarekin amaitu zuen 2013a, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Emaitza hori serie historiko osoan abendu batean izan den txikiena da. Datu horrekin, 2013ko batez besteko inflazio tasa %1,6koa izan zen, inoizko datu txikienetako bat. Urte hasieran, %2,6ko inflazioa izan zen, baina gerora, txikituz joan zen; neurri handi baten, kontsumoa oso ahul dagoelako oraindik.

Ander Rodriguez | Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatua

"Ez dugu murrizketa bat bera ere aplikatuko, esfortzua eskatu arren"

- Laguntza ekonomikoak, teknikoak eta zerbitzuak eskaintzen jarraituko du Aldundiak
- Gipuzkoa zahartzen doala dio Rodriguezek, eta beste behar batzuk ere sortu direla

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Zer-nolako laguntzak ditu Aldundiak mendekotasuna duen herritar batendako? Murrizketek izan dute eragina Gizarte Zerbitzuetan? Ander Rodriguez (Arrasate, 1982) Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatuarekin argitu gura izan ditugu galderak.

Krisi garai honetan, Gizarte Zerbitzuen Sailak jasotzen duen eskaera kopurua igo egin dela entzun dugu sarri. Egia da? Zenbateraino da hori horrela?

Normala denez, krisiaren eragina nabarmena da Gizarte Zerbitzuetan. Eskaera nagusia diru laguntzatara bideratzen da, bai udal eta bai foru esparruan. Horrez gain, beste era bateko beharrak ere gorantz doaz, batez ere Gipuzkoaren zahartzearen ondorioz.

Hori dela eta, bai diru laguntzetan eta bai zerbitzuetan eskaera igo egin da, baina diru laguntzetan gehiago: udalek kudeatzen dituzten Larrialdietarako Laguntzetan, Aldundiaren Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzan, eta baita ere orain gutxitik Lanbidek kudeatzen dituen laguntzetan ere.

Nork egiten ditu eskaerak? Zein da eskatzailearen profila?

Beharraren araberakoa da profila. Gizarte Zerbitzuen jarduna hiru esparru nagusitan garatzen da: mendekotasuna, babesgabetasuna eta gizarte bazterketa, bai egoera horietan dauden pertsonei arreta emanez eta baita egoera horietan egoteko arriskuan daudenei ere. Ez dago profil konkreturik. Eskaerak egiten dituztenak dira: autonomia mugatuak eragindako premiak dituzten pertsonak; ahalmen urritasunekoak; buruko gaixotasuna dutenak; babesgabetasun egoeran dauden adingabeak; bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonak eta indarkeria matxistaren biktimak.

Zer-nolako laguntza eskatzen dute herritarrek?

Era askotakoak: mendekotasunerako zerbitzuak, zentroak eta diru laguntzak; Kotizatu Gabeko Pentsioak; Gizarte Larrialdietarako Laguntzak; desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak...

Foru Gobernu honek argi utzi du, hasiera-hasieratik, murrizketen aurka dagoela eta ez duela inola ere murrizketa bakar bat ere aplikatuko Gipuzkoan, horrek Diputazioaren diru-kutxarako sekulako esfortzua dakarren arren.

Ander Rodriguezi otsailaren 4an ateratako argazkia, Arrasateko Herriko Plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

Izan ere, mendekotasuna duten pertsonei arreta eskaintzea proiektu estrategikoa da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat. Laguntza Pertsonaleko Prestazioaren kasuan, gainera, Diputazioak II. graduan eta I. graduko bigarren mailan baloratutako pertsonek ere diru laguntza hori kobratzeko eskubidea izango dutela bermatzen duen neurria onartu zuen. Izan ere, ia 12.500 gipuzkoar mendekotasun maila horretan baloratuta daude, eta, modu honetan, aurten diru laguntza berri hauetaz baliatu ahalko dira zaintzaileak kontratatzeko.

Zer-nolako laguntza ematen die Aldundiak?

Zerbitzu hauek: adinduentzako eguneko zentroak eta egoitzak; desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak eta egoitzak; buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak eta egoitzak; bazterketa eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroak eta egoitzak; indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeentzako egoitza zentroak; aldi baterako egonaldiak eta autonomia sostengatzeko zerbitzuak: bizimodu independentea, laguntza teknikoak. Prestazio ekonomikoak ere badaude: gizarteratzeko prestazioak; familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa; laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako laguntza ekonomikoa.

Laguntza horiek nori eman, nola erabakitzen da?

Laguntza bakoitzak du bere araudia, baina, normala denez, beti beharren balorazio bat egiten da. Horrek erabakitzen du egoera bakoitzaren lehentasuna, eman beharreko laguntzaren zenbatekoa, eskaini behar den zerbitzuaren intentsitatea… Telefono bidez edo etxera joanda egin daiteke.

Medikuak egiten ditu balorazio horiek?

Mendekotasunaren kasuan, ia beti bakoitzaren etxean egiten da balorazioa, pertsonaren inguruak daukan eragina kontuan hartu ahal izateko. Balorazioak egiteko talde tekniko bat dauka Aldundiak eta bertan, medikuez aparte, erizainak, psikologoak, fisioterapeutak eta terapeuta okupazionalak daude. Balorazio bat eskatzen denean, herritarrak aurretik bere Osasun Txostena aurkeztu behar du, eta txosten horren informazioaren arabera erabakitzen dugu zein profesional mota joango den etxe bakoitzera.

Euren etxean bizi gura dutenek, esaterako, zer-nolako laguntzak dituzte?

Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonez ari bagara, hauek dira laguntza nagusiak: etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroak, etxea egokitzeko laguntzak, laguntza teknikoak, zaintzaileak arnasa hartzeko zerbitzuak, zaintzaren kostua arintzeko diru laguntzak.

Laguntza ekonomikoak dira? Ala teknikoak? (beharrezko dituzten tresnak, garabiak, ohe bereziak ...)

Bi eratako laguntzak daude. Laguntza tekniko edo tresnei dagokienez, Aldundiak berak baditu maileguan ematen dituen tresnak, eta bestelakoetan diru laguntzak ere badaude. Zaintzak dakartzan kostuak arintzeko laguntzek ere oso garrantzi handia dute Gipuzkoan: ia 12.000 familiak jasotzen dituzte diru laguntza horiek gaur egun.

Laguntzak, mendekotasuna duenarendako eta zaintzailearendako, biendako izaten dira?

Laguntza gehienak mendeko pertsonaren izenean daude. Beste kontu bat da onura handien zeinentzat den. Adibidez, eguneko zentroen, aldi baterako egonaldien edo mendekotasuneko diru laguntzen kasuan zaintzailearen bizi kalitatea hobetzea helburu zuzena da.

Zer egin behar du herritarrak horiek lortzeko, eskatzeko? Nora jo behar du?

Beti bere herriko udal gizarte zerbitzuetara jo behar du.

"Normala denez, beharraren balorazio bat egiten da beti, araudia egon arren"

"Zaintzarako laguntza ia 12.000 familiak jasotzen dute Gipuzkoan"

"Laguntzak behar dituenak bere herriko udaletxera joan behar du"

ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO
goiena.net/komunitatea/

Gizalegezko istoriotxoak

Goizeko zortziak dira. Astelehena. Bidaide eta lankide dudanarekin elkarrekin ezin joan... autobusa galdu... azkenean, nire autoa hartu dut lanera joateko. "Ondo hasi dut eguna", pentsatu dut. Autoa martxan jarri, irratia piztu, argiak ere bai, lasai noa, beti bezala, ordu horretan egon ohi den trafikoari adi, albisteak entzuten joan arren. Albiste berririk ez, bezperan irentsitakoak gehienak. Dena, edo ia dena, ohi bezala.

Lantokitik hurbil, kamuflatutako ertzainen auto bat hurbiltzen zait. Keinuak eginez, bazterrean geratzeko eskatzen didate. Hasi naiz larritzen. "Buenos días", esaten dit. "Lleva las luces de posición izquierda fundidas", jarraitzen du. "Bájese del coche", agintzen dit. "Muéstrenos su documentación y la del coche", gehitzen du. Ertzainak agindutakoak egiten ditut. Dena azkar doa, tentsioa nagusi. 200 euroko bi multa: gidabaimena iraungita eta ezkerreko argia izorratuta. Hautsi, urratu ditudan artikuluen berri eman dit. Hitz egiteko betarik ez. Agur. "Eguna zeharo okertzen doa!".

"Ez zait inoiz horrelakorik gertatu; sentipen txarrak, amorrua..."

Banoa lanera, oinez. Autoa han inguruan utzi behar izan dut, zepoa jarrita. Pentsakor noa. Burua eta bihotza sutan. Ez zait inoiz horrelakorik gertatu. Sentipen txarrak, inpotentzia, amorrua. Akatsak onartzen ditut, baina…

Ikasgelan sartzen naiz. Berandu ailegatzen naiz. Nire zain daude. Ohiko algara saioa hasi baino lehen. Nire barrenari kasu handirik egin gabe, "egun on" esaten dut. Hasi naiz gaurko saiorako konpromisoak gogoratzen. Gutxi batzuk beteta. Hasi zait berriro odola irakiten. Ertzaina datorkit burura. Nire kontzientziarekin borrokan. Ez!, ezin dut horrela jokatu!, ez da bidezkoa! Borobilean jartzen gara. Hitz egiten dugu gutaz, bakoitza nolakoa den, nolakoak garen talde modura, ditugun akatsak eta balioak, ditugun eskubideak eta ardurak... Nire onera bueltatzen naiz, berriro lasai. Eguna bere onera etorri da! Eskerrak!

USTEAK USTE

MIRIAN BITERI | mbiteri@goiena.com

Auzoak gertutik ezagutuz

Goiena telebistan programazio berria daukagu. Askotariko programa berriak eskainiko dizkizuegu datozen asteotan; tartean, dagoeneko martxan dagoen *Debagoiena zuzenean* saioa. Gertuko gertaerak bertatik bertara erakusteaz gain, bailarako txoko guztiak ezagutzeko aukera ere baduzue martitzenetan, Mireia Bikuña lankidearen eskutik. Astero, auzo edo elizate bat bisitatzen du, bakoitzaren datuak, historia eta berezitasunak azalduta; eta hori guztiori jasotzeko, toki horiek ondoen ezagutzen dituzten auzo-alkateak eta bizilagunak ditu oñatiarrak ondoan. Eskertzekoa da, modu batean edo bestean, ikus-entzuleei gure auzoak gertuagotik ezagutzen laguntzen dutenen borondatea.

KALE INKESTA

Berdinak gara herritar guztiak justiziaren aurrean?

AITOR GURIDI
OÑATI

"Ez, inolaz ere. Daukagun aberastasunaren eta gauden estamentuaren arabera, aukera gehiago edo gutxiago dauzkagu zigortuak izateko".

LIERNI ARREGI
OÑATI

"Argi eta garbi ikusten da ezetz. Bizilekua, abizenak eta ingurua erabakigarriak dira epaiketa era batekoa edo bestelakoa izateko".

ASIER OSINAGA
OÑATI

"Nik uste dut hori argi dagoela, eta ergelenak ere badaki. Neurtzeko tresna guztiak ez dira berdinak pertsona guztien aurrean".

JUANA URIBETXEBERRIA
OÑATI

"Ezta pentsatu ere. Diruak, botere mailak eta abizenak eragin handia dute erabaki judizialetan. Adibide argia iruditzen zait infantaren kasua".

HANDIK ETA HEMENDIK

Unibertsitatea eta enpresa

Eneko Barberena
blogak.goiena.net/barberenea/

Garai batean, unibertsitate garaiko lehen ikasle urtean LOU legea zen gure (ikasleon) mehatxu handiena.

Unibertsitate lege espainiar horri aurre egiten ahalegindu ginen, baina Göteborgeko europear ikasle foroak jada ekarri zigun mehatxu berri baten zurrumurrua. Bimilagarren hamarkada hasi berri zegoen.

Gauza askotan huts egin genuen ikasle borrokaren planteamenduetan.

Perspektibak erakutsi dit hori neri.

Baina beste zenbaitetan beldurgarria da Ikasle Abertzaleak antolakundeak, adibide bat jartzearren, izan zuen analisi zolitasuna.

Bologna prozesuaz ari naiz, bere arbuioaren zuzenaz, ikusirik horrek ekarri duen hezkuntzaren baldintzen okertzeaz ikasle/irakasleen estresari eta ikasteko aukerei dagokionean eta baita ere unibertsitate kanpusen merkantilizazioaz.

Garrantzitsua da lan mundua eta unibertsitatea lotzea, baina hori ezin da izan unibertsitatea merkatuaren mesedetan jartzea.

Enpresekin harremanak? Ikusi beharko ditugu baldintzak. Praktikak? Esklabotasuna ez den bitartean…

Arrasaten betidanik izan dute harremana industria kooperatiboak eta besteak beste berau hornitzeko sorturiko unibertsitateak. Logikoa ezta?

Gaur egun ikusi beharko zertan den harreman hori, ez ote garen galtzen ari lidergoaren oihan ilunean…

Nire purrustada hau Eroskik Leioako kanpusean supermerkatu bat ireki duelako da.

Ez zait gustatzen hori. Ikaslea bezero moduan, ikaslea kontsumitzaile moduan kontsagratzen ari delakoan nago unibertsitatearen goi estamentuentzat. Ideal nobleen espazioa betetzen ari dira enpresetako bulegoek, dendek, bidaia agentziek…

Merkatua denera iristean da, kanpusak ere bere egin ditu.

Ea noiz dituen erraztasun horiek unibertsitatera sartzeko herri mugimenduak.

Magia

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Eliza katolikoko pederasta kasuak, ustelkeria atsedenik gabea, pobreak gara pobre, eskubide zibilen galera, kartzelak hil egiten du, delitu ekologikoak… Zutabe honen dikeek har dezaketena baino askoz ere zerrenda luze gizenagoa dakarte egunero komunikabideek. Errealitate soziala deitzen diogu. Ebidentea egiten zaigu, itsuenak ere ukatu ezin duena. Eta ebidentea, halaber: begi bistan dagoen arazo bat konpontzeko, arazoa onartzea da lehen pausoa, logikak hala agintzen du. Baina tuntuna zu, tontoena ni! César Rendueles soziologoak dioen moduan, "gure errealitate sozialari buruzko diskurtso nagusi gehienek errealitate hori ukatzea dute helburu".

Prestidigitadoreek egiten dutena, noski: uso zuri baten hegaldi zalapartatsuak ea begirada urrutiratzen digun sotanapeko txoritik; dultzaineroaren soinuak, kontratistak alkateari emandako bostekotik; azken modeloko BMW gorri batek, kontainerrean azterka dabilenarengandik…

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

Bertakoa eta sasoikoa

Telebistako programazio berria
Hainbat berritasun otsailean eta martxoan

- Programazio berria prestatu dugu familia guztiarendako.
- Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko ditugu.
- Edukiak, gauzak kontatzeko modua eta itxura, berrituta.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

BIARK ARKITEKTOAK
Etxea edo lokalerako ziurtagiria energetikoa

120€

LEHEN: 185€
DESKONTUA: %36

LILURA ESTETIKA ZENTROA
Besape eta iztartearen laser depilazioa

292€

LEHEN: 448€
DESKONTUA: %35



NEREA.M DANCE&FITNESS
Modan dagoen Zumba dantza probatu gura duzu?

59€

LEHEN: 131 €
DESKONTUA: %55

GERTU JANARIAK
Lagunekin edo familiarekin gozatzeko moduko menua!

15€

LEHEN: 22€
DESKONTUA: %32

Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

goiena

HERRIAK

ANTZUOLA

'Segapotoa', bertsozaleendako

- Jon Lizarazu antzuolarrak sortutako aplikazioa da, bertsolaritzaren gainekoa
- 'Play Store' bidez deskarga daiteke Android sistema erabiltzen duten mugikorretan

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Euskal Herrian bertsolaritzarekiko zaletasuna handia dela jakin badakigu denok; BECen lau urtean behin izaten den Bertso Txapelketak mugitzen duen jende andana horren isla garrantzitsuenetakoa dugu. Eta hor ditugu hainbat herri, elkarte eta txokotan antolatzen diren bertso-afariak, bertso-poteoak eta beste hainbat ekintza.

Oraingoan, baina, teknologia berriak eta bertsolaritza uztartzen dituen aplikazioa dago martxan. Eta, gainera, herritar batek egindako lana da. *Segapotoa* du izena eta *made in Antzuola* dela esan daiteke. Izan ere, Jon Lizarazu gazte antzuolarrak karrera amaiera proiektu moduan aplikazio bat egin du, bertsolaritzarekin lotutakoa: *Segapotoa*.

Lizarazuk honakoa esan du: "Errima okerrik ez egiteko, ezta potorik egiteko modua edota aukera eskaintzen du aplikazioak, eta, beraz, mugikorrari *segapoto* ere deitzen zaionez, eta nik egindako aplikazioa ere mugikorretarako denez, potoak kentzeko edo mozteko aplikazioari, hitz jokoa aprobetxatuz, hala deitzea pentsatu nuen". Aplikazioaren logoan ere ikus daiteke nola segak *poto* hitza mozten duen; beraz, hitz joko polita erabiliz izena jarri dio bertsolaritzarekin lotutako aplikazio horri.

Aplikazio sinple eta intuitiboa

Aplikazio oso osatua da, baita sinple eta intuitiboa ere; honela dio, behintzat, egileak: " Bertsotan hasi aurretik beti zein neurritan egin nahi den pentsatu behar dugu; beraz, aplikazioak, lehenik eta behin, zein neurri eta zein lerro kopurutako bertsoa egin nahi dugun galdetuko digu. Behin neurri bat aukeratuta eredu edota plantilla bat eskaintzen digu lerro bakoitzean zenbat silaba idatz ditzakegun esanez. Gainera, errimekin edota sinonimoekin arazorik izanda ere, bilatzaile bat ere badago aplikazioaren barruan. Hala, bilatzaile honekin, zalantza guztiak argitu eta bertsoa egiterik izango dugu". Horretarako, baina, Interneterako sarbidea izan behar du mugikor horrek. Momentuko kezka eta zalantzak argitzeaz gain, egindako lana ere zuzentzeko aukera ematen du aplikazioak; hau da, sortu dugun bertsoa zuzenduko duen atala ere badago. "Hala, silaba bakoitza neurri horretara ondo egokituta dagoen edota errima zuzenak diren edo ez jakiteko aukera ematen digu", adierazi du Jon Lizarazuk.

Saria jasotzeko orduan. Jon Lizarazu, erdian, sariarekin. | GIPUZKOAPP

Herritar guztiei zuzendutako aplikazioa da, nahiz eta bertsotan jakin ez. Ikasteko lagungarri da, beraz. Lizarazuren hitzetan, "momentuko laguntza moduan ulertu behar da aplikazioa; hau da, ez du balio bertsotan ikasteko. Ez da bertso eskola bat ordezkatzeko, baizik eta laguntza momentu konkretuetan sor daitezkeen zalantzei erantzuteko".



Bilaketak, aplikazio berrian. | JON LIZARAZU

Segapotoa aplikazioa. | JON LIZARAZU

Bertso eskoletan erabilgarria ere izan daitekeela gaineratu du Lizarazuk, ikasitakoa ondo barneratu dela egiaztatzeko eta jakiteko balio dezake-eta.

Nola instalatu

Android sistema erabiltzen duen edozein mugikorretan instala daitekeen apikazioa da. Oraingoz, ez dago erabilgarri IOS sistemetan, baina, hala ere, aurrerantzean moldaketak egin behar dituela ere adierazi du Lizarazuk; beraz, agian, sistema horretan ere egongo da erabilgarri aurrerantzean.

Android dutenek, beraz, *Play Store*-ra joan eta bertan *Segapotoa* izeneko aplikazioa bilatu besterik ez dute.

GipuzkoApp saria

Abenduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako GipuzkoApp lehiaketan parte hartu zuen Jon Lizarazuk Manex Agirrezabalekin batera. Proiektua amaituta izanda, moldaketa eta hobekuntza batzuk egin eta lehiaketara aurkeztea pentsatu zuten. Ez zuten uste irabazle aterako zirenik: "Oso pozik geratu nintzen. Ez nuen espero; honek asko animatzen du aurrera jarraitzeko" adierazi du Lizarazuk.

Beraz, bertsotan ikasi, hobetu edota bertsolaritza gustuko izan eta aplikazioarekin apur bat jolastu nahi duten guztiek badute eskuragarri bailarako jatorria duen aplikazio bat: *Segapotoa*.

JON LIZARAZU | APLIKAZIOAREN EGILEA

"Segapotoa' mugikorrerako aplikazioa da, bertsoak egiteko lagungarria"

Jon Lizarazu, Antzuola, 1990. Ingeniaritza informatikoa ikasi, eta momentu honetan *Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua* masterra ateratzen ari da. Karrera amaierako lana izan zen *Segapotoa* eta emaitza bikainak lortu ditu aplikazio berriarekin; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenengoz antolatutako GipuzkoApp sarietan amateur mailako saria bereganatu zuen Manex Agirrezabal lagunarekin batera.

Zer da *Segapotoa?*

Mugikorrerako aplikazio bat da, bertsotan egiteko, bertsotan egiten laguntzeko. Errima bilatzailea du barruan, baita bertsoak kantatzeko doinu batzuk ere. Sinonimo bilatzailea eta neurriaren araberako zalantzak argitzeko atalak ditu.

Zer dela eta bertsolaritzarekin lotutako aplikazioa?

Bueno, bertsozaleak gara, baina horren aurretik, fakultateko IXA taldean aurretik beste proiektu bat eraman zen aurrera: *Bertsotarako arbel digitala*. Hori publiko zegoenez Bertso Elkarteko webgunean, eta garai berriak kontuan hartuta, bertsotarako arbel hori mugikorretan ere izatea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun. Hala, erabakia hartu eta karrerako proiektutzat hartu nuen. Manex Agirrezabalek egin zuen oinarri oinarrizko planteamendua bere lanean, eta nik hori mugikorrerako moldatu dut. Bion lana da, beraz.

GipuzkoApp lehiaketako irabazleetako bat izan zen aplikazioa.

Ba; gizartearentzako egindako aplikazio onenaren saria irabazi genuen, amateur mailan. Lehen aldia zen halako lehiaketa bat antolatzen zela eta oso pozik gaude lortutakoarekin. Uztailean amaitu nuen nire proiektua eta ikusita irailera arte lehiaketan parte hartzeko aukera genuela, udan moldaketa eta aldaketa batzuk egin genituen eta irailean lana aurkeztu genuen. Eta egia esan, egindako esfortzuak merezi izan zuen, aurkeztu eta saria lortu baikenuen. Ez nuen espero irabaztea, baina oso gustura nago egindako lanarekin.

> **"Karrera amaierako proiektua amaituta, lana aprobetxatu dut"**

Sari potoloa, gainera, 3000 euro.

Bai, 3.000 euro hasiera baten dira, Ogasunak %21 kentzen dizunean saria askoz txikiagoa geratzen da, baina bai, bion artean banatu genuen dirua eta lagunekin afaritxo bat ere egin genuen.

Aurrerantzean, zer?

Oraingoz, honi helduko diogu. Aplikazioa moldatu eta hobekuntza lanak egingo ditugu, oraingoz.

LEINTZ GATZAGA

Angula porra bertso-bazkarirako aperitibo ezin hobea bihurtu da

Irabazleetako bat herriko alkatea izateak areagotu egin zuen elkartean sortutako festa-saltsa

GOIATZ ARANA | LEINTZ GATZAGA

Egun handia izan zen zapatua Leintz Gatzagan: angula porra, bertso-bazkaria eta ipuin kontaketa saioa izan zituzten; eta horiek laguntzeko, Lutxurdio trikitilarien konpainia. Jende ugari erakarri zuen egitarauak, eta bertako jendea ez ezik inguruko herrietakoa ere dezente batu zen. Angula porran, esaterako, txiki geratu zen Toki Eder elkartea: "Sartzen zen guztia eta gehiago ere bazen", Xanti Iparragirrek ondotxo zioen moduan. Korrika batzordeak antolatutako porran, 100 lagun baino gehiagok parte hartu zuten, eta asko izan ziren bizpahiru apustu eta hortik gora egitera animatu zirenak ere. Bat baino gehiagok lehen aldiz ikusi zituzten bizirik, eta txikienak jolasean ibili ziren, nork harrapatuko. 485 gramo pisatu zuten, eta bi asmatzaile izan ziren: Eugenio Otxoa alkatea eta Bixente Elortza arrasatearra. Gutxienez 300 euro inguruan baloratutako saria bientzako, beraz.

100 bat lagun elkartu ziren Soran etxean egindako bazkarian. | IMANOL SORIANO

Bertso-gai

Eta pentsatzekoa zen moduan, angula-saria alkateak irabazi izana aski erraz bihurtu zen ostean etorri zen bazkarirako bertso-gai. Amets Arzallus eta Andoni Egaña izan zituzten gonbidatu, eta sekulako jokoa eman zieten angulek: "Angulen pisua jakitera Leintz Gatzagara etorri behar izatea ere" eta halako ugari bota zituzten, herritarren barre algarak eraginez. Libre antzean hasi ziren bertsotan, baina bazkaritara batutakoak gaiak jartzera animatu ziren segituan. Eta hala, kantatu zuten gatz fabrikaren sorreraren inguruan, besteak beste. Eta makina bat txiste egin zuten Soran etxean bertan gau bat pasatzeko bazkal ostean egindako zozketaren inguruan ere.

Vanesa Gonzalez arrasatearrak ipuinak kontatu zizkien txikienei eta bikain aritu zen hura ere. Korrika batzordetik balorazio oso ona egin dute egunak emandakoaren gainean.

XANTI IPARRAGIRRE
ESKORIATZA

"Leintz Gatzagan berotzea ez da erraza, baina ari gara berotan sartzen; eguerdian hasita, egun konpletoa dugu gaur. Angula porrako saria ere polita zen eta, 20 gramo gora-behera, ez naiz urruti ibili baina... tartean asko zegoen".

AMAIA BEREZIBAR
ARETXABALETA

"Lagun bat izan zen iaz, oso gustura egon zen, eta aurten koadrila animatu gara. Goizetik etorri gara eta giro aparta dago. Porran ere parte hartu dut, baina ez naiz batere fin ibili. Angulak lehen aldiz ikusi ditut bizirik!".

EUGENIO OTXOA ETA BIXENTE ELORTZA
ANGULA PORRAKO IRABAZLEAK

Gustura ziren, nola ez, porrako irabazleak. Iazko esperientziak balio izan ziola zioen Otxoak, eta txiripaz joan zela eta bazkaltzeko lekua ez ezik saria ere lortu zuela Elortzak. Urte luzetan angulak jan gabe, zaporeaz ere ez direla oroitzen zioten biek ala biek, eta zera gaineratzen, txatxetan: "Aspaldian ez gabiltza lar lagun, baina, angulak tarteko, adiskidetuko gara".

ANDONI EGAÑA ETA AMETS ARZALLUS
BERTSOLARI GONBIDATUAK

"Elkartean nahikoa saltsa izan dugu", zioen Arzallusek; eta "Bertsolariok gehienetan egiten dugu jendeak egiten duena, eta bina euro jarri eta asmatu nahian zebiltzala ikusi dugunean, guk ere horixe egin dugu", Egañak. Leintz Gatzagan hainbat lagun dituela kontatu zigun Zarauzkoak eta lehen aldiz joan zela, berriz, Hendaiakoak, baina berezia iruditu zitzaiola ikusitakoa.

IRATI GOITIA

ARETXABALETA

Etorkizuneko hazia ereiten

Zuhaitz Eguna ospatu zuten atzo Aretxabaletan, eta neska-mutiko mordoak jardun zuen Santa Kurtz kale osteko bidegorri gainean arbolak landatzen. Mendiko oinetakoak eta arropa jantzi, aitzurra hartu eta lanean jardun zuten, aita-amen laguntzarekin. Nekatuta bukatuta zutela zioten eta, zelai lokaztuan, izango zen ipurdikoren bat hartutakorik ere. Baina egindakoak saria izan zuen Herriko Plazako hamaiketakoan.

OÑATI

Herriko sagardoarekin txoootx!

Halaxe egin zuten zapatuan Oñatiko Antixena gaztetxean: sagardotegiko plana antolatu eta herri bertako Garagaltza Haundiko sagardoa dastatu; unean bertan kupeletik ateratzeko nahiz botiletatik zerbitzatzeko, bietarako aukera izan zuten. Neska eta mutil, gazte eta heldu, askotariko jendeak egin zuen bat planarekin. Txalaparta eta adar soinuekin hasi zuten ospakizuna eta trago eta mokaduak eginez jarraitu. Gaztetxe kanpoan jarritako parrilletan txistorra eta txerri txuletak erre zituzten, eta bakailao-tortilla, gazta eta intxaurrak ere ez ziren falta izan.

IMANOL SORIANO

I.S.

ARRASATE

Ikusi eta batez ere erosi egin du jendeak Zuhaitz Ferian

Jende mugimendu polita eta salerosketa dezente izan ziren zapatu goiz osoan

Lehen ordutik eguerdira arte ibili zen jendea ferian. | IMANOL SORIANO

Herritar bat saltzaile baten azalpenak arretaz entzuten. | I.S.

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Haizete arriskua zela-eta, Mondragones kalean –Azoka Plaza gainean– egin zen azkenean Zuhaitz Feria, Seber Altuben beharrean; baina toki-aldatzea ez zen traba izan. Gustura azaldu ziren saltzaileak; eta berdin erosleak ere, Zuhaitz Feria berreskuratzea oso ideia ona izan dela esanez: "Horrela jarraitzen badu, datorren urtean ere etorriko naiz; beti egoten da zerbaiten falta", zioen Felipe Bengoa aretxabaletarrak. Eta ondorengoa, Arrasateko Espe Irasuegik: "Nafarroara joateko ohitura daukat, baina oso ondo deritzot ohitura berreskuratzeari. Lehen ere baditut fruta-arbolak, baina gustatzen zait aldatzea eta begira nabil".

Mintegi batzuek, gainera, salgai zituzten arbolek ematen dituzten frutak jarri zituzten ikusgai, jendeak ideia bat har dezan –ze tamainatako fruta ematen duten, ze itxura duten...– eta herritarrek eskertu egin zuten.

Oraintxe da landatzeko garaia; eguraldiak uzten digunean eta lurra apur bat sikatzen denean izango da garairik onena. Baldintza horiek noiz beteko zain egotea baino ez da geratzen.

ARRASATE

Nork eraman ote du dortokaren maskorra Aratusteetan janzteko?

G.A. | ARRASATE

Arrakasta izan zuen oskolak, bai. Elkartruke azokatik pasatako gehienek probatu zuten. Baina inor ausartu ez, hura eramatera; 13:00etan, behintzat, han jarraitzen zuen.

Indio eta bakero mozorroek, aldiz, hegan egin zuten; badirudi, jendeari gustatzen zaiola, egun batez bada ere, rol horietakoren bat jokatzea oraindik.

Aratusteak izan ziren, hain zuzen, zapatuko Elkartruke azokako gaia; eta horri esker, herritar bat baino gehiagok jada badu mozorroa edo osagairen bat gutxiago falta du.

Mutil gaztea dortoka oskolarekin, eta hiru lagun iritzia ematen. | GOIATZ ARANA

Neskatila, jantziei begiratu bat ematen. | G.A.

GRUPO ORTUIBAR

Informa zaitez, konpromisorik gabe:
ORTUZAL PROMOCIONES S.L Ibargarai 36 behea - BERGARA
Tel.: 943 79 40 00 - 943 76 11 18 - 619 71 82 78
www.grupoortuibar.com

Mesedeetako eskola zaharreko eremu bat, aparkaleku publiko

Udalak eta Mesedeetako Ahizpek akordioa sinatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak eta Karitateko Mesedeetako Ahizpen komunitateak hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean Mesedeetako ikastetxe zaharreko eremu bat aparkaleku publiko egiteko. 79 aparkaleku egokituko dira –Makatzena zaharberritzeko obrek 46 aparkaleku kendu dituzte– eta Udala arduratuko da eremu hori arautzeaz eta mantentzeaz.

Bi aldeak pozik agertu dira akordioarekin. Inazio Azkarragaurizar alkatearen arabera, akordioa ona da bi aldeendako: "Batetik, aparkalekua erabilpen publikorako bihurtzea eta inguruan dauden aparkaleku arazoei irtenbide bat ematea lortzen delako eta, bestetik, gunearen mantenu egokia ziurtatzen delako". Aurrekariei ere egin zien erreferentzia alkateak, hitzarmena "beharrezkoa" zela esanez. Izan ere, orain gutxira arte egindako erabilera txarrak zenbait buruhauste eragin dizkie Mesedeetako Ahizpei: "Aurrerantzean pentsatzen dugu horrelako arazorik ez dela gehiago sortuko", esan zuen alkateak. Era berean, kongregazioaren probintziako ama nagusi Aurea Maria Herrero ere "pozik" agertu zen: "Hitz eginez akordio batera heldu gara, hori da onena". Akordioak bi urteko iraupena izango du eta urtebetez luzatu ahalko da.

Mesedeetako ahizpak eta Udaleko ordezkariak, aparkalekuaren aurrean. | J.B.

NIRE USTEZ

OSCAR RODRIGUEZ

Koherentzia, aldaketaren eragilea

Politika eta alderdi politikoak azken 35 urteetako sinesgarritasun unerik baxuena ari dira pairatzen. Herritarren arabera, arazo bat dira erantzun bat baino. Eta hau ez da egun batetik bestera bukatuko –ez da krisiarekin bukatuko.

Arrazoi ezberdinek azal ditzakete pertzepzio hau. Politikagintzan ez dela epe luzean pentsatzen esan ohi da; gardentasunik ez dagoela, iruzurra errazten dela; autokritikarik ez dagoela, ezta egiten denaren ebaluaziorik; edota beti pertsona berak daudela.

Dudarik gabe, politikak aldatu behar du, berpizte prozesu bat jasan behar du. Baina, eta gu geuk? Har dezagun krisialdi honekin zerikusia duen sektore bat, enpresa arloa, hain zuzen ere. Epe motzeko politika kritikatzen duten enpresari guztiek badute euren enpresetan etorkizunean oinarritutako plan estrategiko bat? Gardentasunik ba al dago enpresetan orokorrean? Autokritika eta ebaluazioa egiten dira? Planifikatzen al da behar den bezala belaunaldien arteko erreleboa gure enpresetan, familiarrak kasu gehienetan?

Irakurleok, politikari egiten diren lau kritika orokorrak partekatzeaz gain, gaurko errealitatea aldatzeko helburua izango dugula espero dut.

Eta egoera aldatzeko bide bakarra gure enpresetan, erakundeetan, komunitatean eta etxeetan koherentzia pertsonala izatea da.

Aukearen ate irekietan, gimnasia abdominal hipopresiboa eta yoga ikastaroak otsailaren 21ean

Aukeak ate irekiak antolatu ditu Musakolako kiroldegian gimnasia abdominal hipopresiboa eta yoga probatzeko. Hilaren 21ean izango dira saioak: gimnasia abdominal hipopresiboa 17:30ean eta yoga 18:30ean. Doako saioak direnez ez dago izena eman beharrik; interesatuek kiroldegiko harreran galdetu behar dute.

Mozorrotzea gustuko?

- Garizuma iritsi aurretik, herri giroan disfrutatzeko dira Aratusteak
- Martitzenaz gain, duela hiruzpalau urtetik zapatuan ere ospatzen dira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Arrasatekoak ez dira Euskal Herriko Aratuste ezagunenak. Hona ez dira etnologoak eta ikerlariak etortzen, eta mozorroa nagusi den egun horietan, Arrasateko kaleetan ez da joaldunik, Ziripotik, ezta Miel Otxinik ikusten. Egun horietan, herriko kaleak azkenaldi honetan horrenbesteko premia dugun umore onez janzten dira.

Bailaran Aratuste kontuetan Aretxabaletak ospe handia lortu duen arren, "hemen beti egon da mozorrotzeko zaletasun handia", dio Andoni Altzelaik, SUDC elkarteko kideak. Egia da Arrasaten ez zela desfile edo karrozarik egiten, baina kaleak mamu, mexikar, indiar, superheroiz... bete ohi ziren. "Inguruko enpresekin hitz egin eta gero, hausterre-eguna jaiegun izatea lortu genuen eta urte haietan giroa ezin hobea zen", gogoratzen du Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k, Aratusteetako Jai Komisioko kideak.

Mende berriarekin batera, baina, martitzeneko festak indarra galdu zuen. "Ez dakit zergatik, baina jendeari kosta egiten zaio mozorrotzea", esan du *Harristi*-k. Horri buelta emateko asmoarekin, duela hiruzpalau urte, Aratusteetako komisioko kideek jai horien izaera herrikoia bizberritzeko ardura hartu zuten.

Esan eta egin, urte gutxiren buruan, garai bateko martitzenek zuten alaitasunak zapatura egin du salto. "Izugarria da Biteri plaza jendez beteta ikustea", aipatu du *Harristi*-k. Komisiotik kanpo ere, jende askok antzerako iritzia dauka. "Beste pertsona bat izatea dibertigarria da; dena den, barruan izaera horren zantzu bat izatea

20 bat urte dituen argazkian ikusten den moduan, garaiko gazteek ederto pasatzen zuten

ROSI OTADUI 'KATANGA' | SALTSEROA

"Aratusteetan ezin gara gaixotu, egun horiek kalean igaro behar dira"

R.O.

Zorionez, Rosi Otadui irribarrea, mozorroa baino gehiago, eguneroko jantzia duen horietako bat da, eta herriko Aratusteen gaineko elkarrizketa hau egiteko, etxeko ateak zabaldu eta bere argazki bilduma erakutsi digu.

Noiztik mozorrotzen zara?

Uf... Ez, ezin dizut urte jakin bat esan, baina lehen aldian 16 bat urte izango nituen, eta orain asko ditut.

Inoiz errepikatu duzu mozorroren bat?

Urte berean egun batean baino gehiagotan eroan izan dut mozorro bera, baina urte batetik bestera, inoiz ez.

Mozorro zerrenda luzea izango duzu.

Oso luzea, bikingoa, lehoi hezitzailea (txakur eta guzti), Scarlett O'Hara...

Zein da jantzi duzun mozorrorik xelebreena?

80ko hamarkadako Marta Sanchez.

Garai hartan Sanchez neska arin samarra zen?

Arropa gutxi eroan behar izan nuen, baina garai hartan ni ere arinagoa edo finagoa nintzen. Hala ere, lotsa apur bat sentitu nuen.

Playback jaialdian ere ibili zinen.

Maria Dolores Pradera, Marta Sanchez, Los Panchos, Gurrutxaga... Pertsonaia ugari egin nituen. Umorea eta alaitasuna dira festa horren sena, hor dago jai horren grazia.

Aurten ere ez duzu hutsik egingo.

Ezta pentsatu ere! Aratusteetan ezin gara gaixotu. Egun horiek kalean igarotzeko dira. Herrian algara dagoen toki gehienetan egongo naiz.

Playback jaialdi ahaztezinak

Musikaren eta umorearen jaialdia bederatzi urtez egin zen, eta oraindik herritar askoren oroimenean segitzen du. "Hasieran, ekitaldi bakarra egiten genuen, baina urteren batean bi emanaldi ere egin genituen", dio *Harristi*-k.

Ekitaldia nostalgia puntu batekin gogoratzen duen arren, emanaldiak atzean zuen lana ere aipatu du *Harristi*-k. Oraindik proiektua ideia bat baino ez den arren, badirudi SUDCeko kide batzuek jaialdia berreskuratzeko gogoa dutela.

Joseba B. Lenoir-ek azken diskoa aurkeztuko du Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan (22:00)

Kooltur Ekintza taldearen Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, Joseba B. Lenoir eta Felix Buff izango dira egueneko gonbidatuak. Joseba B. Lenoir musikariak bere azken lana aurkeztuko du gaztetxean: *Tenpesta*. Musikariak kontzertu bira abiatu du estudioko azken emaitza aurkezteko. Besteak beste, Arrasate, Gasteiz, Bergara edota Arteagan ariko da. Euskal Herritik kanpo ere zenbait emanaldi hitzartu ditu. Valladolid, Leon edo Ourensen ariko da zuzenean, besteak beste. Otsailean abiatu duten biran Felix Buff ere arituko da zuzenean, bateria-jotzaile moduan, hainbat kontzertutan. Ohi moduan, 22:00etan puntuan hasiko da kontzertua eta sarrera bost euro ordaindu beharko da.



Joseba B Lenoir eta Felix Buff gaztetxean izango dira eguenean. | GOIENA

Udal biblioteka itxiko dute bihar, irrati-frekuentzia bidezko sistema berria martxan jarri ahal izateko

Udal biblioteka itxita egongo da bihar, dokumentu guztietan RFID teknologiarekin –irrati-frekuentzia bidezkoa– funtzionatzen hasteko. Sistema berria samurragoa eta azkarragoa da, maileguetan dokumentuen identifikazioa eta lapurreten aurkako sistemaren desaktibazioa urrats bakarrean egingo delako. Biblioteka zerbitzuarekin zerikusirik ez duten Kulturateko gainerako zerbitzuek bere horretan jarraituko dute.

Ingurumen teknikari Pello Garai ikasleei azalpenak ematen, landaketak hasi aurretik. | IRATI GOITIA

Ia 200 ikasle batu ziren 120 zuhaitz landatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak antolatuta, Zuhaitz Eguna egin zuten egubakoitzean herriko ikastetxe guztietako ikasleekin, Garagartzan. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ia 200 ikasle elkartu ziren eta 120 zuhaitz landatu zituzten. Binaka, zuhaitz bana landatu zuten, pagoa edo lizarra. Aitzurrak eskuan hartu eta trebe ibili ziren ikasleak, eta egindako esfortzuaren ostean, ogitartekoa eta opari bana jaso zuten. Udaleko Ingurumen teknikari Pello Garairen arabera, Zuhaitz Eguna motz gelditzen da ikasleak denbora mugatuaz joaten direlako. Hala, hurrengo urterako aldaketak iragarri zituen: "Asmoa da ikasleek goiz osoa hartzea, eta seguruenik Udalak dituen beste lursail batzuetara joango gara. Kurtzetxikira, Hidalgo basora, Monterronera...".

Ikasleek binaka landatu zituzten pagoak eta lizarrak. | IRATI GOITIA

Hilaren 22an, helduen txanda

Egubakoitzean ikasleen txanda izan zen baina zapaturako, hilak 22, herritar orori zuzendutako Zuhaitz Eguna antolatu dute. Arrasate Institutuko –Musakolan– goiko aparkalekuan geratuko dira: "Hidalgo basoaren azpian dagoen lur sail baten 20 gaztainondo eta 20 intxaurrondo landatuko ditugu", aurreratu du Garaik.

n. | GOIENA

beharrezkoa da", azaldu du Altzelaik. Hura bezalako herritarrei esker iraun du herrian festa pagano horrek.

Disfrutatzeko aitzakia

"Aratusteak alaitasunaren sinonimo dira", esan du Altzelaik. Hura bakarrik mozorrotzen den arren, beti aukeratzen du herritarrekin harremana izateko aitzakiaren bat. "Iaz, lehengo gozoki -saltzailez mozorrotu nintzen", gogoratu du. Altzelairen ustez, beste hainbat herritarrentzat bezala, "mozorrotzea jostagarria da". Alaitasun hori, gainera, kutsakorra da, eta zapatua festa egun handia izatera pasatu da. Giro horrek, gainera, sorpresa ukitua dauka: elkarrizketatu guztiek mozorrotu egingo direla aurreratu duten arren, ez dute argitu zertaz mozorrotuko diren.

Dena den, martitzenak ez du bere Aratuste izaera galdu; gaztetxo ugari irteten dira euren mozorroak erakutsi eta kaleei kolorea jartzera. Gauerdian, baina, sardina erre eta gero, garizuma garaia da. "Ez dut gezurrik esango, Aratusteak sakratuak dira niretzat; garizuma, aldiz, ez dut horren gustuko", aipatu du mozorrotzea urteroko ohitura duen arrasatear batek.

Mota guztietako abestiak antzezten zituzten playback jaialdian. | GOIENA

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

elkarrizketa

Julio Galarta "Instituzioek ez dute artea bultzatzen"

Gure herriko txoko ugari margotu izan ditu. Kabailetea izkinaren batetan jarrita, albotik pasatzen ginenok harrituta edo jakinminez hurbiltzen gitzaizkion azrtan ote zebilen ikusteko. Arrasatearra izateagatik, bertan eman ditu bere bizitzako urte gehienak eta orain pintatzea normalagoa bada ere, bere belaunaldiko arrasatearrek behin baino gehiagotan, agian aurpegi arraro samarrez begiratu diote.

— Arrasate Press: Julio, zer dela-ta hasi zinen pintatzen, nolatan bururatu zitzaizun pintzelak eta margoak hartu eta koadroak egiten hastea?

— Julio Galarta: Pintatzeko nahia, gogoa edo bokazioa, nahi bezala deitu, txikitandik izan dut. Eskolan nenbilela zerbait pintatzen nuen eta gero Bilteri Fundazioko "arte eta lanbide" eskolan aritu izan nintzen dibujo ikasten. Artearen ulermen oker bat zegoen garai hartan eta kopiak egiten ematen genuen denbora gehiena. Orain badakigu eta ulertzen dugu artea somen lana izan behar dela, baina orduan... Ronson hasi nintzen lanean, baina bokazioa eta gogoa nuenez, eszedentziak eskatu eta Bartzelonara joan nintzen ikastera. Pintura irakasle izatera heldu nintzen. eredu izan direnak. Ea maila horretara heltzen garen... Horiek jaio zirenetik bizitza osoan horretan ihardutzaren zorrotz izan dute, bai familiaren egoera zela eta, bai beraiek berezkoa zutelako.

Guk, aldiz, ez dugu zorte hori izan, ez gara txikitandik eskolan batetara joan, saiatu izan gara baina...

Herrietan nabari da, arteak ikasteko leku aproposen falta. Arrasate adibidez, betidanik herri industriala izan da eta haurrak arlo horretara zuzentzen ditugu oso gazteak direnetik. Artea pertsona batzuren pribilegioa izan da, garai batean abentura ere bazen, zer egiten du ero horrek? Lastima da, arteak gaur egun alderdi ugari ditu, industriari aplika dakirkionak ere, diseina ala pinturaren benetako balioa?

— Beno ba, izena esan behar. Oso kalitate oneko erakusketak ikusi izan ditut Bartzelonan, Madriden eta egileak ezezagunak ziren. Izenak beti du zer ikusia, batez ere orain. Horrenbeste milioi Van Gogh-en lan batengatik eta bera bizi izan zenean ez zuen koadro bat ere saldu, orain aldiz kotizatuena da.

— Pintura, berez ez al da elitista?

— Baliteke, orain ere gutxingo bat da pinturaz aditzen duena.

Julio Galarta

kirolak

podiuma

"Kote" Lopez Rekarte, futbolaria

Kote, futbolarien familia bateko bigarren anaia dugu. Aita futbolaria eta entrenatzailea izana da. Lau anaietatik, hiru futbolean aritzen dira. Nagusia Bartzelonan, bera Eibarren, eta txikiena, 13 urte ditu eta Mondrako infantilekin jolasten du. *"Hau, hiruetatik onena da"*, harrituta utzen gaitu, "Lopez Rekarte" luzerako daukagu *"...Atletikek eta Errealak eraman izan nahi du, baina aitak hemen ikasten jarraitzea nahi zuen"*.

Beste asko bezala, Kote Makazenean hasi zen, eta Mondran sei urtez ibili ondoren, hau da bere bigarren denboraldia Eibarren. *"Hasiera oso ona izan zen, jokatzen hiit zuen, gero denbora pila galdu dut lesionaturik"*. Zuntzapurketa, tiroia eta orkatila-esginzea izan du oso denbora gutxitan, orain lau hilabete dela orkatilaz operatu zutelarik. Iazko denboraldian bakarrik dozena bat partidu jokatzeko aukera izan zuen. Joan dagokionez, *"oso ofentsiboa da, beti jouten gara irabaszera"*.

Galdetzen diogu bere estiloaz, analaierekin konparatuz ea ezberdina den, *"ez, postu eberdinetan jokatzen dugu, baina estilioa antzerakoa dugu. Indarra eta azkartasunean, tekniken baino, oinarritzen dugu gure jokoa"*.

Kote Errealzalea dugu, *"beti gustatu izan zait Errealz, beste ekipurik ez. Jokalariak?, asken boladontan Loren gustatzen ari zait asko; Archibald ere pila, eta Klinsmann alemaniarra. Gehien bat, nire antzera jokatzen dutenengan, azkarrak, indartsuak eta hutsune taballtailleak*

Kote, Eibar Taldeko jokalaria

☐ Danok Mikelekin

Mikel Otxoari omenaldia datorren Martxoaren 19an izango da. Real Sociedad eta Osasuna taldeen arteko partidua jokatuko da, Mondrako Zuzendaritza Batzordeak eta Mikelen aitaren laguneek osatutako antolatzaile-taldearen asmoa Atxabalpe betetzea delarik.

Girotzeko, Indar Gorri eta Mujika peñen presentziarekin, Txaranga eta beste ekitaldiak izango dira.

☐ Imanol Etxebarria eta Igor Gordobil Zubietara

Joan zen igandean Oborezko Ligako Mondra taldeak Easoren kontra enpatatzea lortu zuen. Baina sorpresa ederra partiduaren ondoren etorri zen: Expositok eta Kortabarriak deitu zieten Imanol Etxebarria eta Igor Gordobil arrasatearrei bi egunetan Zubietara entrenatzera joateko.

Imanol atezaina dugu, eta Zubietara joaten den bere lehen aldia da; ez da haa, aldiz, Igorren kasua.

☐ Jose Antonio Gay: azkenean ez

Nahiz eta hasiera batetan Jose A. Gay hilaren 10eko Anoetako ekitaldira gonbidatua izan, azkenean antolatzaileak planez aldatu emen, eta Jose A. gogoz geldtu zen. Arrasoi gisa, 400m.etan serie bakarra eta ez bi, egingo zela komunikatu zioten.

Tamalearria Jose Antoniok onesen

Julio Galarta: "Pintore izateko, dohain batekin jaio behar da"

Mondraueko txoko asko pinttau euen Julio Galartak. Ohikue zan ezkiñaren baten ikustie bere kaballetien laguntziekin. Txiki-txikittetik euken "pintatzeko nahia, gogoa edo bokazioa".

Roneon lanien ebillela, eszedentzia eskatu, eta Bartzelonara juen zan ikesten: "Pintura irakasle izatera heldu nintzen. Oso baliagarri izan zaizkit ikasketa haiek, kolorean, anatomian, mugimenduan-eta trebakuntza lortu bainuen".

Argi euken pintore izeteko ikestie ez zala nehikue: "Eskolako ikasketak bukatu eta inor ez da Picasso edo antzeko bat izango, horretarako dohain horrekin jaio behar da.

Salvador Dali hil barri zan, eta, Galartaren ustez, "Dali bere alderdi estrapertsonalengatik" nabarmendu zan: "Dibujante handia izan da, baina ez kolorista".

Instituziñuek artiei ez eutziela laguntzarik emuten komentau euen: "Ez dago babesik".

'Kote' Lopez Rekarte

Orduen, *Kote*-k Eibarren jokaketan euen; anaia nagusixek Bartzelonan –Luis Mari–; eta txikiñenak –Aitor– Mondran, infantilletan. *Kote*-k argi euken zein zan hiru anaietatik onena: "Hiruetatik onena Aitor da. Atletikek eta Errealak eraman nahi izan dute, baina aitak hemen ikasten jarraitzea nahi zuen".

Ez euen oso sasoi onien *Kote,* lesiño asko euki euen-eta oso denpora laburrien: zuntze apurtu, tiroie, esginzie orkatillien...

Zelaixen zelan jokaketan euen preguntaute, hau erantzun euen: "Anaiak eta biok, teknikan baino, indar eta azkartasunean oinarritzen dugu gure jokoa".

Gustetan jakon jokalari batzuk aittatu zittuen: "Loren, Archibald, Klinsmann...".

11. zenbakixe 1989-02-17

Labegaraietako areto-futbol txapelketako une bat. | GOIENA

Areto-futbol txapelketak berritasunak ditu aurten

Urrian hasi zuten liga eta aurrerantzean kopa ere jokatuko dute taldeek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ez da berria Bergarako areto-futbol txapelketa; 27 urtetako ibilbidea dauka. Hain zuzen ere, 1987an antolatu zuten aurreneko aldiz eta asmo garbia zuten sustatzaileek: futbol talde federatuetako kide ez zirenek ere kirol hori praktikatzeko aukera izan zezatela.

Antolatzaile aldaketa

Lagunarteko txapelketa da, beraz, Labegaraietan urtez urte jokatzen dena. Eta nahiz eta urtero antolatu izan duten, arriskuan egon zen 2013-2014ko denboraldia. Izan ere, bazirudien ez zegoela antolakuntza erreleborik.

Orduan, Minimou Taldie eta Poteo Izarrak taldeko kideek hartu zuten ardura beraien gain.

Urtez urte talde gutxiago

"Pena da, baina urtetik urtera geroz eta jende gutxiagok ematen du izena lehiaketan", dio Andoni Badiola Minimou Taldieko kideak. "1992an 42 taldek hartzen zuten parte, eta egun 10 gara bakarrik". Adin tarteari dagokionez, 19 eta 45 urte bitartekoek jokatzen dute Labegaraietan zapatu eta domeketan. "Jende berria lehiaketara nola erakarri pentsatzen aritu gara eta 24 ordutako lehiaketa bat antolatu nahi dugu, esate baterako".

Eta txapelketaz gainera, finantziazio bilatzeko ekimenak egin dituzte Bergarako areto-futbol txapelketako kideek: "Arrakasta handia izan zuen *Futbito Gaua* egin genuen gaztetxean".

Berritasunak

Lehiaketak berritasunak izango ditu: ligaz gainera kopa ere jokatuko da. "Parte hartzaileak ligan jokatu duten berdinak izango dira". Horren gaineko informazioa aurten sortutako webgunean aurkitu daiteke. Baina bestelako edukiak ere baditu orrialdeak: jardunaldietako emaitzak kontsulta daitezke edo porra egiteko aukera ere badago. Kasu horretan, gainera, gura duten guztiek hartu dezakete parte, txapelketan ibili ala ez. Hona hemen helbidea: *http://bergarakofutbitoelkartea.es.tl/*.

Argazki emanaldia eta asteburuko irteerak Pol-Polen eskutik

Z.V.D.M. | BERGARA

Pol-Pol mendi elkartearen eskutik, asteon egongo da zer egin. Eguenean, otsailak 20, azken hamar urteetako argazkiekin osatutako emanaldia jarraitzeko aukera egongo da. Elkartearen bulegoan bertan izango da, 19:00etatik aurrera. Ekimena elkarteko beteranoek antolatu dute.

Ez da eguna hor amaituko, gainera, eta afaria ere antolatu dute; Umore Ona elkartean izango da eta 15 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek.

Mendi eskia asteburuan

Bestetik, asteburuari begira ere hainbat ekintza antolatu dituzte Pol-Poleko lagunek. Batetik, mendiko eskia praktikatzeko irteera egingo dute eta Gourettera (Pirinioetara) joango dira. Bi egun iraungo ditu, otsailaren 22an irtengo dira eta 23an itzuli.

Irteera antolatzeko, batzar bat egingo dute bulegoan bihar, martitzena, 19:00etan. Mendiko eskia Pic Santus eta Pic Sarroa ibilbidetan egingo dute. Eguraldiak eta elurraren egoerak irteera-eguna alda dezaketela jakinarazi dute antolatzaileek.

Bizkaia aldera

Domekarako Elorriotik Areitiorako ibilaldia antolatu dute Pol-Polekoek. Autobusa ere egongo da eta frontoitik irtengo da 08:00etan.

Mendi buelta egin eta gero bazkaria egongo da. Animatzen direnek 35 euro ordaindu beharko dituzte.

Mendiko eskia egiteko irteera antolatu dute . | POL-POL

Saharara bidaltzeko batutako jakietako batzuk. | BUBIHSER ELKARTEA

DATUA

3.528

KILO

Bubihserrek Saharara bidaltzeko Bergaran jasotako janari kopurua.

4.199 kilo janari Saharara

Bubisher elkarteak herri ugaritan egin du bilketa eta pozik daude deialdiak izandako erantzunarekin

Z.V.D.M. | BERGARA

Urtero bezala, Bergarako Bubisher elkartea Saharara bidaltzeko janaria jasotzen ibili da. Hainbat herritan egin du bilketa: Bergaran, Antzuolan, Elgetan eta Soraluzen. Zifra polita jaso dute, gainera, izan ere, 4.200 kilo jaki lortu dituzte, horietariko 3.528 kilo Bergaran bertan batutakoak dira. Janariaz gain, helduentzako pixoihalak ere bidaliko dituzte.

Kopuruak behera

Halere, azken hiru urteotan, behera egin du jasotako janari kopuruak; 2012an 4.528 kilo lortu zituzten, eta 2013an 4.289 kilo.

Janari bilketa egindako herri bakoitzean, baina, joera ezberdinak nabaritu dira. Bergaran iaz baino 40 kilo inguru gehiago lortu dituzte oraingo honetan eta Elgetan ia hirukoiztu egin dute aurreko urteetako kopurua. Beherakada igarri dute, ostera, Antzuolan eta Soraluzen.

Hori horrela, arroza, azukrea, lekaleak, atuna, olioa, pasta eta helduentzako pixoihalak bidaliko dituzte Saharara. Pozik dira aurten ere Bubisher elkarteko kideak herritarrek izandako parte-hartzearekin, eta ekitaldian parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

Autolaguntza taldea osatzeko asmoa du Ongizate sailak

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Udaleko Ongizate sailak autolaguntza taldea osatu gura du mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileekin, "elkarri babesa emateko". Hori horrela, antzerako egoeran daudenek elkar ezagutuz elkarri laguntzea izango da helburua, euren artean esperientziak partekatu eta aholkuak emanez.

"Taldea hamabost egunean behin elkartuko da talde gidari baten laguntzaz eta bertan erabakitako gaiak jorratuko dira".

Parte hartu gura dutenek Ongizate sailak prestatutako orria bete beharko du, eta ondoren, taldea osatzen denean, erabakiko dituzte elkartzeko egunak eta ordua.

Bularreko minbizia garaiz detektatzearen beharraz

Z.V.D.M. | BERGARA

Katxalin elkarteak Debagoieneko hainbat herritan berbaldiak eskainiko ditu, tartean Bergaran. Hilaren 27an izango da, Irizar jauregian, 18:00etan hasita. Hala, *Bularreko minbiziaren antzemate goiztiarra* izeneko hitzaldia hiru medikuren eskutik jarraitu ahal izango dute bertaratzen direnek: Arrate Plazaola, Lourdes Aritziturri eta Maria Jesus Mitxelena.

Bularreko eta ginekologiako minbiziak eragindako emakumeen elkartea da Katxalin. Bertako bazkide den Maite Valle bergararrak hitzaldiaren garrantzia azpimarratu du: "Jendeari gogoratu behar zaio norbera zaintzea oso garrantzitsua dela eta sentsibilizazioa funtsezkoa da".

Migel Altunako zortzi ikasle aukeratu dituzte Herbehereetan lan egiteko

Gehienak udan joango dira, baina zortzietatik bat berehala joango da, bertako merkatuaren premiengatik

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Herbehereetako enpresetan langileak erretiratzen diren heinean, eskulan kualifikatuaren beharra geroz eta handiagoa da. Horregatik etorri dira Bergarara, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioko eta Mekatronika Industrialeko ikasle bila. "Hemen ere estimatuak diren ikasleak dira, baina Herbehereetan lan egiteko aukera oso erakargarria da", esan du Joxu Aranak, Migel Altuna Institutuko lan-poltsako arduradunak.

Institutuan aspaldi hasi ziren nazioarteko harremanak sendotzen, eta egun, Herbehereetako enpresekin ez ezik, Italiarekin eta Alemaniarekin ere lan egiteko akordioak dituzte.

Martitzenean eta eguaztenean egin zituzten aukeraketa probak. | IMANOL GALLEGO

Aukeraketa prozesua

Martitzenean ekin zioten hirugarren aukeraketa prozesua izan den honi. Bi egunean zehar 29 ikaslek hartu zuten parte aukeraketa prozesuan eta horietatik zortzi izan dira aukeratuak. Mekatronikako bost ikasle aukeratu dituzte eta Fabrikazio Mekanikoko Produkzioko hiru gazte.

Hasiera batean, guztiek ekainetik aurrera lan egingo zutela uste arren, enpresaren premiengatik, Produkzio Mekanikoko ikasle bat ondorengo egunetan hasiko da lanean.

Deltametaal enpresen elkarteko bitartekari Henk Van Soest -ek hauxe dio: "Aurreko urteetan izandako esperientzia ona errepikatzeko asmoarekin etorri gara. Mekanika eta Mekatronika arloetan hemen jasotzen duten jakintza oso ona da, eta Herbehereetan dugun lan premietara ezin hobeto egokitzen da".

> ESANAK
>
> **"Curriculuma osatzeaz gain, esperientzia berri bat da"**
>
> JAKUE BERNARDO | IKASLEA

Ikasleak ere prozesu horren guztiaren parte dira, eta asko urduri zeuden arren, Herbehereetara joateko aukera horren bila aurkeztu ziren aukeraketa prozesura. "Hau ez da curriculuma osatzeko aukera soila, hau bakoitzaren bizitza aberasteko aukera ezin hobea ere bada", esan du Jakue Bernardo ikasleak.

Aukeratuek lana lortu duten arren, datozen hilabeteetan, Herbehereetan hobeto ibili ahal izateko euren prestakuntzarekin jarraitu beharko dute.

Jarraipen zehatza

Ekainetik aurrera Herbehereetara joango diren gainontzeko zazpi ikasleak nederlandera ikastaro bat jasoko dute. "Lana ingelesez egingo duten arren, bertako hizkuntzaren zantzu batzuk izatea erabilgarria eta aberasgarria da", diote Migel Altuna Institututik. Deltametaal enpresen elkarteko kideek aukeratutako ikasleei gertuko jarraipena egingo diete eta uda garaian berriro etorriko dira gurera.

Oraindik zehazteko dago bigarren bisita horretan ere langile berri bila etorriko diren edo ez, baina Herbehereetan lan egiteko interesa dutenek *info@trabajarenholanda.es* helbidera bidal dezakete euren curriculuma edo lan eskaera.

Herriko 17 komertziotan salgai poltsa konpostagarriak

Z.V.D.M. | BERGARA

Poltsa konpostagarriak saltzeko Udalak eginiko deialdiari komertzio gehiago batu zaizkio; 17 dira gaur egun Debagoieneko Mankomunitateak eskainitako poltsak eros daitezkeen tokiak. Baina gogora ekarri dute materia organikoa botatzeko poltsa konpostagarriak erabiltzeaz gain, poltsarik gabe ere utzi ahal izango dela.

SALTOKIAK

- Zapaterikua Autozerbitzua
- Ekilur parafarmazia
- Gaztelu burdindegia
- Gisasola burdindegia
- Gorosti loradenda
- Igaro estetika zentroa
- Ikasbi liburudenda
- Imaz harategia
- Imprespal
- Mgusta fruta-denda.
- Mujika Gozotegia
- Mujika Burdindegia
- Ninika loradenda
- Osintxuko denda
- Tripontzi-Ogiberri
- Txikuri belar-denda
- Xuxu arropa-denda

Iaz lehiaketan egindako txorimaloetako bat. | GOIENA

Eman daiteke izena XX. Txorimalo Lehiaketan

Jardunek gitarra ikastaroa eta eskalada basatiei buruzko film emanaldia ere antolatu ditu

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Jardunek XX. Txorimalo Lehiaketa antolatu du; ohi bezala, Erramu-zapatuan egongo dira ikusgai sortutako lanak, Ibargarai kalean. Aurretik, baina, izena eman beharko da parte hartu gura izanez gero. "Apirilaren 4a izango da izena emateko azken eguna", eman dute aditzera Jardunetik.

Adin guztiei zuzendutako lehiaketa da; hala ere, bi taldetan banatuta dago: 12 urtetik azpikoa, batetik; kasu horretan, sailkapeneko aurreneko hiru taldeei barraketan ibiltzeko fitxak emango dizkiete sari moduan. Eta bestetik, 12 urtetik gorakoen taldea dago; eta kasu horretan, 90 euro jasoko ditu lehenengo taldeak, 60 euro bigarrenak eta 30 euro hirugarrenak.

Eskalada basatia Kanadan

Otsailaren 26an, bestalde, *Bugaboos & Squashi. Eskalada basatiak Kanadan* filma ikusteko aukera egongo da Jardunen eskutik Irizar jauregian, 19:00etan hasita.

Ibon Santos eta Iñaki Arenaza eskalatzaile bergararrek Kanadan bizitakoak jasotzen ditu filmak. Arenaza, gainera, bertan egongo da eta galderak egiteko aukera egongo da.

Gitarra ikastaroa

Azkenik, Jardunek helduentzako gitarra ikastaroa antolatu du. Martxotik maiatzera izango da; zapatuetan elkartuko dira, Zabalotegin, eskolak hartzeko. "Gutxienez, bost pertsonako taldea izan behar da. Dagoeneko eman daiteke izena; 12 euro ordaindu beharko dute interesatuek eta 10 euro bazkideek.

NIRE USTEZ

JOSU ELORTZA

Akordioak beharrezkoak

Gizakiak urteetako lan gogorraren ostean lortutakoa gau bakar batean eraman dezake urak. Esaldi gogorra benetan, etsipena daramana itsatsia, inpotentzia eta tristura. Teknologia eta gizakia ez dira sekula gai izango itsasoak duen indarrari gailentzeko, berea dena defendatzeko borrokari aurre egiteko. Donostiako paseo berria, Ondarreta, Zarautzeko malekoia edota Bermeoko portua, nork imajina noizbait horrelakorik ikustea.

Bi alderen arteko akordioa arazo orori amaiera emateko ezinbesteko baldintza da. Zaila ikusten dut urteetan berea dena nola kentzen zitzaion ikusi duenak bakarrik pausoak eman behar izana, beste aldeak zain, ezer egin gabe itxaroten duen artean. Zoritxarrez, oso gertuko arazo dugu. Gatazka orok du zerbait komunean, bi alderen arteko akordio beharra.

Poztasunerako gaiei helduz, zalaparta latza sortu duen bilketa sistema berria, zorionez, normaltasun osoz abian da herrian. Berrikuntza orok bezala, denbora eta pazientzia eskatzen ditu, pentsa, ibaitik edukiontzietara pasatzea kostatu zitzaiguna.

Inauteriak ere gainean ditugu; aurten, herritarrentzat hain kutuna zen Novedades izango dugularik gogoan ikuskizun handi batekin.

Gure baitan datza eguzkia, iluna eta izotza, urratu dezakeen argia, urtuko duen bihotza.

> **"Akordioak ezinbesteko baldintza dira"**

Joxe Mari Olasagasti aizkolaria izango da Oñatin. | WWW.IRUTXULO.HITZA.INFO

Urrezko Aizkoraren finalerdi bat, Zubikoan

Atutxa eta Mugertza, Olasagastiren eta Cañaberasen aurka domekan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Eusko Label sariko urrezko kategoriaren finalerdiak jokatuko dira Oñatin datorren domekan, otsailaren 23an. Euskal Herri mailako aizkora txapelketako finalerdietako bat izango da eta puntako aizkolariak lehiatuko dira: Atutxa eta Mugertza, Olasagastiren eta Cañabaresen kontra.

32 enbor

Proba Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan jokatuko da, 12:00etan. Euskal Telebista ere hantxe izango da. "Modalitate ezberdinak gainditu behar izango dituzte aizkolariek: zutik, kolpeka, txanda librean... Guztira, 32 enbor moztuko dituzte", aurreratu du Anjel Billarrek, Oñatiko Herri Kirolen Taldeko kideak.

Izan ere, herriko talde horren eskutik jokatuko dute puntako proba hori Oñatin. "Hemen ere bagaude herri kirolak gustatzen zaizkigun herritarrak. Bertako jaietan, esaterako, urtero antolatzen ditugu herri probak, horiei eutsi nahi diegu, eta indartu, ahal dela. Horregatik, geuk eskatu genion txapelketa antolatzen duen federazioari probaren bat Oñatin jokatzea. Pozik gaude gure eskaria kontuan hartu dutelako", dio Billarrek.

Bestalde, Oñatiko Herri Kirolen Taldeaz gain, probaren laguntzaileak izango dira: Oñatiko Udala, Ormazabal Iturgintza, Ulma, Gereta Ardoak, Mekalki Mekanizatuak eta Berezao Amets Tailerra. Probaren gidaritza, baina, federazioak izango du eta epaileak ere federazioak jarritakoak izango dira. Beste finalerdia Azurmendik eta Otañok jokatuko dute Etxeberriaren eta Larretxearen kontra.

Zozketa

Otsailaren 23an Oñatin jokatuko den finalerdia ikusteko sarrera 10 euro izango da. "Sarrerak, baina, zenbatuta egongo dira eta zenbaki horiek zozketa egiteko erabiliko ditugu. Bost sari emango ditugu: herriko bost produktu, bertakoak", aurreratu du Anjel Billarrek.

Aizkora proba izan arren, harri jasotzaileak ere egongo dira Zubikoako pilotalekuan. Izeta aita-semeek harriak jasotzen jardungo dute aizkolarien proba batetik besterako tartean.

Tailerrak eta hitzaldiak Urgainen kultur jardunaldien barruan

Ikasle eta irakasle ohiek jotzen duten rock taldeen kontzertua ere egingo dute hilaren 28an

O.E. | OÑATI

Hilabete hasieran ekindako kultur jardunaldien bigarren zatiari ekingo diote gaur Urgainen.

Gaur eta bihar, esaterako, autodefentsa feminista landuko dute bertako ikasleek. Eguenerako, hilak 20, berriz, janariarekin lotutako bi ekintza antolatu dituzte. DBHko lehen eta bigarren mailetako ikasleendako, adibidez, txokolate tailerra antolatu dute. Txokolateixako Antton Azpiazu izango da tailerraren gidaria. Bestalde, DBHko hirugarren eta laugarren mailetako ikasleek gosari osasungarria zer den ikusi eta ikasiko dute Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarraren eskutik. Elikadura jasangarriaren tailerraren barruan izango da hitzordu hori. Bizkaiko burdinaren inguruko hitzaldia ere izango dute DBHko eta Batxilergoko lehen mailako ikasleek Urdin Elortzaren eskutik. Egubakoitzean izango da hori.

Datorren astean, berriz, era guztietako tailerrak egingo dituzte: bitxigintza, grafitiak, larrua, makramea, eskalada, bizikleten mantentze-lanak, gozogintza beganoa, orratz lanak, makillajea... Ikertzaileen eta ekintzaileen esperientzia ere ezagutuko dute, Training Caravan programarekin. Bestalde, hilaren 28an, irakasle eta ikasle ohien taldeak gonbidatu dituzte antolatu duten rock kontzertura. Zuazolaren 50. urteurrena ospatzeko kontzertua izango da. Martxoan *Emakumeen eskubideak* argazki erakusketa ekarriko dute, Amnesty International taldearen eskutik.

Izen-abizenak euskal grafiara pasatzeko deia

Uemak martxan jarri duen 'Euskaraz naiz' kanpainarekin bat egin du Oñatiko Udalak

O.E. | OÑATI

Izenak eta abizenak euskalduntzeko kanpaina jarri zuen martxan Uemak urtarrilaren bigarren hamabostaldian. *Euskaraz naiz* da ekimen hori sustatzeko aukeratu duen leloa. Oñatiko Udalak bat egin du kanpaina horrekin. Horrela, abizenak euskal grafian idazteko dei egin gura die Udalak herritarrei.

Izena edo abizena euskalduntzeko, erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta izena edo abizena euskal grafiaz jarri gura duela esan eta eskaera orria bete beharko du herritarrak. Orri horrekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu: nortasun agiriaren fotokopia –eta adingabeek gurasoena ere bai–, epaitegian eskatzen den hitzez hitzezko jaiotza, errolda agiria, familia liburuaren fotokopia eta 16 urtetik gorako seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia.

Medikua etorri bitartean zer egin edo nola jokatu azalduko du biharko hitzaldian Gema Bikuñak

Emergentzia kasuetan eta gaixoak atentzio mediku profesionala lortu arte zer egin daitekeen azalduko du Gema Bikuña erizain oñatiarrak bihar, 18:15ean, Bidebarrietako erabilera askotariko gelan. Herriko ikastetxeek, bertako guraso elkarteek eta Oñatiko Udalak gurasoen prestakuntzak arduratzeko osatu duten lan-mahaiak antolatu duen hitzaldia izango da. Ahoz ahokoa eta masaje kardiakoaren teknikak landuko ditu, besteak beste.

Aloña Mendiko atletismo sailak bigarren postua lortu du Euskadiko kros luzeko txapelketan

Euskadiko bigarren postua eskuratu zuen Aloña Mendiko atletismo sailak joan den asteburuan Laudion jokatu zuten Euskadiko kros luzeko txapelketa nagusian. 12 kilometroko distantzia zuen zirkuituak eta orain arte lortutako emaitza onenarekin bueltatu ziren korrikalari oñatiarrak etxera. Kros motzeko txapelketan ere bigarren postua lortu zuten. Zorionak!

NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Kebab Boise

Horrela deitzen da Oñatin kebaba saltzen duten lekua; nik dakidanez, bakarra. Bitxia lekuari izena emateko egin duten hitzen uztarketa: kebab, Asiako janaria, eta Boise, Ameriketako Estatu Batuetako Idaho estatuko hiriburua. Jatorri erabat desberdina kebabak eta Boisek, baina biak Oñatin elkartuta: Kebab Boise.

Ameriketako Estatu Batuetara joandakoak herrira itzultzean sortutako taberna Boise, berak ezagututako lurraldea gogoan. Denborarekin Asiatik etorritakoek hartu dute lekua tabernan eta janariak hango erara prestatuz bizimodua ateratzen saiatu. Munduko bazter desberdinetako biztanleen ibileren erakustokia taberna hau. Migratzaileak, etorkinak, batzuk hemendik joan dira eta doaz; beste batzuk etorri dira, eta badatoz, modu errukarrian asko, eta bidean hilda geratzen direnak, gehiegi. Gure adinekook joandakoak baino gehiago ezagutu ditugu etorri direnak, baina hemendik joandakoak ere asko dira, Boise horren adibide, euskal jatorriko jende askoren bizilekua; eta badirudi hemendik aurrera ere gure seme-alabetako askok kanporako bidea hartuko dutela. Bitartean, Kebab Boise, Asiako eran prestatuko janari aukera zabala gurean, baina euskarak nahiko indarrik ez bertako menuak gure hizkuntzan jartzeko. Kebabak, hori bai, oso onak.

"Jatorri ezberdina dute, baina biak Oñatin elkartuta"

Eskoriatza Garbia plataformako kideak, eguenean eskainitako agerraldian | IMANOL GALLEGO

ESKORIATZA

Hondakinei buruzko herri galdeketa dago domekan

San Pedro, Intxaurtxueta eta Gaztañaduikoak deitu ditu Eskoriatza Garbiak

I.GALLEGO /M.BITERI | ESKORIATZA

Hondakinak batzeko sistemari buruzko herri galdeketa deitu du Eskoriatza Garbia plataformak hilaren 23rako, *Zuk erabaki, tu decides* lelopean. Eguen iluntzean eskainitako prentsaurrekoan jakinarazi zuten hiru hilabetez proba pilotua egin den Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetan eta Gaztañadui kaleko 27 eta 29. atarietan bizi diren eskoriatzarrak daudela deituta.

Galdeketa auzo eta kale horietan bakarrik egitearen arrazoia zein den azaldu zuen plataformako kide Josu Erkurdiak: "Bertan bizi direnek zaborra biltzeko sistema biak probatu dituzte, eta, beraz, euren iritzia kontuan hartzekoa da, zeri buruz hitz egiten ari diren dakitelako. Sistema bat zein bestea defendatzen dutenek euren iritzia sekretupean eta askatasunez emateko aukera paregabea daukate".

Notarioa egun osoz

Intxaurtxuetako EPAko gunean egingo dute galdeketa, 10:00etatik 18:00ak bitartean. Bozkatzeko aukera bi izango dira: bosgarren edukiontzia edo atez atekoa. Plataformakoek azaldu zuten "gardentasuna" ziurtatze aldera prozesu osoak notario baten babesa izango duela eta galdeketaren emaitzak domekan bertan ezagutaraziko dituztela.

Kontzientziazioa

Galdeketa egitearen zergatia ere azaldu gura izan zuten Eskoriatza Garbiakoek agerraldi berean. Plataformaren ibilbidea gogoraztearekin batera, atez atekoak "eragozpenak" bakarrik sortzen dituela aipatu zuten; eta herritarrak "kontzienteak" eta "konprometituak" diren heinean, "inposizioaren bidea" negatiboa dela ere nabarmendu zuten. Ezkurdiaren esanetan, kontzientziazioa da hondakinen arazoa konpontzeko bide bakarra.

Proba pilotuak emandako datuak aztertu ostean, haren "porrota" azpimarratu zuten. Horren harira, honakoa salatu zuten: "Alkateak gezurra esan dio herriari. Atez atekoarekin hondakinen %92 jaso dela ziurtatu du, berak eskainitako datuek horrelakorik islatzen ez badute ere, eta kontuan izanda herritarren %82k bakarrik hartu zituztela zaborra gaika jaso ahal izateko ontziak. Alkateak ez dakizki oinarrizko arauak edo herritarrak leloak direla uste du. Gezurra defendatzen ari da".

Hori guztia dela eta, domekan egingo den herri galdeketan parte hartzeko dei egin zuten.

Batzar informatiboak bihar eta etzi

Udala atez atekoaren ezarpenari buruzko batzarrak egiten dabiltza egunotan Ibarraundin. Bihar eta etzi, Dorleta, Olaeta, Aranburuzabala eta Aingeru Guardako herritarrekin batuko dira udal ordezkariak eta Mankomunitateko teknikariak: biharko batzarra euskaraz izango da, 18:30ean; etzikoa ele bitan, 10:00etan; eta egun berean, baina 18:30ean, gaztelaniaz.

ARETXABALETA

Grabatu ikusgarriak daude egunotan Arkupen erakusgai

M.B. | ARETXABALETA

Hilero moduan, erakusketa dago ikusgai Arkupen. Oraingoan, Nagore Uriarte aretxabaletarraren eta Amaia Martinez de Arenatza oñatiarraren artelanak ikus daitezke erakusketa aretoan hilaren 28ra arte, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan goizez.

Leioan Arte Ederrak ikasten dabiltzan bi debagoiendarrek egindako grabatuak dira ikusgai daudenak. Horren harira, honakoa azaldu digu Nagore Uriartek: "Familiaren argazki zaharrak hartu ditugu oinarri; Amaiaren kasuan gurasoenak, eta nik, berriz, aitaita-amamenak. Metamorfosia egin dugu horiekin. Nik grabatu klasikoagoetara jo dut eta Amaiarenak, berriz, modernoagoak dira; fotokopiak eta bestelakoak ere erabili ditu grabatuak egiterakoan. Bakoitzak 15 bat artelan jarri ditu Arkupen".

Erakusketa jartzearen nondik norakoaren gainean, aretxabaletarrak esan digu batera bizi direla Bilbon, eta honakoa gaineratu du: "Atxuri auzoan bizi gara, eta izen hori erabili dugu erakusketaren izenbururako".

Uriarteren lanak, Porton

Bestalde, euren artelanak erakutsi dituzte aurretik ere biek. Uriartek, esaterako, Porton (Portugal) izan zituen joan den urtean ikusgai. Erasmusekin urtebetez egon zen ikasten hiri horretan. Martinez de Arenatzaren lanak, ostera, Bilbon eta Oñatin bertan ikusteko aukera izan dute.

Bisitariak artelanak ikusten. | MIRARI ALTUBE

Algara ludotekan lan egiteko hezitzailea behar du Loramendi elkarteak

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Algara ludotekan hezitzaile lanak egingo dituen lagun bat behar du Loramendi Elkarteak. Berehala hasiko da lanean; hortaz, interesatuek lehenbailehen bidali behar dituzte curriculumak honako helbidera: *loramendielkartea@gmail.com*. Azken eguna etzi da, eguaztena.

Baldintzak

Loramendiko kideek zera eskatu diote hezitzaile lanok egingo dituenari: euskalduna izatea; aisialdi kontuetan eskarmentuduna; eta aretxabaletarra izatea edo, gutxienez, Aretxabaleta ondo ezagutzea. Gernika plazan dagoen Algara ludoteka 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoen topalekua da.

NIRE USTEZ

IÑAKI PIERRUGUES

Ongizatea eta merkatua

2012ko urtarrilean *Goiena*-tik eskatutako azken elkarrizketan galdetu zenidaten zer falta zitzaion Eskoriatzari. Eta honakoa erantzun nuen: "Beti dago zerbait egiteko. Baina orain azken urteotan lortutako Ongizatearen Estatua mantentzearen alde egin behar dugu. Lanagatik borrokatu behar dugu, inor kalean geratu ez dadin".

Hori esaten nuen ikusten nuelako, krisi ekonomikoa aprobetxatuz, eskuma ekonomikoa Ongizatearen Estatua bertan behera uzten saiatu zela. Langabezia; lan erreforma; soldata baxuak; kaleratzeak; eta osasunaren, hezkuntzaren, gizarte prestazioen eta publikoaren desegitea neoliberalaren aurreratzearen ondorio dira.

Egoera oso negatiboa da, eta gaixoa botika gogorrekin baino ez da osatuko. Horren aurrean honako hau izan daiteke baliagarria: batetik, politikariak arazo sozialak konpontzen ez dituzten legeak aldatzeko daude; lege guztiak gizatiarrak dira, eta hortaz, moldagarriak. Bigarrenik, politika gehiengoarendako onuragarria den gizartea antolatzeko sortzen da, eta zoriontasunaren arabera dira ekimenak onak edo txarrak. Hirugarrenik, gizarte aldaketa ematen da egitura ekonomikoa moldatzen denean; ekonomiaren jabeek ez dituzte inoiz legeak edo politika aldatuko, inork ez baditu behartzen. Azkenik, giza protesta guztiak ongietorriak dira, geldialdiak porrot handiena bermatzen du-eta.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Aste Santuko nagusiendako egonaldietan izena eman daiteke martxoaren 14ra arte

M.B. | ESKORIATZA

Aretxabaletan eta Eskoriatzan gertu dituzte Aste Santurako aldi baterako egonaldiak, nagusiendako. Interesatuek martxoaren 14a baino lehen aurkeztu behar dituzte horren gaineko eskaerak.

Bada, herri bietako udaletako gizarte zerbitzuetatik jakinarazi digute izena emateko zerbitzu horietako bulegoetara joan beharra dagoela, baina, betiko moduan, aurretik txanda hartuta.

Eskoriatzarrek 943 71 31 36 telefono zenbakira deitu behar dute txanda eskatzeko eta aretxabaletarrek, ostera, 943 71 18 62 zenbakira.

ELGETA

Ikusmina sortu du, aurten ere, futbito txapelketak; bederatzi talde aritu dira

Txapelketako ligaxka amaituta asmoa da aste bukaera honetan finalerdiak jokatzea, eta bi finalak Aratuste osteko aste bukaerarako uztea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Talde gutxiago lehiatu da aurten herri mailako futbito txapelketan, baina azken aste bukaeretako hitzorduek ikusmina piztu dute. Ligaxkako sei jardunaldiak jokatu ostean argitu da zeintzuk diren finalerdietarako sailkatu diren taldeak. Gizonezkoen txapelketan aurrez aurre izango dira Astuan Villa eta La Kokotxa. Beste finalerdia Txapela eta Jaitxo taldeek jokatuko dute. Nesken txapelketan hiru taldek hartu dute parte, eta iazko txapeldunak gelditu dira aurten finalerdietatik kanpo: Bandoleira taldea, hain zuzen ere. Hala, Etxaon —lehen sailkatua— eta Gaztiak taldeek jokatuko dute finalerdia.

Antolatzaileen asmoa da finalerdiak aste bukaera honetan jokatzea. Aratusteetan atseden hartuko du futbito txapelketak, eta bi finalak martxoko bigarren aste bukaeran jokatuko dituzte.

Goleatzaileak

Adin eta maila guztietako jokalariek hartu dute parte, aurten ere, txapelketan. Jendea erakarri dute futbito txapelketako norgehiagokek, eta giro polita sortu da frontoian. Epaile lanak, aurten ere, txandaka egin dituzte talde ezberdinetako ordezkariek eta zeregin horretan ondo aritzea da zalantzarik gabe txapelketako erronketako bat.

Goleatzaile onenen sailkapenak ere egin dituzte aurten. Emakumezkoetan Maitena Mañarikuak egin ditu gol gehien; 8 gol. Gizonezkoetan, berriz, Haritz Gallastegi da ligaxkako pitxitxia 16 gol eginda.

Facebook orrialdea, aurten

Berrikuntza moduan Facebook orrialdea ere izan du, aurten, futbito txapelketak. Antolatzaileek bertan eman dute emaitzen eta sailkapenen berri. *Elgetako albisteak* orrialdean, berriz, txapelketako taldeen argazkiak daude ikusgai.

Astuan Villa taldeko mutilek lortu dituzte puntu gehien ligaxkan. | L.Z.

Emakumezkoen txapelketan Etxaon taldea izan da onena ligaxkan. | L.Z.

FUTBITO TXAPELKETA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Intxorta's Crew - Astuan Villa	5-13
Jaitxo-La Kokotxa	8-5
Bandoleira-Gaztiak	4-4
Nahaste Borraste-Txapela	2-9

SAILKAPENAK

		GOLAK ALDE	GOLAK KONTRA	PUNTUAK
EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA				
1	Etxaon	13	10	6
2	Bandoleira	14	13	4
3	Gaztiak	12	16	4
GIZONEZKOEN TXAPELKETA				
1	Astuan Villa	58	20	15
2	Txapela	33	25	12
3	Jaitxo	46	21	9
4	La Kokotxa	37	35	6
5	Intxorta's Crew	16	43	1
6	Nahaste Borraste	11	62	1

ARAMAIO

Egubakoitzean aurkeztu behar dute 'Bazan behin Aramaixon' liburuxka

Herritarrak protagonista izateko ekitaldi irekia antolatu dute; kultura etxean izango da (17:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Egubakoitz honetan, hilak 21, aurkeztuko dute *Bazan behin Aramaixon* liburuxka. Kultura etxean izango da aurkezpena, 17:30ean. Ekitaldi irekia eginda aurkeztuko dute; hau da, adin guztietako herritarrak batuko dituzte argitalpenean agertzen diren 18 ipuinak eta abestiak kontatu eta kantatzeko: "Protagonistak herritarrak izango dira, eurek hartuko dutelako hitza ipuin horiek plazaratzeko", adierazi du Euskara teknikari Rosa Mondragonek.

Arantza Ozaetak eta Dibina Arriolabengoak egindako Aramaioko ipuin eta kondairen bilketa aprobetxatu du Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak liburuxka ateratzeko.

Umeendako, bereziki

Ozaetaz eta Arriolabengoaz gain, Belen Morenok –irudigilea–, Miel A. Elustondok, Jabier Kaltzakortak, Txipi Ormaetxeak –edizioa– eta Manex Agirrek –zuzentzailea– hartu dute parte proiektuan. Liburuak 24x24 zentimetroko neurria du, marrazki handiekin eta askotariko koloreekin. Berba handi eta argiak erabili dira, eta kaligrafia borobilekoak, umeak gai izan daitezen erraz irakurtzeko. Izan ere, liburuxka etxeko txikienendako da, bereziki: "Ekitaldira gonbidatuta daude herritar guztiak, baina, bereziki, gurasoak eta haurrak, liburuxka umeendako da-eta". Gainera, ipuinak Aramaioko euskaran daude idatzita.

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa antolatu du Udalak; izena emateko azken eguna, otsailaren 27a

Udaleko Gazteria, Migrazio eta Berdintasun batzordeak Martxoaren 8rako kartel lehiaketa antolatu du aurten ere: "Gure herrian emakumeen eskubideen defentsa bultzatzeko, gizarteko arlo guztietan". Kartelak derrigorrez esaldi bat izan beharko du euskaraz –librea– eta, horrez gain, honako testua ere jaso beharko du: *Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna 2014.* Otsailaren 27a baino lehen entregatu behar dira lanak, udaletxean. Bi sari egongo dira: irabazleak 200 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 100 euro. Lehiaketaren oinarri guztiak Udalaren webgunean daude.

ANTZUOLA

Hitzaldi sorta gaur egungo krisiaren gainean

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

EHBilduk hitzaldi sorta antolatu du bailaran, gaur egungo sistemaren krisiaren zergatiak azaldu eta alternatibak planteatzeko. Hitzaldietako bat Antzuolan izango da aste honetan bertan. Otsailaren 19an, eguaztenean, izango da, arratsaldeko zazpietan, Olaranen. Hitzaldiaren izenburua *Ehun industrialaren galera eta Tokiko garapena* da. Hizlari lanetan Jone Etxeberria eta Josu Lizarralde adituak arituko dira.

Esan bezala, bailarako beste herri batzuetan ere izango dira hitzaldiok; hala, datorren hilean Bergaran izango da hitzaldia Joseba Permachen eta Pello Urizarren eskutik. Bertan, *Egungo krisiaren aurrean gure proposamen sozio-ekonomikoa* izenburupean arituko dira solasean. Hitzaldi hori martxoaren 20an izango da, Bergaran.

Oñatin ere hitzaldiak izango dira martxoko beste egun batzuetan; izan ere, Arantza Urkaregik eta Ander Rodrigezek *Balioen krisia eta politika sozialak* izango dituzte oinarri eta Ainhoa Beolak eta Ino Galparsorok Kutxabanken inguruan hitz egingo dute: *Kutxabank; banku publiko eta soziala?* galderari erantzungo diote.

Herritar guztiak gonbidatuta daude hitzaldietan parte hartu eta solasean jardutera.

Entseguak aurrera doaz

Inauterietan Oinarineko dantzariekin batera polkak dantzatu nahi dituzten herritarrek martitzenero izango dute entsegua, 20:30ean hasita, Torresoroan. Bi aste daramate entseatzen, herriko kaleetan euren lanaren emaitza herritar guztiei erakusteko asmoz.

Aurten, esan bezala, polkak dantzatuko dituzte, eta Oinarin dantza taldeak herritar guztiak animatzen ditu entsegutan parte har dezaten.

LEINTZ-GATZAGA

Eragozpenik ezean, bihar onartuko du udalbatzak 2014ko aurrekontua

08:30ean hasiko da biharko (martitzena) osoko bilkura; bestelako gaiak ere landuko dira

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Proposamena landuta, bihar aurkeztuko diote udalbatzari Leintz Gatzagarako 2014ko aurrekontua eta, eragozpenik ezean, bihar bertan emango diote onespena.

Horrez gain, baina, legeak eskatzen dituen bestelako tramite kontu batzuk ere landuko dituzte eta baita aparteko gai batzuk ere. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Abokatuen Elkargoaren eta Leintz Gatzagako Udalaren artean hitzarmena sinatzeko proposamena aztergai izango dute zinegotziek, adibidez. Hitzarmen horrekin, arreta prozesala bideratu nahi dute etxebizitza galera arriskua gertatzen den kasuetarako.

Bake epailea eta mozioa

Bake epailea izendatzeko puntua ere izango dute mahai gainean: gaur bukatzen da kargu horretara aurkezteko izen-emate epea eta, izenak eskuetan, bihar izendatuko dute datozen lau urteotarako bake epailea.

Eta bestelakoen artean, mozioa ere izango dute aztergai. Kasu horretan, otsailaren 5ean Puerto I (Cadiz) kartzelan hilda azaldu zen Arkaitz Bellon 36 urteko gazte elorriarraren gainekoa da. Espetxe politika gaitzetsi, sakabanaketaren amaiera aldarrikatu eta Bellonen senitartekoei doluminak adierazteko mozioa da udalbatzak landuko duena.

Goiena Klubeko gaztetxoen hilabetea!

Goiena Klubeko etxeko gaztetxoek otsailean irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Patinetea

Arrasateko Loramendi Kirolak-ek emandako kaleko patinetea.

INTERSPORT LORAMENDI

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Patinetea eta jokoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp: KLUBA [Patinetea eta jokoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

MENDI LASTERKETA

Elurretan barik lokatzetan aurten, Ekaitz Kortazar izan da azkarrena Antzuolan

- 241 korrikalarik parte hartu dute 8 Miliak proban
- Leire Fernandez izan da lehenengo emakumea

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketaren bigarren edizioa ospatu zen atzo eta berriz ere oso arrakastatsua izan zen. Guztira, 241 korrrikalari atera ziren azkenean, irteera puntutik, eta 5 erretiratu izan ziren soilik, beraz, oso pozik eta gustura agertu ziren antolakuntzako kideak. Gainera, eguraldiak asko lagundu zuen eta korrikalariek bidelagun izan zituzten ikusleak.

10:30ean puntuan atera ziren korrikalariak plazatik, ibilbideak dituen 14 kilometro aldapatsu eta gogorrei aurre egitera. Aurtengoan, ez zegoen elurrik, baina bai lokatza. Hala ere, parte-hartzaileen esanetan, "ibilbidea oso polita da, aldapa gogorrak ditu, baina ingurua ikusgarria da".

Ibilbide osoan zehar zaleak animoak ematen aritu ziren, bai Boton, Irimoko puntuan, Mintegiko aldapan... ibilbideko txoko guztiak zeuden jendez lepo eta zer esanik ez helmuga puntuan; jende andana bildu zen atzo herrian, korrikalariei indarra emateko.

Sailkapenari dagokionez, lehena Ekaitz Kortazar bizkaitarra izan zen (1:04:41). Iaz Iker Oliverik markatutako denbora hobetu zuen, gainera. Bigarrena, iaz bezala, Abdel Rahim tolosarra izan zen; eta hirugarrena, Oliveri bera. Emakumeei dagokionez, lehena helmugaratzen Errenteriako Leire Fernandez gaztea izan zen (1:18:29). 16 urte ditu eta gogor dabil; etorkizunean jarraitu beharreko neska izango dela dirudi. Bigarrena Nere Arregi izan zen; eta hirugarrena, Ana Reina.

Debagoieneko lehena helmugaratzen Iñigo Alzola arrasatearra izan zen (1:09:40); sailkapen nagusian seigarren postua lortu zuen, gainera. Herriko onenak Ion Iturbe (1:11:06) eta Idoia Aranguren izan ziren.

Beterano mailan ere hainbat korrikalari izan ziren; lehen bi onenak Xabier Azpirotz eta Izar Urteaga antzuolarra izan ziren. Beraz, herriko korrikalariek, aurten ere, lan bikaina egin dutela esan daiteke.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Emakumezko zein gizonezko azkarrenak batera, sariak jaso ondoren. | ANE ETXEBERRIA

Basalde auzotik korrikalariak pasatzean. | JOSETXO ARANTZABAL

Korrikalariak Irimora heltzen. | HODEI LETE

ION ITURBE
LEHENENGO ANTZUOLARRA

"Aurtengoa komodoa izan da, baina iazkoak ere bere xarma zuen elurrarekin; eguraldi ona egiten duen bitartean, zaila izango da iazkoa errepikatzea. Nire burua oso ondo ikusi dut eta gustura ibili naiz ibilbide osoan zehar".

IÑIGO ALZOLA
LEHEN DEBAGOIENDARRA

"Oso gustura ibili naiz. Asko sufritu dut, baina ondo. Iaz ere hemen izan nintzen eta ibilbidea oso polita dela iruditzen zait. Iaz elurra egon zen eta ni aurten hobeto aritu naiz; urte bakoitzak bere gauzatxoak ditu".



LIDE AZKUE
ZARAUTZ

"Egiten dudan lehen mendi lasterketa da eta, egia esan, gogorra egin zait, baina asko disfrutatu dut: ingurua oso polita, jende asko animatzen... ikusgarria iruditu zait. Lokatza ere bazen, eta horrek zaildu egiten du gauza".

ANDER BEREZIARTUA
ARRASATE

"Oso ondo, ibilbidea oso polita izan da, eguraldiak ere asko lagundu du eta ondo ibili gara, gustura. Aldapa majoak daude eta apur bat nekatuta, baina ondo ikusi dut nire burua. Lehen aldia izan da eta gustura ibili naiz ".

UNAI ALONSO
LASARTE

"Mendi lasterketara etortzen naizen lehen aldia da. Iaz BTTko martxak egiten aritu nintzen inguru honetan eta oso polita da. Puntualki oso goggorra da, baina eguraldiak asko lagundu du, pixkana hasi gara eta ondo".

24 | FUTBOLA | UDAk 2-1 irabazi du Bergararen kontrako derbia etxean

SAILKAPENA

LEHENENGO 10AK

1. Ekaitz Kortazar
2. Abdel Rahim
3. Iker Oliveri
4. Juanjo Igarzabal
5. Mikel Beunza
6. Iñigo Alzola
7. Iraitz Arruabarrena
8. Xabier Zarranz
9. Alberto Mella
10. Ion Iturbe

LEHENENGO HIRU EMAKUMEZKOAK

1. Leire Fernandez
2. Nere Arregi
3. Ana Reina

HERRIKO ONENAK

1. Ion Iturbe
2. Idoia Aranguren

BETERANOAK

1. Xabier Azpirotz
2. Izar Urteaga

Ion Iturbe, antzuolar azkarrena, helmugan sartzeko unean. | A.E

LEIRE FERNANDEZ
EMAKUME AZKARRENA

"Mendia oso gustuko dut eta korrika egiten disfrutatu egiten dut"

ANE ETXEBERRIA

Leire Fernandez errenteriar gaztea izan zen emakumezkoetan azkarrena. Oso pozik azaldu zen lasterketaren amaieran.

Zer moduz lasterketan?
Oso ondo, oso gustura ibili naiz ibilbide osoan, asko disfrutatu dut hasieratik bukaeraraino.

Ibilbidea polita?
Polita da ibilibidea. Gogorra egiten zait aldapan gora korrika egitea eta ibiltzen askoz gusturago joan naiz. Lasterketa oso konpletoa dela iruditu zait. Probatzeko oso lasterketa ona izan da, egia esan.

Lehen emakumea helmugara heltzen eta, gainera, gazteena.
Bai, baina beno, ni oso gustura ibili naiz eta heltzen den guztiari helduko diot.

Zure hurrengo erronka zein izango da?
Txakurrekin proba desberdinetan parte hartuko dut eta baita Alto de Siriko proban ere. Mendi lasterketa da hori ere eta, gonbidatu gaituztenez, bertan izango naiz lehiatzen. Gainera, oso polita da lasterketa hori, elurra ere egongo da eta disfrutatzera joango naiz bertara.

16 urte, gaztea zara.
Txikitatik asko gustatu izan zait mendian ibiltzea eta poliki-poliki korrika egiten hasi nintzen. Asko disfrutatzen dut.

EKAITZ KORTAZAR
GIZONEZKO AZKARRENA

"Beldurrez nentorren, baina asko gustatu zait, dibertigarria"

A.E

Ekaitz Kortazar durangarra izan zen lehena. Korrikalaria sasoitsu dago eta berarentzat izan zen txapela.

Zer moduz?
Gogor antzean joan da. Aurtengo lehen mendi lasterketa izan da. Hainbat korrikalari ibili gara aurreneko postuen bila eta pozik nago; gogorra izan da, baina oso ondo joan da eta gustura geratu naiz.

Zure burua ondo ikusi duzu?
Bai, igoeran, erdi ingurura arte, hiruzpalau korrikalari nahiko batera joan gara. Indartsu ikusi dut nire burua eta erritmoa aldatu dut, aurreratu egin naiz segundu batzuk ateraz eta distantzia hori mantentuz lehena iritsi naiz.

Zer iruditu zaizu lasterketa herrikoi hau?
Zalantza batzuekin etorri naiz: nolako lasterketa izango zen, gogorra izango ote zen, eta bat eta beste; Interneten informazio bila ibili naiz, eta beldur apur batekin etorri naiz. Baina dibertigarria izan da: lasterketa polita da, eguraldiak lagundu du, lokatz apur bat ere bazegoen....

Datorren urtean berriz?
Datorren urtea oraindik urrun ikusten dut, baina bai, mendi lasterketetan parte hartuko dut; hortaz, printzipioz, datorren urtean ere hemen izango naiz. Gustatuko litzaidake behintzat, errepikatzea.

VICTOR CUÑADO
PASAIA

"Tabako pakete erdi egunero erretzen dut eta ez naiz ondo ibili; utzi egin beharko dut, bestela... Baina gaurkoa ez da horren gaizki joan, lasterketa amaitu dut eta oso polita iruditu zait, errepikatzeko modukoa, egia esan".

JABIER IRURETAGOIENA
ORDIZIA

"Oso polita izan da eta giro ederra egon da, baina gogorra egin zait. Justu samar ikusi dut nire burua, hutsik heldu naiz helmugara, ahal nuen guztia emanda heldu naiz. Orain zerbait hartu eta bazkaltzera joango naiz lagunekin".

AINARA MURUA
AZKOITIA

"Gustura ibili naiz, gogorra izan da, goraka denbora asko, baina parajea oso polita da eta disfrutatu egin dut. Nire burua sufritzen ikusi dut, batez ere, goraka. Iaz ere parte hartu nuen eta nire denbora hobetu dut ".

RAFAEL ROMERO
ARRASATE

"Lasterketa oso polita izan da, lehen aldia da egiten dudala eta oso ondo joan da. Pixka bat gogorra izan da, baina oso ondo ikusi dut nire burua. Mendi lasterketak egiten ditut, baita maratoiak ere".

EGOITZ ARREGI
BERGARA

"Lehenengo aldia da halako proba baten parte hartzen dudala eta ondo joan da. %50ean nagoela kontuan hartuta, nahiko ondo ikusi dut nire burua. Beherantz ondo joaten da, baina goruntz... Aldapa dezente daude ibilbidean ".

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletarrek aukera gehiago sortu zituzten atzo

Bergarak egin zuen lehen gola, baina UDAk buelta eman zion emaitzari

EMAITZA

ARETXABALETA
2-1
BERGARA

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Castellano, Gartzia, Amutxastegi, Arroitajauregi (Orueta, 19. min.) (Meabe, 87. min.), Etxabe, Igartua, Badillo, Zaitegi, Lopez (Arizmendiarrieta, 65. min.), Sanchez (Murgoitio, 84. min.) eta Perez (Rodriguez, 55. min.).

Bergara: Soto, Crespo, Arruti (Elorriaga, 84. min.), Nafarrate, Urrutia, Beitia, Ilzarbe, Oregi (Aranburu, 48. min.), Ibarluzea, Baltzategi (Macho, 66. min.), Alonso (Henandez, 61. min).

UDAko Julen Zaitegik egin zuen Aretxabaletakoen bigarren gola. | JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO | ARETXABALETA

Atzoko derbian Aretxabaletako taldeak sortu zituen aukera gehien Ibarran, eta azkenean gol gehiago egin zituen, baina partidua ez zen horrela hasi.

Lehenengo minututik hasi ziren aretxabaletarrak Bergarako taldearen atera gerturatzen, baina ez zuten jaurtiketetan asmatzen. Gainera, hasi berriak zirela, min hartu zuen Aitor Arroitajauregik. Eskumako bekainean egin zuen zauria, eta ospitalera eraman behar izan zuten. 45. minutuan gertu izan zuen gola UDAk, eta benetako zorte txarra izan zen Iker Sanchezen hutsegitea. Bergararrek ere sortu zituzten aukerak, eta epaileak atsedena adierazi aurretik egin zuten gola. Falta atera eta gola egin zuen Aitor Oregik.

Bigarren zatian bi gol

Bigarren zatian irauli zuen markagailua UDAk. Gol polita egin zuen Urtzi Lopezek 58. minutuan, eta partiduko anekdota eragin zuten kintoek bengala bat pizterakoan. Julen Zaitegik egin zuen etxekoen bigarren gola 80. minutuan. Bergarak ere sortu zituen aukerak (Ibarluzeak 72. minutuan), baina zorte barik.

JOKIN BADILLO
UDA-KO JOKALARIA

"Dinamika onean sartuta gaude; gauzak ondo ateratzen ari zaizkigu"

L.Z.

Pozik zen Aretxabaletako jokalaria amaieran.

Emaitza justua da?

Bergararrak ere ondo ibili dira, baina dinamika onean sartuta gaude, eta gauzak ondo ateratzen zaizkigu. Uste dut merezitako emaitza dela.

Ze giro zenuten aldagelan atsedenean?

Apur bat adoregabetuta geunden. Bergararren gola oso une txarrean etorri da, baina hitz egin dugu dena ematera irten behar genuela eta hori egin dugu.

Zortea edo egindako lanaren emaitza da gaurkoa?

Bietatik apur bat. Lan asko ari gara egiten, eta oraintxe ondo doakigu.

Gora zoazte. Hemendik aurrera, ze asmorekin zaudete?

Partiduz partidu jarraituko dugu, eta ikusiko dugu noraino heltzeko gauza garen.

IKER ARANBURU | BERGARAKO JOKALARIA

"Guk ere sortu ditugu gola egiteko aukera onak, baina ez dugu asmatu"

L.Z.

Triste baina aurrera egiteko asmoz daude Bergaran.

Nola ikusi duzu partidua?

Parekatua izan da lehen zatia. UDA ondo hasi da eta pare bat aukera sortu ditu, baina azken jokaldian argi ibili gara eta azkar atera dugu baloi bat. Gola izan da. Atsedenetik bueltan gehiago estutu dute. Guk ere izan ditugu aukera onak, baina ez dugu asmatu eta eurek gola egin dute izan dituzten bi aukeretan.

Garaipena zen gaur helburua?

Bai. Sailkapenean Aretxabaletako taldearen parean jarri nahi genuen, eta aukera polita zen. Ez da posible izan. Hurrengoan beharko du!

Hemendik aurrera zer?

Garaipenak lortzen saiatuko gara ahalik eta goren amaitzeko.

ERREGIONAL PREFERENTEA
IMANOL SORIANO

Zapore gazia utzi du berdinketak

Urola hartu zuen etxean Mondrak zapatuan (2-2). Arrasatearrek hautsi zuten markagailua eta 1-0 emaitzarekin joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatia hasi bezain laster, Urolaren aldeko penaltia eta gola etorri ziren, ordea. Etxekoek ez zuten behera egin eta bigarrena egitea lortu zuten. 95. minutuan, baina, Urolaren aldeko bigarren penaltia adierazi zuen epaileak. Kanpotarrek gola egin eta partidua amaitu zen.

OHOREZKO ERREGIONALA

Antzuolak galdu egin zuen Aurreraren etxean (3-0)

Antzuolak errepaso ederra hartu zuen Aurreraren etxean. Garairen mutilak ez ziren fin ibili zapatuan jokatu zuten norgehiagokan. Arerioa nagusi izan zen, batez ere, lehen zatian. Hiru golak lehenengo 45 minutuetan egin zituen aurkariak, hain zuzen. Bigarren zatian indarrak parekatuago izan ziren. Antzuolak izan zituen gola egiteko aukera bat edo beste partidu guztian zehar, baina, ezin. Egia esan, baja dezente izan zituen Garaik hamaikakoan: hiru jokalarik ezin jokatu, bost txartel gorri jasoak zituztelako; lesionatuak; eta kanpoan direnak.

OHOREZKO ERREGIONALA
JOSETXO ARANTZABAL

Estu, baina garaipena etxean

Aloña Mendik Ostadar hartu zuen etxean atzo, domeka. Lehia estua izan zen bi taldeen artekoa. Biak ere hobeto ibili ziren defentsan erasoan baino. Horrenbestez, ez zituzten gola sartzeko aukera asko izan. Baina oñatiarrek garaipena lortu zuten norgehiagokaren azken minutuan, Asier Ugartek sartutako golari esker. Beraz, gorritxoak pozik, etxean lortutako hiru puntuez.

ESKUBALOIA

Bi baja garrantzitsu izan arren, Ford Mugarrik aurre egin dio Urdanetari

Berdinketarekin amaitu zen lehen zatia; bigarrenean egon zen partidua

EMAITZA

FORD MUGARRI
27-23
URDANETA

Nestor Calleja, Urdanetako atezainaren aurrean, jaurtiketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Partidu gogorra izan zuen atzo eguerdian Ford Mugarrik Iturripen. Loiuko Urdaneta talde sendoa da, eta amaierara arte borrokatu zuen partidua.

Berdindua izan zen lehenengo zatia. Arrasatearrak aurreratu ziren lehenengo markagailuan, baina txikia izan zen egindako tartea —bi gol—, eta bizkaitarrek eusten jakin zuten. Berdinketa egon zen 8, 9, 10 eta 12 tantora. Azkenean, 13na amaitu zuten lehenengo zatia. Hasierako 30 minutu horietan indartsuagoa izan zen Loiuko taldea.

Bigarren zatia

Atsedenaren ostean loraldia izan zuten Pablo Gartziaren mutilek. Urdanetaren kolpeak eusteko ez ezik, markagailuan aurreratzeko gauza ere izan zen, eta lehenengo bost minutuetan aldeko lau goleko tartea egin zuten (17-13). Aldea sei puntukoa izatera ere iritsi zen (23-17, 17. minutuan).

Urdanetak erreakzionatzen jakin zuen, eta apurka apurka alde hori txikitzen joan zen. Ez zuen, ordea, guztiz lortu. Partidu amaieran, Arrasateko taldearena zen garaipena.

Atzoko partiduan Andoni Bernalek eta Nestor Callejak 7na gol egin zituzten, Pello Olabarriak 5, Kepa Grucetak 3, Kepa Isasmendik eta Iker Zubiaurrek 2na, eta Unai Rodriguezek 1.

PABLO GARTZIA
ENTRENATZAILEA

"Gaurkoan ere lan handia egin behar izan dugu partidua irabazteko"

L.Z.

Gustura zegoen taldeko entrenatzailea partidu amaieran.

Zelan ikusi duzu norgehiagoka?

Txapelketa honetan talde oso indartsuak daude, eta gaurkoan ere lan handia egin behar izan dugu irabazteko. Aldaketak egiteko jende gutxi genuen, taldean garrantzitsuak diren bi jokalari falta genituen-eta. Markagailuak ez du kantxan egindako lana islatzen.

Ondo ikusi duzu taldea?

Defentsan ondo aritu garela uste dut. Erasoan ere nahiko ondo, nahiz eta gatz pixka bat falta zaigun oraindik.

Aurrerantzean zer?

Mailari eusteko nahikoa puntu lortu ditugu, eta gelditzen diren zazpi norgehiagokak ilusio berdinarekin jokatuko ditugu. Sailkapenean ahalik eta goren gelditzea eta jokalari gazteei minutuak ematea izango dira lehentasunak.

SASKIBALOIA

Hasierako akatsak konpondu ostean irabazi zuen MUk

Barberoren puntuak oso garrantzitsuak izan ziren garaipen berri bat lortzeko

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

19 puntuko aldearekin (73-54) irabazi zuten norgehiagoka arrasatearrek, baina, hasieran, ez ziren fin ibili. Azpeitiarrak sailkapenean zazpigarren postuan egon arren, beti izan dira aurkari gogorrak, eta zapatuan ere hala izan ziren.

Lehenengo minututik defentsan oso agresibo ibili ziren kanpokoak, eta etxekoei partiduan sartzea ohikoa dena baino gehiago kostatu zitzaien. Norgehiagokako lehenengo zazpi minutuak ahaztekoak izan ziren (5-14), baina Barberok defentsan egindako txapelak taldea iratzarri zuen. Hurrengo hiru minutuetan, atzean estutuz eta erasoan hobeto jokatuz, puntu bakarrera jarri ziren (14-15).

Bigarren laurdenaren hasiera oso bestelakoa izan zen, Alex Lorenzoren eta Kintanaren saskiratzeei esker, 15-4ko partziala egin zuten bost minututan. Hamar puntuko aldea lortu zuten Larreategiren mutilek eta, epaileen erabaki eztabaidatuen gainetik, burua hotz mantentzea lortu zuten. Aldageletarako bidea 36-28 emaitzarekin egin zuten.

Imanol Ceciaga erasoan. | IMANOL SORANO

Partidua erabakitzeko aukera

Barbero izan zen bigarren zatiaren hasierako protagonista. Zarata handirik atera gabe, zortzi puntu jarraian egin zituen. Orduan partidua erabakitzeko aukera izan zuten etxekoek, baina bi minutu txar izan ostean Larreategik hutsartea eskatu behar izan zuen. Laurden gora-beheratsua izan zen, hala ere, azken erasoetan Gorka Arejolaleibak sartu zituen bi hirukoei esker; errenta politarekin amaitu zuten hirugarren laurdena (54-41).

Azken hamar minutuetan, azpeitiarrak hiruko jaurtiketekin aldea murrizten saiatu ziren, baina ezin izan zuten gauza handirik egin. Partidu serioa jokatu zuten etxekoek, eta 73-54ko emaitzarekin amaitu zen neurketa.

SASKIBALOIA

Natra Aloñak garaipen garrantzitsua lortu du Oreka taldearen aurka; 88-80 irabazi zuen zapatuan

Zuhaitz Gonzalezen mutilek 88-80 irabazi zuten zapatu arratsaldean Gasteizko Oreka taldearen aurka etxean jokatutako norgehiagoka. Garaipen garrantzitsua izan zen eta oñatiarrei ondo baino hobeto etorriko zaizkie eskuratuko puntuak. Arerio guztiak dira gogorrak, baina datorren astekoa ez da nolanahikoa: sailkapenean aurretik doan Urdaneta izango dute aurrez aurre.

SASKIBALOIA

Eskoriatzako neskek 68-32 galdu zuten barikuan Bera Bera taldearen aurka, mailako indartsuena

Entrenatzailearen esanetan, partidu oso txarra egin zuen Eskoriatzako taldeak. "Bagenekien mailako talderik indartsuena zela", esan du Rasok. "Lehenengo laurdenean eutsi genien, baina bigarrenean 17 puntuko partziala egin ziguten". Eskoriatzakoak azkarregi ibili ziren, eta hutsegite asko izan zituzten. "Onak dira eta guk gauzak erraztu egin genizkien", esan du Rasok.

ESKUBALOIA

Oñatiko nesken talde nagusiak 15-25 irabazi dio aste bukaeran Zumaiako Pulpo taldeari

Oñatiko eskubaloi saileko neska seniorrek 15-25 irabazi diote aste bukaeran Zumaiako Asador Basusta Pulpo taldeari. Etxetik kanpo jokatu zuen talde oñatiarrak zapatu arratsaldean, eta garaipenarekin itzultzea ez zen emaitza makala izan, nahiz eta zumaiarrek denboraldian zehar Elortzaren neskek baino maila kaskarragoa eman orokorrean.

ESKUBALOIA

Partidu gogorra jokatu ostean bi puntugatik galdu du Bergarako Soraluce BKE taldeak Urdulizen aurka

Josetxo Muniategiren mutilek 23-25 galdu zuten zapatu iluntzean Labegaraietan. Fisikoki partidu oso gogorra izan zen, baina etxekoek lortu zuten Urduliz taldeko jokalarien erritmoari eustea. Zoritxarrez, azken minutuetan egindako akatsak erabakigarriak izan ziren, markagailua, azkenean, bizkaitarren alde jartzeko. Amaieran galdu zuten norgehiagoka Bergarakoek.

TXIRRINDULARITZA

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak denboraldi berrirako taldea aurkeztu zuen zapatu goizean

- Guztira 33 txirrindulari, benjamin, alebin, infantil, kadete eta gazte mailetan lehiatzeko
- Pedro Irurzuni, urte askoan presidente izandakoari, eskerroneko aitortza ere egin zioten ekitaldian

IRATI GOITIA | OÑATI

Denboraldi berrian bizikleta gainean arituko den taldea aurkeztu zuen, zapatuan, Aloña Mendiko txirrindularitza sailak, Etxe-Aundi jatetxearen aurrealdean.

33 txirrindulari

Maila guztietan lehiatuko diren mutilak aurkeztu zituzten ekitaldian. Denak ere mutilak, ez da neskarik taldean. Benjaminetan bost, alebinetan zazpi, infantiletan zortzi, kadeteetan bederatzi eta gazte mailan lau arituko dira. "Nahiko talde politak ditugu. Kadeteetan, iaz bost izan genituen eta aurten bederatzi. Alebin eta infantiletan ere talde majoak. Hori ona da hurrengo urteei begira", adierazi zuen Kepa Umerez presidenteak. Bestalde, afiziona-tu mailan lehiatuko diren hiru oñatiarrak ere aurkeztu zituzten: Iñaki Mugarza, Aitor Umerez eta Mikel Fernandez. Lehen biak Gipuzkoa taldean arituko dira. Fernandezek berriz, ez du talderik lortu eta Aloña Mendiren babesarekin lehiatuko da. Hirukoaren talde argazkira gehitu zen ekitaldian zen Gipuzkoa taldeko kirol zuzendari Jon Odriozola.

Predo Irurzuni, oroigarria

Ekitaldia urtetan Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren presidente izan den Pedro Irurzuni eskerroneko aitortza egiteko ere aprobetxatu zuten. Izan ere, urte askoan presidente izan ostean, aurten utzi du kargua. Urtetan eginiko lana eskertu nahi izan zioten. Hala, oroigarri bat eman zioten batzordeko kideek.



Aloña Mendiko txirrindularitza saileko talde argazkia, zapatuan, Oñatiko Etxe-Aundi jatetxearen aurrealdean . | IMANOL SORIANO

PEDRO IRURZUN
PRESIDENTE OHIA

"Lasterketa bat baino gehiago irabaziko dugu"

I.G.

Gaurkoan sorpresa ere izan duzu...
Bai, ez diot antzik eman. Eskertzekoa da. Urte asko dira eta hunkitu ere egin naiz pixka bat.

Kargua utzi duzu, baina beste behin hemen zara...
Bai, 27 urte eramango ditut jada txirrindulari sailean, eta Aloña Mendin 41 (futbolean, zikloturismoan eta azken urteak txirrindularitzan).

Bizipen asko...
Denetarik bizi izan dugu, bai. Lehen ez genituen gaurko erraztasunak izaten eta taldeak txikiagoak ziren. Poliki-poliki medio gehiago lortzen joan gara eta gauzak aldatu egin dira. Hala ere, beti izaten dira gauzak egiteko. Presidente izateari utzi diot, baina zuzendaritzan jarraituko dut. Ahal dudanean laguntzen jarraituko dut, izan ere, gustura egiten dut.

Nola dator denboraldia?
Lasterketa bat baino gehiago irabaziko dugu.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Aurrera-**Antzuola**	3-0
Aretxabaleta-Bergara	2-1
Aloña Mendi-Ostadar	1-0

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Anaitasuna	44	22
2	Berio	43	21
3	Tolosa	41	21
4	Aurrera	37	21
5	**Aloña Mendi**	34	22
6	**Aretxabaleta**	33	22
7	**Antzuola**	31	22
8	Ostadar	30	22
9	**Bergara**	28	22
10	Real Union	28	21
11	Hernani	27	21
12	Vasconia	26	22
13	Hondarribia	25	21
14	Beti Gazte	25	22
15	Touring	21	22
16	Getariako Keta	20	22
17	Zarautz	18	22
18	Lagun Onak	11	22

HURRENGO JARDUNALDIA

Ostadar-Aurrera
Antzuola-Vasconia
Getariako Keta-Berio
Lagun Onak-Beti Gazte
Anaitasuna-Real Union
Tolosa-**Aretxabaleta**
Bergara-Zarautz
Hondarribia-Touring
Hernani-**Aloña Mendi**

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Hernani-**Aretxabaleta** 1-0

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Urola 2-2

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Arizmendi-Allerru 4-1

EMAKUMEAK, 2. MAILA

Lagunak-**Mondra** 2-0

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Bergara-Aloña Mendi 3-1

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Zarautz-**Aretxabaleta** 3-0
Bergara-Real Sociedad 2-1
Arrasate-Urola 0-1

EMAKUMEAK, GAZTEAK

Amaikak Bat-**Bergara** 9-1
Ordizia-**Aloña Mendi** 7-0

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Aloña Mendi-Arizmendi 0-0
Mondra-Ikasberri 3-0
Ilintxa-**Bergara** 2-1

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Ford Mugarri-Urdaneta 27-23

EUSKADIKOA, GIZONAK

Soraluce BKE-Urduliz 23-25

EUSKADIKOA, EMAKUMEAK

Asador Basusta-Aloña Mendi 15-25

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza Atsedena

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Bilkoin Legorreta-Aretxabaleta 5-3

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Azkoitia-Azpeitia ISB 73-54

AUTONOMIKOA

Natra Oñati-Oreka IT 88-80

GAZTEAK, ERRENDIMENTU

Kiko Enea OKE-MU -A- 60-33

GAZTEAK, PARTAIDETZA

Soraluce Bergara-Aloña Mendi 65-57

SENIOR EMAKUMEAK

Bera Bera Gros-Eskoriatza 68-32

GURE KIROLA
GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Amaia Bernal | Korrikalaria

"Herrian atletismo-pistarik ez izateak entrenameduan eragiten du"

- Kirolprobak herri lasterketen txapelketa irabazi du, 2013an lortutako emaitzei esker
- Atxintxiketan taldeko kidea, antolatzen dituzten lasterketen garrantzia azpimarratu du

ZURIÑE V.D.M. | OÑATI

Amaia Bernal (1984) oñatiarra da. Eskubaloian jokatu zuen zenbait urtez, eta gerora korrika egiten hasi zen. Herri lasterketetan parte hartzen du eta emaitza bikainak izaten ditu, gainera; horren erakusgarri da bigarrenez irabazi duela aurten Kirolprobak herri lasterketen txapelketa.

Kirolprobak herri lasterketen txapelketa irabazi berri duzu, eta ez da lehenengo aldia...

Iaz podiumean bigarren geratu nintzen eta baita seniorretako txapeldun ere, baina metagarria ez denez, bigarren saria eman zidaten. Aurten, ostera, lehenengo postuan geratu naiz senior mailan eta oso pozik nago. Kirolprobak-ek antolatzen dituen lasterketetatik hamabitan parte hartu behar da, gutxienez, eta horixe egin nuen. Emaitza ikusita, poz-pozik nago.

Korrika egiteagatik ezagutu arren, eskubaloian hasi zinen, ezta?

Hala da. Aloña Mendin lau urtez aritu nintzen; horietariko bi kadete mailan eta beste bi gazte mailan. Hala ere, 18 urte nituenean utzi nuen eskubaloia.

Orduan hasi zinen korrika?

Ez, askoz ere geroago hasi nintzen, duela zortzi urte, 2006an. Denbora tarte hartan, hala ere, ez nintzen geldi egon, eta, besteak beste, spinning ikastaroetara joaten nintzen. Nahiko bitxia da; izan ere, eskubaloian nenbilenean ez zitzaidan korrika egitea gustatzen. Alderdi hori erabat aldatu da denborarekin eta guztiz harrapatuta nauka!

Eta nola aldatu zenuen iritziz?

Ba, uda batean, familiarekin oporretara joan nintzen. Nire anaia eskubaloian zebilen, eta, entrenatu egin behar zuela eta, harekin korrika egitera joateko eskatu zidan. Hasieran, aitzakiak ipintzen nituen, baina, azkenean, uda hartan poliki-poliki korrika egitera irteten hasi nintzen eta astean hirutan joaten ginen. Eta oporretatik bueltan, utzi barik, jarraitu egin nuen. Urtebetez nire kontu aritu ostean entrenatzaile pertsonal bat hartu nuen eta, hain zuzen, ordutik hona harekin nabil.

Hitz egin dezagun, bada, entrenamenduez.

Lasterketen denboraldia iristen denean, astean bost egunean entrenatzen naiz; azken finean, atseden hartzea ere entrenamenduaren parte dela uste dut, gorputzak eskertu egiten duelako. Egia da kirola egitera ohituta zaudenean ez dela erraza izaten geldi egotea, ez duzu jakiten-eta ordu horiek zertarako erabili. Nire kasuan, esaterako, izan ditudan lesioei esker atseden hartzea faktore garrantzitsua dela ikasi dut. Bestalde, arratsaldeetan lanetik irteten naizenean entrenatzen naiz eta asteburuetan, ostera, goizetan. Eta Oñatiko kaleetan zehar aritzen naiz; tamalez, herrian ez daukagu atletismo-pistarik.

Amaia Bernal, entrenatzera joan aurretik prestatzen. | MIREIA BIKUÑA

"Hasieran ez nuen gustuko korrika egitea, eta orain harrapatuta nauka "

"Bartzelonako maratoia polita izan arren, oraingoz, ez dut errepikatuko!"

Horren falta igartzen duzue herriko atletek?

Bai, zalantza barik. Jende asko irteten da korrika egitera, eta entrenamenduaren kalitatean eragiten du horrelako pista bat ez edukitzeak. Inprobisatu egin behar izaten dugu irteten garen bakoitzean.

Zure kontu aritzetik lasterketetan aritzera urrats naturala egitea izan zela uste duzu?

Nik uste dut lasterketetan izena ematera animatzea norberaren lehiakortasun mailaren arabera badela. Horrelako txapelketek zure burua edo gorputza neurtzeko balio dute, noraino irits zaitezkeen jakiteko. Gainera, entrenamenduaren emaitza dela ere esango nuke, emaitza hobea lortu nahi badut gehiago entrenatuko naiz, edo ez... Dena dela, lehiaketetan parte hatzen duen jende askok ez dauka lehiatzeko gogorik, parte hartzera eta ongi pasatzera joaten da. Nik ere arrazoi horrexegatik egiten dut, baina lehiakorra ere banaizela ohartu naiz. Denborarekin konpetitiboago bilakatu naizela iruditzen zait. Hasieran, lasterketan aritzea zer den ikustera joaten zara, ez diozu zure buruari helburu zehatzik ipintzen.

Nola egiten diezu aurre lasterketei?

Beti izaten dut urduritasun puntu bat. Noski, hasierakoak eta oraingoak ez dira berdinak, inondik inora. Lehen, gehiago kostatzen zitzaidan kontrolatzea, horrenbeste pertsonarekin korrika egitean ez dakizu aldamenean duzun hori zein erritmotara doan, hari jarraitu gura diozu eta, azkenean, jota amaitzen duzu. Hori ere aldatu da denborarekin, nire burua eta gorputza hobeto ezagutzen ditut, eta, oro har, lasterketan parte hartzen ikasten duzu.

Herri lasterketetan aritzen zara, batez ere.

Orain arte, batez ere, herri lasterketetan lehiatu naiz, bai, eta iaz, esate baterako, lehenengo aldiz parte hartu nuen maratoi batean, Bartzelonan. Oso gustura geratu nintzen, baina oso-oso gogorra da, nahiz eta inguruko jendeak animatu egiten zaituen eta horrek indarrak ematen dizkizun. Esperientzia polita izan arren, uste dut oraingoz ez dudala berriro esperientzia errepikatuko!

Atxintxiketan taldeko kidea zara.

Bai, 2008a ezkero, oker ez banago. Talde polita daukagu, 30 lagun inguruk osatzen dugu eta horietako sei emakumeak, gainera.

Eta lasterketetan parte hartzeaz gain, antolatu ere egiten dituzue.

Halaxe da. Urtean lau antolatzen ditugu. Aurrenekoa Corpus bezperako lasterketa izaten da, ekainean; uztailean, ostera, Torreauzo krosa egingo dugu; Arrasate -Oñati urrian; eta azkenik, San Silvestre herri lasterketa antolatuko dugu abendurako.

Hainbat txinatar sukalderako tresnak egiten. | CLB

Itziar Bartolome: "Erostea ere ekintza politikoa da"

Gurasoek ardura handia dutela kontsumo ohituren transmisioan dio

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

"Erostea ere, ekintza politiko bat da eta ondorioak ditu gure inguruan zein munduko beste muturrean", dio Itziar Bartolome psikologo arrasatearrak. Eta horren adibide asko eman ditu *Guraso.com* webgunean egindako hausnarketan: "Sofako kuxinean *Made in China* jartzen du. Eskulan merkea aprobetxatuz ekoiztua izango da, seguruenik. Dena den, oihal sintetikoa egiteko erabili den petrolioa, agian, arabiarra da. Gauza bera egungo mendiko arropa gehientsuarekin". Eta zera azaldu du: "Herri "txiro" hauetan guztietan, herri bezala, zein herritar bezala dituzten eskubideak urratuz haien lurretatik "bota" egin dituzte, haien kultura, elikadura subiranotasun eta ekosistema (l)apurtuz eta esklabo bezala lan egitera gonbidatuz".

Guraso izateak heziketan "ardura handia" duela dio, kontsumo ohituren transmisioari oso lotuta dagoen ardura: "Gure txikien eredua gara, zer erosi, non erosi eta zergatik erosten dugun erakusten diegu. Animatu nahi dut jendea erosketa poltsa eskuan duenean sentitzera hori ere badela mundua aldatzeko erreminta bat". Eta gaineratu: "Urrutiko gauzak kontsumitzeko beharrik ez dago, beraz, egin dezagun kontsumo lokalaren alde, era berean, bertako lan egituraren alde egitea delako".

Erretzea kaltegarria dela jakin behar dute nerabeek

M.A. | ARRASATE

Erretzeak arazo benetan potoloak eragiten dizkie nerabeei –baita helduei ere–. Eta gurasoen ardura da bizitza osasungarriaren alde egitea. Erretzeak menpekotasun handia sortzen du, hortik ateratzea oso zaila den menpekotasuna; hori horrela, hor ez sartzeko ahalegina egin beharra dute gurasoek.

Komunikazioa ezinbestekoa

Prebentzioa ezinbestekoa da seme-alaba nerabeak ez dezan piztu lehen zigarroa. Horretarako oso garrantzitsua da seme-alabekin berba egitea, erretzeak gure gorputzean sortzen dituen kalteen berri izan dezaten. Eta komunikazio onak erabaki onak hartzea ahalbidetuko du.

Gurasoak, gainera, seme-alaben eredu dira, eta zentzuz jokatu behar dute. Erretzailea izanez gero, uztea komeni da, bestela ez dela hain kaltegarria pentsa dezake. Eta familian zero tolerantziaren aldeko erabakia hartuz gero askoz hobeto. Erretzeak dakartzan kalteen gainean sarri berba egitea ere onuragarria da, lehen zigarroa pizterakoan hori izan dezan buruan gazteak.

Nerabezaroan lagunen eragina handia da, baina gurasoak tinko mantenduz gero tabakoaren aurka, nerabe horrek asko murriztuko du haren kontsumoa. Era berean, erretzeak ez duela norberaren irudia hobetzen erakustea komeni da, tartean usain txarra sortzen duelako.

Hainbat nerabe erretzen. | PREMEDPRESS

Interneteko arriskuen gainean helduek eta gazteek duten iritzia erabat kontrakoa da

Arriskuen berri jakin arren, adingabekoek ez diete batere garrantzirik ematen

L.Z./M.A. | ARRASATE

Otsailaren 11n izan zen Internet Seguruaren Eguna, eta egun horretan argitaratu zuten gazteek sarean duten arriskuen gaineko txostena. EU Kids Online europar proiektuak egin du txosten hori, eta Euskal Herriko Unibertsitateko kideek ere hartu dute parte ikerketa horretan.

Ikerlariek adierazi dute Interneten topa daitezkeen arriskuen eta arazoen gainean gaztetxoek eta helduek duten iritzia guztiz ezberdina dela. Izan ere, esperientzia positibo eta negatiboen artean ez dute garbi bereizten adingabekoek; hala, ohikoa da nerabeen artean sexu kutsua duten argazkiak bilatzea sarean eta horiek lagunekin elkarbanatzea.

Arriskuak ezagutu bai

Europako bederatzi herrialdetako 9 eta 16 urte arteko 349 adingabekok hartu dute parte ikerketarako egindako elkarrizketetan, tartean Espainiako, Belgikako eta Erresuma Batukoek. Elkarrizketatu horiendako Interneten dauden arriskurik handienak ondorengoak dira: bullyinga eta sexu jazarpena; pribatutasunaren aurkako abusuak; gogoz kontrako edo sexu kutsuko kontaktua ezezagunekin; eta publizitatea. Kontu horiekin zerikusia duten arazoen ia erdia sare sozialetan gertatzen da, Facebooken esaterako. Horrek erakusten du adingabekoek sare sozialen balizko arriskuak ezagutu ezagutzen dituztela. Baina, era berean, ez du esan gura arriskuok ekiditeko ezer egiten dutenik. Arriskuen berri jakin arren, gaztetxo batzuk ez diete batere garrantzirik ematen. Hala, elkarrizketatu batek zera dio txostenean: "Argazkiak dauzkat nire Facebook profilean, edonork ikus ditzake. Ez dut ezer txarrik jartzen, beraz, ez naiz arduratzen".

> **Esperientzia positiboen eta negatiboen artean ez dute garbi bereizten adingabekoek**

Interneteko arriskuek gazteen garapenarekin zerikusia daukaten ia alderdi guztiei eragiten diete txostena egin duten ikerlarien esanetan: nortasunari eta sexualitateari; bikotekideen arteko eta lagunen arteko harremanei; eta moralari edo etikari dagokion garapenari.

'Orpoaren proba' bidez bost gaixotasun gehiago antzemango dituzte

Gutxik izaten dituzte horiek eta laster tratatuz gero umearen bizitza kalitatea asko hobetzen dute

L.Z./M.A. | ARRASATE

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale publiko eta pribatuetan egiten den *Orpoaren proba* bidez bost gaixotasun gehiago antzemango dituzte orain: sortzetiko hipotiroidismoa; fenilzetonuria; kate ertaineko deshidrogenasa; Azil CoA-aren eskasia; fribrosi kistikoa; eta zelula faltziformeen anemia.

Ume gutxik izaten dituzte horiek, baina jaiotza-gaixotasun larriak dira, eta laster tratatu ezean adimen-atzeratasuna sor dezakete lehenengo bien kasuan, eta bat-bateko heriotza hirugarrenean. Laugarrenari eta bosgarrenari dagokienez, garaiz antzemateak umearen bizitza kalitatea asko hobetzen du eta konplikazio larriak gutxitu. Hala, sendaezinak izan arren oraingoz, bizi kalitatea hobetzea da kontua.

Ziztada bat orpoan

Orpoaren proba umeak 48 ordu dituenean egiten da, ospitaleko alta hartu aurretik. Ziztada bat egin orpoan eta odol lagin bat hartzen zaio, ondoren aztertzeko. Probaren emaitza positiboa baldin bada, familiarekin harremanetan jarriko da medikua, argibideak emateko eta bigarren egiaztapen analisi bat zehazteko. Bigarren hori ere positiboa izango balitz, tratamendua berehala hasiko litzateke.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **guraso.com**

guraso.com

KULTURA

Erdaldun berriaren terapia

- Erdaldun berria izatearen sintomak eta zailtasunak agerian geratu ziren antzezlanean
- AEDk ekoitzitako bigarren lana da, eta aurki izango da Debagoieneko beste herrietan

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Euskararen erabileraz hausnartzeko aitzakiarekin, umore ukitu ederrak dituen antzezlana ekoitzi du AEDk. Olatz Pagaldaik aktore lanak egiten ditu, Idoia Etxeberriaren gidoia oinarri hartuta.

Oso gau polita izan zen: isiltasuna eta seriotasuna, tarte batzuetan; barre algara eta identifikazio uneak, bestetan. Ikusleak pozik zeuden, tarte askotan buruarekin baiezkoa adierazten; eta bien bitartean, Irantzu –antzerkiko protagonista– erdaldun berri batek beharrezkoa duen talde terapia egiten aritu zen.

Hala hasi zen antzezlana, Alkoholiko Anonimoetan bezala, "Kaixo. Ni Irantzu naiz eta erdaldun berria naiz" esanez. Talde terapia honetan, gainera, egunerokotasunean gertatzen diren kontutxoak izan ziren nagusi: Nori ez zaio inoiz gertatu medikura joan eta dituen sintomak gazteleraz ezin esplikatu ibili izana? Edota taberna batera joan eta, hanka sartzeak eginez zein hiztegiari ostikada ederrak emanez, zerbitzariari kafea edota kontua eskatzean momentu txarra pasatzea? Azken finean, euskaldun peto-petoa denak, euskaraz bizi, ikasi eta sentitzen duenak, testuinguru erdaldun batera joatean sentitzen dituen blokeo, hitz jario falta, urduritasun, motel eta motz sentitzea bezalako sintomen inguruan aritu zen, esanez, hori guztia sentitzen duena bere klubeko kidea dela, hau da, erdaldun berrien klubekoa.

Horretaz gain, euskaldunen artean, euskalkiak direla eta ez direla, izaten diren gaizki ulertzeak ere oholtza gainera ekarri zituen Olatz Pagaldai aktoreak. Baita, EGAko azterketa baten, bati baino gehiagori gertatutako une famatu bat ere. Hau da, atariko zein idatzizko proba pasa eta ahozkora iristean, estu eta larri, zer eta euskaraz hitz egiteko ezinean jardutea! Euskara batua artifizialtzat sentitu eta, tontolo baten pare, erderaz ez jakin eta euskarazko gaitasun agiria atera ezinik ibiltzea! Nori ez zaio hori gertatu noizbait? Antzezlana ikustera joandako askoren aurpegietan argi geratu zen euren kasua zela hori... Beraz, identifikaziorako uneak izan ziren, baita aldarrikapenerako ere, euskararen erabilera eta normalizazioa gure eskutan baitago.

Irantzu erdaldun berria, hausnarketa lanetan. | IMANOL SORIANO

'Buah txabal' antzezlanaren DVDak salgai izan ziren. | ANE ETXEBERRIA

'Buah txabal'-eko DVDak salgai

Buah txabal antzezlanaren DVDak izan ziren salgai egubakoitzeko saioaren aurretik. AEDk ekoitzitako lehen antzerkia izan da hori eta, Euskal Herriko hainbat txokotan aurkeztu eta gero, DVD formatuan bildu dute saioa. Interesa dutenek AEDko bulegoetan ere izango dute eskuratzerik, baita Ttukun dendan ere, 10 euroren truke. Aurki izango diren *Erdaldun berrien klubeko* hurrengo saioetan ere egongo dira salgai.

OLATZ PAGALDAI | AKTOREA

"Estreinatu dugu! Oso pozik nago, ederki joan da antzerkia, gustura geratu naiz"

Antzezlanaren ondoren, Olatz Pagaldai aktorearekin izan ginen, izandako sentipen eta emozioen berri izateko. Oso pozik zegoen egindako lanarekin eta ikusleen harrerarekin.

Listo, estreinatu duzue.

Bai, azkenean! Oso pozik nago, primeran pasa dut oholtza gainean; hasierako urduritasuna igarota, dena ondo joan da. Gauza batzuk alderantziz irten zaizkit, baina ondo atera da. Oso gustura nago. Gainera, jende asko etorri da eta giro polita egon da.

Oholtza gainean bakarrik egotea ez da erraza izango ezta?

Ez, baina ondo ikusi dut nire burua. Orain arte jende oso gutxiren aurrean egin ditut entseguak eta gaurkoak balio izan digu jakiteko zein puntura arte iristen den antzezlana jendearengana eta zer nolako grazia egiten duen, eta ikusi dugu jende asko identifikatuta sentitu dela. Hasieran isiluneak egon dira eta gero barre algara handiak, beraz, oso gustura nago, estreinaldi mundiala izan da.

ANE ETXEBERRIA

Emanaldi gehiago noiz?

Momentuz, beste hiru emanaldi ditugu hitzartuta. Eskoriatzan eta Aretxabaletan izango gara aurki, esate baterako. Ia zela ateratzen diren... Ikusiko dugu.

Keinu bidez, errespetuaz eta askatasunaz mintzo dira 'Kibubu'-n

Bi saio eskaini zituzten Marie de Jongh konpainiakoek, zapatuan, Oñatin

IRATI GOITIA | OÑATI

Marie de Jongh antzerki konpainiak *Kibubu* antzezlana eskaini zuen zapatuan Oñatiko Santa Ana aretoan. Bi saio egin zituen (16:30ean eta 18:00etan) eta bietan jende dezente batu zen, 100 lagunetik gora.

Bi pailazo eta gorila bat

Xebas eta Coco pailazoak dira protagonista. Ikuskizun berria prestatzen dabiltza, arrakasta lortu nahian. Hala, Xebasi hezur haragizko gorila bat erostea bururatzen zaio. Sinetsita dago gorila mendean hartu eta ikuskizun bikaina prestatzeko gai izango direla; eta bide batez, publikoaren txalo zaparrada lortuko dutela. Barreak behintzat eragin zituen. Pailazoen eta gorilaren arteko gora-beherek behin baino gehiagotan jarri zituzten Santa Ana aretora joandako ume zein helduak barrez.

Coco pailazoa eta gorila, 'Kibubu' antzezlaneko une batean. | IMANOL SORIANO

Keinu bidezko antzezlana

Hitzik gabeko antzezlana da *Kibubu*, keinu bidezkoa, baina aldi berean sakona. Hala, protagonistek ez dute hitzen beharrik errespetuaz edo askatasunaz hitz egiteko. Nahikoa dituzte keinuak eta musika.

Batetik, animaliekiko errespetuaz mintzo da antzezlana. Xebas protagonista, gorila mendean hartu nahian dabil, baina animaliak ez dio jaramon egin nahi. Ondorioz, pailazoak metodo ez oso zuzenak erabiltzen ditu. Cocok, bestalde, askoz metodo hobea erabiltzen du: musika. Mikel Laboaren *Txoriak txori* kanta jo eta gorila liluratzen du. Hor lantzen dute animalienganako errespetuaren gaia. Bestetik, askatasunaren gaia ere lantzen dute. Izan ere, animaliak libre izateko duen grinaz ere badihardu obrak. Hitzik gabe eta maisutasunez lortzen dute askatasunari erreferentzia egitea Laboaren kantuarekin. Modu fin eta ederrean lantzen ditu, hala, gai sakonak antzezlanak. Komunikaziorako hitzik behar ez dela ere argi gelditzen da.

Amaieran, izugarrizko txalo zaparrada lortu zuten hiru protagonistek. Beraz, hasieran, pailazoen amets zen arrakasta, errealitate bilakatu zen Santa Ana aretoan.

ENERITZ OSINAGA
IKUSLEA

"Antzezlanetik gehien gustatu zaidan zatia izan da neska gorilaz ondo konpontzen zenekoa. Barre ere egin dut. Asko gustatu zait saioa".

AMETS ELKOROIRIBE
IKUSLEA

"Gehien gustatu zaidana gorila izan da. Mozorroa oso ondo zegoen egina eta hezur haragizkoa zirudien. Barre asko egin dut berarekin".



IRAIDE LOITI
IKUSLEA

"Aitarekin etorri naiz antzezlana ikustera. Asko gustatu zait eta gustura egon naiz. Gorilaren gora-beherak gustatu zaizkit gehien".

NIKOLAS BEITIA ETA AITOR GOMEZ
IKUSLEA

"Gorila gustatu zaigu gehien. Baina aktoreak ere asko gustatu zaizkigu. Izan ere, hitz gabe ere, oso ondo transmititzen dute zer den egin nahi dutena".

HELENA ROSE RAINBIRD
IKUSLEA

"Asko gustatu zait, batez ere amaiera, gorilak maskara kendu duenean eta aktorea nor zen jakin dudanean. Barre dezente ere egin dut".

Banatu dituzte Amodiozko Gutunen Lehiaketako sariak

Hitz eta musika goxoek girotu zuten sari-ematea

I.G. | BERGARA

Egubakoitzean, San Valentin egunez, banatu zituzten Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketako sariak. Kultur etxeko ganbaran izan zen sari banaketa. Ekitaldi xume, baina goxoa izan zen. Irabazleek euren eskutitzak irakurri zituzten eta zuzeneko musika ere izan zen. Hain zuzen, Behi Bi Blues taldeak eman zion hasiera ekitaldiari. Euren doinuek ederki goxatu zuten giroa. Ondoren etorri ziren irabazleen hitz xamurreko eskutitzak.

Irabazleak

Amaia Artola belauntzarrak irabazi du aurtengo gutun onenaren saria. Bere eskutitzak hunkituta utzi zituen ganbarara joandako asko. Izan ere, alzheimerra duela jakinarazi dioten ama batek alabari idatzitako gutuna da Artolarena. "Ohiko amodiozko eskutitzetatik aldentzen da nirea eta ez nuen irabaztea espero", adierazi zuen amaieran.

Bigarren saria Barakaldoko Diego Leonentzat izan da. Ez zuen ekitaldian izaterik izan, baina bideo bidez entzun ahal izan zen bere lana. Hala, urruntasunean gertu sentitu zituzten entzuleek bere hitzak.

Bergarar onenaren saria Uxue Agirrerentzat izan da. Bere ahots leun eta goxoak adi izan zituen ganbarara joandakoak. "Sorpresa handia eta ona izan da saria jasotzea", esan zuen.

26 urtetik beherakoen artean, Ainhoa Ortega izan da onena epaimahai gaztearen iritziz. "Momentuan sentitzen nuena islatu nuen gutunean", adierazi zuen sari banaketa amaitu ostean.

Behi Bi Blues taldeko Unai eta Gaizka Azkarate . | IMANOL SORIANO

Ezkerretik eskuinera: Uxue Agirre, Amaia Artola eta Ainhoa Ortega sarituak. | I.S.

Debagoieneko ordezkaritzak lan polita egin du Andoaingo jaialdian

880 piano-jotzailek hartu dute parte bederatzigarrenez egindako festan

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Beste urtebetez, Andoain piano-jotzaileen topaleku bihurtu da asteburuan. Bastero Kulturgunean, sei eta hogei urte arteko 880 musikari elkartu dira, eta Euskal Herriko harrobia sasoi onean dagoela argi geratu da.

Debagoienetik ordezkaritza polita joan zen pianoaren hiriburu bihurtu zen Andoainera. Arrasateko, Oñatiko, Bergarako, Elgetako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako musika eskoletako 50 neska-mutikok hartu zuten parte jaialdian. Seiasle elkarteak antolatzen du jaialdia Andoaingo Udalarekin elkarlanean, eta bederatzigarren edizioa izan da aurtengoa; pozik amaitu dute asteburuak emandakoarekin.

Parte-hartzaileek bi modalitatetan interpretatu zituzten, besteak beste, Bach edo Haendelen piezak; bakarka eta lau eskutara. Jaialdiko momentu ikusgarrienak lau eskutara interpretaturiko piezatan izan ziren; izatez, zailtasun handiagoa dute pieza horiek eta, horregatik beharbada, emaitza ere bestelakoa izan ohi da.

Entseguak ondo eginda

Duela hiru bat aste, gure ordezkariek asteburuan eskaini duten saio berdintsua egin zuten Amaia Antzokian, beroketa bezala; eta badirudi merezi izan zuela, pozik amaitu baitute Andoaingo jaialdian egindakoarekin. Ez horrenbeste emaitzengatik, onak izan diren arren, baizik eta neska-mutikoei ikasitakoa plazaratzeko aukerak sortzen dien zirrara eta emozioagatik, batez ere.

Azken hilabeteetan buru belarri ibili dira jaialdia prestatzen eta egindako lanak merezi izan duela esan zuen Isabela Blezienek, Arrasate Musikaleko piano irakasleak; eta Andoaingo jaialdia lehiaketa izan arren, festa kutxua duela azpimarratu zuen.

Hamargarrena prestatzen

Datorren urtean hamargarren urteurrena beteko du Andoaingo piano jaialdiak eta, zapatu eta domekan bizitakoa ikusita, sasoitsu dagoela ziurtatuta geratu da.

Debagoieneko piano-jotzaileak, diploma eta dominekin. | ARRASATE MUSIKAL

Bastero aretoa, zapatuan. | ARRASATE MUSIKAL

DATUA

50

PIANO-JOTZAILE

Arrasateko, Oñatiko, Bergarako, Elgetako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako 50 neska-mutiko egon ziren.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
professional learning space
HOBETUZ
Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA LANGILEENTZAT ETA LANGABEENTZAT

IKASTAROA	IRAUPENA	DATA	EGUNAK	ORDUAK
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA DAUKATEN IKASTAROAK				
Tratamendu termikoak eta entsegu mekanikoak (UF1834)	40 ordu	Martxoaren 3tik 25era	Astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena	09:30-12:30
Pneumatika eta hidraulika (UF0459)	90 ordu	Martxoaren 3tik maiatzaren 26ra	Astelehena, eguaztena eta eguena	15:30-18:30
Tolerantziak plano mekanikoetan (dimentsionalak, gainazalekoak eta geometrikoak) (UF0453)	40 ordu	Martxoaren 10etik apirilaren 9ra	Astelehena eta eguaztena	14:30-18:30
Fagor 8050/55 CNC fresatzeko-makina programatzea: oinarrizko maila eta aurreratua (UF0879)	80 ordu	Martxoaren 24tik maiatzaren 12ra	Astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena	14:30-18:30
Linea automatizatuetan PLC programatzea (UF0626)	70 ordu	Apirilaren 2tik ekainaren 11ra	Astelehena, eguaztena eta eguena	09:00-12:00
Marrazketa teknikoa (UF0453)	40 ordu	Apirilaren 28tik maiatzaren 21era	Astelehena, eguaztena eta eguena	14:30-18:30
Autocad Mechanical eta Solidworks (UF0454)	90 ordu	Apirilaren 28tik ekainaren 20ra	Astelehena, eguaztena eta egubakoitza	14:30-18:30
Eskuzko makinen erabilera: fresatzeko makina, tornua, zulatzeko makina eta artezteko makina (UF0463)	70 ordu	Maiatzaren 14tik ekainaren 20ra	Astelehena, eguaztena eta egubakoitza	14:30-18:30
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIRIK EZ DAUKATEN IKASTAROAK				
.NET garatzeko ikastaro aurreratua	80 ordu	Martxoaren 4tik ekainaren 5era	Martitzena eta eguena	09:00-13:00

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.
Loramendi 4, 20500 ARRASATE

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA
Isabel Mangana
943 71 21 83
imangana@mondragon.edu

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDAD E INVESTIGACIÓN

Aintzane Crujeiras, zapatuan, 'Kapsulak' ikuskizuna egiten Amaia antzokian. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Kutxak oroitzapenak gordetzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Proposamen berritzailea da Markeliñe taldeak *Kapsulak* ikuskizunarekin egiten duena. Zapatu arratsaldean Arrasateko Amaia antzokian izan zen, eta kartoizko kutxa artean istorio politak kontatu zituen, narrazio eta abesti artean. Ikuskizuna baino gehiago kontzertu-ikuskizuna da Markeliñekoek egiten dutena. Aintzane Crujeiras abeslariak bere lagun *Txiki*ri gertatzen zaizkionak kontatu eta abesten ditu; esnatzen denetik iluntzera arte, *Txiki*k bizi dituen gorabeherak.

Kartoizko kutxetan edo kapsuletan gordetzen ditu *Txiki*k bizipen horiek guztiak. G letra daukate idatzita gustuko oroitzapenak edo bizipenak gordetzen dituzten kapsuletan. E letra, aldiz, ez gustukoak gordetzen dituztenetan. Crujeiras kapsula ezberdinak zabaltzen doa banaka banaka, eta ikusle gazteek ondo asko ezagutzen dituzten pasarteak ekartzen ditu gogora, kantuan.

Ze gogorra esnatzea! Ze goxoa gosaria! Ze astuna eskolara joan beharra izatea! Ze zoragarria jolas-orduko tartea! Ze zirrargarria maiteminduta egotea! Ze nekezak eskolaz kanpoko jarduerak!... Edozein umek egunerokoan bizitzen eta sentitzen dituzten esperientzien galeria eskaintzen dute Markeliñekoek *Kapsulak* lanean. Eta pasarte bakoitzak bere kantua du ikuskizunean. Rock eta folk doinuekin ematen diete forma bizipen horiei.

Harrera ona

Ikuskizunaren amaieran aurkezten dute *Txiki* Markeliñekoek. Kapsula ezberdin askorekin osaturiko panpinatxoa da, ikuskizun amaieran haur gehienek gertutik ikusi eta ukitu nahi duten pertsonaia.

Saio amaieran jaso ohi dute artistek publikoaren balorazioa, eta Arrasaten gauzak ondo joan zirela esan beharra dago. Umeek artistekin eta *Txiki*rekin egon nahi izan zuten, eta horretarako aukera zabala izan zuten.

FITXA

IKUSKIZUNA

'KAPSULAK' - MARKELIÑE

Estiloa: Familiarendako ikuskizuna.

Non: Arrasateko Amaia antzokian.

Eguna: Zapatua, hilak 15.

Iraupena: 50 minutu.

JON ZABALETA
BAXU-JOTZAILEA

"Herrian egiten diren ekimenak bultzatu eta babestu egin behar ditugu"

L.Z.

Arrasatearra da Zabaleta, eta *Kapsula* ikuskizunean dihardu Markeliñerekin.

Gustura, herrian egindako emanaldiarekin?

Niretako, Amaia antzokian eta herriko jendearendako jotzea aukera handia da. Pozik nago jaso dugun erantzunarekin.

Ezagun asko izan dituzu publiko artean?

Bai, eta esan nahiko nuke herrian egiten diren ekimenak bultzatu eta babestu egin behar ditugula. Guk bultzatzen ez baditugu ez du beste inork egingo.

Nondik dator *Kapsula*?

Ikuskizun honen mamia Samfaina de Colors konpainia kataluniarretik dator. Moldaketak egin ditugu euskarara, eta musikalki gure eremura eraman ditugu kantu batzuk. Ume askorendako lehenengo rock kontzertua izango da *Kapsula*.

Publiko erraza da?

Umea publiko zoragarria da. Argi adierazten du ikuskizuna gustatu zaion edo ez, eta barrutik irteten den erantzun horrek ez du preziorik.

Never Surrenderreko taldekideak gaztetxeko agertoki gainean. | IMANOL SORIANO

Never Surrender eta The Potes, kontzertuan Arrasaten

Eztanda eragin zuten gaztetxean zapatuan; batutako dirua OGAKO gastuei aurre egiteko erabiliko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

The Potes eta Never Surrender taldeek kontzertua eskaini zuten zapatu gauean Arrasateko gaztetxean.

Kontzertua 22:30erako iragarrita bazegoen ere, 23:00ak pasata ziren hasi zenerako. The Potes taldea izan zen lehena jotzen. Askotariko bertsioak jo zituen. The Pogues taldearen bertsioak izan ziren horietako batzuk –*Tuesday Morning*, *Love you till the end* eta *Dirty old town*, adibidez–, edo Rip taldearen *Condenado*. Ordu eta erdi inguruko emanaldia egin zuen taldeak, eta gaztetxeko ikusleak berotzea lortu zuen.

Eztanda eragin zuten

Ondoren, Never Surrenderrek eztanda eragin zuen. Laukote arrasatearrak indartsu ekin zion hasieratik eta zaletuak ere gogotsu ziren. Izan ere, Arrasaten urtebetean jo gabe egon da taldea. Beraz, gozatu ederra taldearendako eta jarraitzaileendako. *Bide zuzenetik oker* azken diskoko kantuak abesti zaharrekin tartekatu zituzten eta bertsioren bat edo beste ere eskaini zuten. Horietako bi, gainera, herriko bi talderenak: Iskanbila taldearen *Fusilak* eta Enboskadaren *Amaiur Gaztelu Beltza*. Jarraitzaile sutsu batek pare bat bertso ere abestu zituen agertokira igota, taldekideen erabateko onespenarekin.

Gaztetxearen alde

Herriko zein bailarako jendea erakarri zuen kontzertuak gaztetxera; lepo bete zen. AGAKOk dituen gastuei aurre egiteko bideratuko da emanaldiko sarrerekin eta tabernan lortutako dirua. AGAKOko bi kidek esker oneko hitzak izan zituzten bertara joan ziren guztientzako, eta, gaztetxera hurbiltzeko eta gaztetxearen alde lan egiteko deia egin zuten.

IMANOL SORIANO

Gore kutsuko satira politikoa

Beñat Iturriotz hernaniarra pozik geratu zen *Joxean's Hileben* filmak egubakoitzean Bergarako gaztetxean izandako harrerarekin. Soinu arazo batzuk izan arren, egileak dio publikoak oso ondo ulertu zituela lanak egiten dituen erreferentzia historikoak eta politikoak. Gore ukituak dituen eta genero ezberdin asko nahasten dituen akziozko pelikula da *Joxean's Hileben.* Zumalakarregi zonbia du protagonista.

GURE MUSIKA TALDEAK

RO

Ro taldeko Harriet eta Sasigain zuzenean. | GOIENA

"Kantu berrietan lanean gabiltza, eta uda inguruan hasiko ditugu kontzertuak"

- Ro talde gaztea izan arren, soinu indartsua lortu du maketan
- Bi oñatiarrek eta bergarar batek sortutako proiektu paralelo bezala jaio zen

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Asfiksia taldearen errautsetatik jaiotako proiektua dugu Ro. Hirukoteak bi urte eskas daramatzan arren, sei kantuz osaturiko maketa kaleratu zuten joan den urteko abenduan. Berri Txarrak taldearen lehenengo diskoen antzera, Seattleko grunge musikatik abiatuta, hainbat talderen eta estiloren eragina nabari da Roren lehenengo diskoan.

Noiz eta nola sortu zen Ro?

Orain dela bi urte inguru hasi zen Ro taldearen ernaltzea; ni [Harriet] gitarra eta Andoni Sasigain bateria jotzen hasi ginenean. Urtebete inguru eman genuen lokalean kantuak moldatzen eta bertsioak jotzen, eta 2013ko otsailean Lete sartu zen baxu-jole lanetan. Orduantxe jaio zen Ro.

Hala ere, Lete eta biok aspaldiko ezagunak zarete.

Bai, biok Asfiksia taldean jotzen genuen. Hasieran, proiektu paralelo bezala hasi genuen Ro, Asfiksia talde heavyagoa zen eta hainbat kanturen ideiak genituen. Hala ere, ez ziren Asfiksiaren unibertsokoak. Esperimentaziorako bide bezala hartu genuen proiektu berria. Kontua da hainbat arrazoirengatik Asfiksiaren heriotza gertu ikusten genuela; eta esku artean genituen ideiei irteera eman nahi genien. Pixkanaka, baina, bizitza propioa lortu zuen Rok.

Maketa duela gutxi kaleratu duzue; nolakoa izan zen grabazioa?

Mutrikuko AME estudiora joan ginen, Oñatiko hainbat taldek bertan grabatu dute eta Iban Idigoras ere hor zebilen; horrek zerikusia izan zuen. 2013ko Aste Santuan grabatu genuen diskoa, Malenkoniaren ostean.

Maketa dela esaten duzuen arren, diskoa ere izan zitekeen; ez da lokaleko grabazio bat izan.

1.000 euroko diru laguntza jaso genuen, eta hori aprobetxatzea erabaki genuen. Egia esan, gustura geratu gara grabazioaren emaitzarekin.

Sei kantu, eta hainbat talderen eta estiloren eragina dago bertan.

Esan bezala, Seattleko grunge mugimenduko Pearl Jam eta Nirvana taldeak gustuko ditugu; eta Euskal Herriko Berri Txarrak, Willis Drumond... Kantuetan oso pasarte ezberdinak daude; pasarte batek Lisabö gogora ekartzen badu, hurrengoa *poperoa* izan daiteke. Grungea, hard-rocka... Maketan, hala ere, gure bidea bilatzen genbiltzan. Kantu berriak bideratuagoak daude, pertsonalitate handiagoa dute.

Diskoa Durangoko Azokarako kaleratu zenuten; zelan joan ziren salmentak?

Musika zuzenean erakusmahaian egon zen. Egia esan, ez dakigu zenbat disko saldu genituen, baina ez dugu uste asko salduko genituenik. Diskoa ez dugu leku askotara eraman. Oraingoz, Oñatiko tabernetan dago salgai, edo, bestela, gurekin harremanetan jarrita saltzen ditugu.

Orain, baina, kantu berrietan murgildu zarete.

Bai; orain arte, maketako kantuak jo ditugu zuzenean, eta abesti berriak egiteko lanetan gogotsu gabiltza. Gure asmoa da uda inguruan berriz ere kontzertuak jotzen hastea.

ZERTZELADA

RO

Estiloa: Grunge.
Egilea: Ro (Oñati, 2013).
Argitaletxea: Autoekoizpena.
Iraupena: 21:56 minutu.

Gitarrak eta tenpo ilunak melodiaren agindura

Ez nuen RO taldea izenez ere ezagutzen, baina erraz antzematen da atzean lan handia dagoela eta seguruenik ez dela partaideetako batzuen lehen proiektua. Euskaraz abestutako sei kantutan hitz nahiko barnerakoiak idatzi dituzte, mezu zuzenetatik aldenduta. Musikari dagokionez, bitxia da, nabaria delako 70eko rockaren irmotasuna eta, zergatik ez, stonerra ere gustuko dutela: gitarra oinarri rockero indartsu hori. Hala ere, abesteko eran eta melodiatan pop-rocka eta heavyaren kutsua ere agerian daude. Eta hori guztia gutxi balitz, post-rockaren iluntasuna eta intentsitatearekin jokatzen duten tenpo geldo eta ilunagoak ere landu dituzte.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Garaje eta ganbararekin. 198.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. 638 21 63 39

Aramaio. Toki argitsua. 105 metro koadrokoa: hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metro koadroko garajea etxe azpian. Erabilgarriak diren 15 metro koadroko ganbara. 652 72 83 60 edo 945 44 53 52

Bergara. 40 metro koadroko apartamentua salgai Zubieta kalean. Eguzkitsua. 45.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62

Bergara. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. Ikusi eta gero, prezioa zeuk ipini. 626 65 99 94

Boi-Taüll (Lleida). Apartamentua salgai. Aukera oso ona. Etxe berria da eta estreinatzeke dago. Jantzita. Eskiatzeko pistatatik oso gertu eta Aiguestortes parke naturalean bertan. 625 70 84 20

Oñati. Pisu berria salgai Kurtzebide kalean. 90 metro koadrokoa. Trasteleku eta bi garajerako aukerarekin. 651 70 92 57

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

102. EROSI

Bi pisuren bila Arrasaten. Eraikin berean dauden bi pisu erosiko nituzke erdialdean. Prezio ekonomikoan. 675 70 24 17

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba Ibilbidean. Hiru logela, egongela eta komuna. Jantzita. 650 06 00 57 edo 650 00 86 58

Arrasate. Apartamentua ematen da errentan erdigunean. Eskola politeknikotik 5 minutura, oinez. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Pisu altua da, terraza eta ikuspegi politekin. Hilean 400 euro, gehi gastuak. 628 22 45 09

Arrasate. Arrasateko alde zaharrean, logela bateko etxebizitza ematen da errentan. Berokuntza eta igogailuarekin. Guztiz berritua. 500 euro hilean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 83 21 12

Baserri etxea Eskoriatzako Mazmela auzoan. 165 metro koadro. Guztiz berrituta. Sarrera, hiru logela, sukalde hornitua, egongela, despentsa, bi bainugela guztiz jantzita, trastelekua, kotxearentzat aterpea, baratza eta lursail gehiago erabiltzeko aukera. Kontaktua: idiaz@ikerlan.es edo.680 33 40 76 edo 638 86 82 50

Bergara. Gela bakarreko etxebizitza jantzia errentan ematen da Madura kalean. Berehala bizitzera sartzeko moduan. Berokuntza du. Prezio interesgarria. Bikote edo pertsona batentzat aproposa. Deitu zenbaki honetara: 667 59 26 81

Oñati. Kurtzebide 1ean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela. 652 76 50 90

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Beheko solairuan edota igogailua duen etxebizitza hartuko genuke errentan. Prezio ekonomikoan. 617 98 88 76

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa, gutxienez. Partikular artekoa. 603 21 91 32

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasate erdialdean. 661 97 14 76

Arrasate. Logela bateko edo bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan hilabete baterako, denbora gehiago luzatzeko aukerarekin. laguntzen@gmail.com

Baserria. Debagoienean baserri edo lursaila duen etxe bat hartuko genuke errentan. Bertakoak gara eta etxea eta lurrak zainduko genituzke alokairu merke batean. Bikote arduratsua gara eta lanean gaude. 400 euroko alokairua ordainduko genuke. 675 61 09 77 edo 606 74 42 37

Bergara. Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 € ordainduko nituzke. 606 83 82 15

Bergara. Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: .602 03 33 56

Bergara. Bergaran etxebizitza bat errentan hartuko nuke pertsona batendako. Berdin zait gela bat edo bikoa bada. Sukaldea eta egongela batera baditu, hobe. 661 07 10 99

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza erretan hartu nahi dut. 631 36 17 62

Debagoiena. Bi edo hiru logelako etxea alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest nago. 669 30 16 89

Oñati. Pisua hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. 670 54 71 05

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Uribe auzoan. Bi pertsona gaude eta hirugarren baten bila gabiltza. Pisua handia, berokuntza, bi komunekin eta etxetresna guztiak. 657 72 51 65

Arrasaten logela ematen da errentan. 200 euroren truke logela ematen da errentan Arrasaten. 632 29 77 31

Arrasate. Erdialdean, logela bat ematen da errentan. 693 80 64 18

Debagoiena. Logela behar dut errentan, kontratuarekin eta bertan errolda emateko aukerarekin. 671 70 30 79

Logela ematen da errentan. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. Espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. 634 81 94 79

Oñati. Bi logela ematen dira errentan duplex berri bat osatzeko. Plazatik gertu. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bi plazako garaje bat Bolun eta plaza bakarreko bat Ibargarain. Itxiak. 665 73 98 32

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza edo Aretxabaleta. 70 metro koadroko lokal bat bilatzen ari gara, tximiniaduna, tailer bat montatzeko. Harremanetan jartzeko idatzi mezu bat: lajaboneriadelaalmendra@gmail.com helbidera edo deitu 690 12 48 51 edo 945 10 09 54 zenbakietara.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume bat behar da bost hilabeteko umea orduka zaintzeko. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 606 01 18 32

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua egunka zein orduka lan egiteko gertu etxeko lanak egiten zein taberna, elkartea, atari eta abarren garbitasunean. 625 86 99 51

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Neska euskalduna gertu goizetan umeak zein nagusiak zaintzeko. 686 80 15 38

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetanumeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

Bergara. Haur Hezkuntzako graduko ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 615 76 29 25

Debagoiena. Esperientziadun emakumea nagusiak eta umeak zaintzen eta garbitasunean lan egiteko gertu, egunez. Erreferentziak ditut, baita etxeko lanek egiten ere. 631 06 51 28

Debagoiena. Bertako neska nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauetan ere. 632 18 79 50

Debagoiena. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin, nagusien zaintza eta abarretan jarduateko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 633 29 29 12

Debagoiena. Emakume euskalduna lan egiteko gertu. 606 50 25 67

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko orduka, baita umeak ere; garbitasun lanak ere egingo nituzke: atarteak eta abar. 639 02 00 81

Debagoiena. Emakumea lan bila. Esperientzia daukat umeak zaintzen, denetariko garbitasunak egiten, tailerrean, jatetxean eta abar. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasunak egiten eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Ordutegi malgua dut. 602 69 31 56

Debagoiena. Emakumea nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita garbitasun lanetan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 14 urteko eskarmentua daukat. 634 11 31 09

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 672 98 20 91

Debagoiena. Erizain laguntzailea nagusiak, laguntza behar duten pertsonak edota gaixoak zaintzeko gertu. Deitu 602 51 67 28 telefonora.

Debagoiena. Gizonezkoa gertu gauetan gaixoak ospitalean zaintzeko. 664 02 92 98

Debagoiena. Lan bila nabil. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izanda. Garbitasun lanetarako ere gertu nago, tabernak garbitzeko eta abar. 636 41 98 14

Debagoiena. Mutil arduratsua lan bila dabil. Sukaldeko eta geriatriako ikasketak ditut. Sukaldari lanetan, garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 633 28 81 24

Debagoiena. Mutila lanerako gartu. Esperientzia daukat logistika arloan, banaketan eta igeltsaritzan. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Erabateko prestutasuna egutegi zein ordutegi aldetik. 697 84 88 79 edo 632 70 69 95

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Pertgsonen zaintzan, garbiketan, tabernak, gidari, mekanikari eta abar. 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila pertsonak zaintzen edo sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 632 26 01 84

Debagoiena. Mutila prest edozein lan mota egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 12 49 64

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Astelehenetik ostiralera. 682 31 97 37 edo 603 22 53 66

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska lanerako gartu. Esperientzia daukat logistika arloan, denetariko garbitasunak egiten, sukalde laguntzaile zein nagusiak zaintzen. Erabateko prestutasuna egutegi zein ordutegi aldetik. 632 70 72 89 edo 697 84 88 79

Debagoiena. Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, pertsonen zaintzan, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. 636 11 23 40

Debagoiena. Neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. 603 21 91 32

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke etxeko lanak egiten edota nagusiak zaintzen. Esperientziaduna naiz eta erreferentziak zein legezko paperak dauzkat. 638 93 11 48

Gasteiz. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Erreferentzia onak dauzkat. 649 63 23 24 edo 633 52 95 02

Klinika laguntzailea. 20 urteko esperientzia duen klinika laguntzaileak bere burua eskaintzen du pertsonak zaintzeko, bai etxeetan bai ospitaleetan, egunez edo gauez. 609 98 02 52 edo 943 79 77 44

Lan ezberdinak. Lan ezberdinetan lagun zaitzaket: iturgin lanak, margo lanak, garbiketa lanak, mudantzak eta abar. Aurretik ibilia naiz mota horietako lanak egiten. 631 29 77 31

Oñatiko gaztea, 25 urtekoa, gertu baserriko lanetarako eta mantenimenduko lanak egiteko. Interesatuok deitu 662 50 73 22 telefonora.

Zaintza lanak. Debagoienan pertsona helduak zainduko nituzke, etxean edota ospitalean. Garbiketa lanak ere egin ditzaket. 615 75 98 66

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Klase partikularretako irakasle bila. Bigarren batxilergoko biologia eta kimika ikasgaietako klaseak jasotzeko irakasle bila. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 685 77 68 84

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurra oparitu. Baserri batean 5 urteko txakurra oparitu gura dute. Etxeko zaindaria da. 20:00etatik aurrera deitu. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 677 78 37 72

Txakurra oparitu. Setter Vitoron arrazako txakurra oparitu gura dut, ezin dudalako behar bezala zaindu. Hiru koloretakoa. Arra. Urtebete du. Kontaktua, Javier. 695 75 52 70

8. DENETARIK

802. EROSI

Tableta erosiko nuke. 656 75 76 98

804. HARTU

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. gimnasia egiteko beste aparatu batekatik aldatuko nuke. 615 79 51 89

806. GALDU

Ahoko zerula. Ahoko zerula galdu nuen urtarrilaren 23an, eguenez, ilunkaran. Arrasateko Maalako biribilgune inguruan galdu nuen. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke zenbaki honetara deitzea: 943 71 46 50

Audifonoa Bergaran. Asteazken arratsaldean, otsailaren 5ean, diru-zorroa galdu nuen Bergarako San Martin Agirre eskola aurrean. Bi txartel eta audifonoa zeuden barruan. Topatuz gero deitu zenbaki honetara, mesedez: 605 72 50 85

808. BESTELAKOAK

Oñatitik sagardotegirako autobusa. Otsailaren 22an sagardotegira goaz eta autobusa elkarbanatzeko beste koadrila baten bila gabiltza. 666 21 73 48

Sagardotegia. Martxoaren 8an, sagardotegira joateko asmoz, autobus bat betetzeko Arrasate edo inguruko beste talde batzuen bila gabiltza. Gu 8 bat pertsona gara. 943 77 04 86

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Hizkuntza trukea. Euskara eta espainiera ikasiko nituzke eta nik ingelesa edota urdua irakats nezake. Deitu eta hitz egingo dugu!.632 65 54 84

Informatika-ingelesa. Informatika eta sare-sozialen erabileran lagunduko didan norbait behar dut. Trukean ingeles eskolak emango nizkioke. 637 52 89 83

INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000€.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140m2, 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

OSINTXU:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 80 m². 3 logela. Balkoia. Oso ondo. 160.000 €.

Debagoieneko pertsona ezagunak, gertutik

U.M. | DEBAGOIENA

Datorren asteleheneko GOIENA paperean tarte bat estreinatuko dugu: *Jan eta bizi* (orri honetan joango dena). Bi atal izango ditu orrialde horrek: Debagoieneko pertsona ezagunekin elkarrizketa, batetik, eta errezeta, bestetik.

Elkarrizketari dagokionez, eta gertutasuna erakuste aldera, helburua da gurean ezagunak diren pertsona horiek hobeto edo gertuagotik ezagutzea. Bestela esanda, orain arte ezagutu izan dugun testuinguru horretatik kanpo.

Errezetei dagokienez, ondoan azaltzen den moduan, sukaldezale amorratu Patrizia Vitellik proposatuko du astero errezeta original bat.

Lehenengoa: Pello Zabala

Tartea estreinatzeko, datorren astean Pello Zabala ezagutuko dugu, lehen pertsonan.

Pello Zabala. | GOIENA

Patrizia Vitelli | Sukaldaritza-zale amorratua

"Edo kozinatzen ikasten nuen edo, bestela, goseak hil behar nuen"

- 'The Cook Rocker' bloga sortu zuen duela hiru urte, arrakasta handiarekin
- Blogari arrasatearrak astero errezeta bat proposatuko du GOIENA paperean

UBANE MADERA | ARRASATE

Patrizia Vitelli (Arrasate, 1990). Zuzenbidean lizentziaduna da, Deustuko eta UNED unibertsitateen bitartez. Baina nekaezina izaki eta ikastea gustuko, Mondragon Unibertsitatean dihardu, Leinn graduondokoa ikasten. Gurera, baina, *The Cook Rocker* blogaren egilea delako ekarri dugu. Patrizia kozinatze kontuetan zale amorratua da, eta egiten dituen errezetak argitara emateko sortu zuten bloga. Aurrerantzean, GOIENA paperean ere izango da astero, errezeta bat konpartitzen.

Arrasatearra abizen italiarrekin?

Izen artistikoa da. *Facebook*-en -eta nire izena bilatzen ibiltzea ez zait gustatzen. Vitelli dator *El Padrino*-tik, Apolonia Vitellitik; eta gainera, *Vitelli* berba da *okela* italieraz. Guztia batuta…

Hiru urte ditu zure blogak; zenbat errezeta argitaratu dituzu?

Uf! Ez dakit, ez dut kontua zaintzen, baina ehun bat bai.

Zein duzu gustukoen egiteko?

Pasta. Etxekoa. Masatik hasita. Moztu, saltsa egin… oso erromantikoa iruditzen zait, sukaldetik oso hurbil egotea eskatzen duena. Eta masarekin lotura duen dena gustatzen zait: pizzak egitea… eskuak zikintzea gustatzen zait.

Eta gorrotagarrien?

Arraina garbitzea, eta harrikoa egitea… lan zikina.

Ze duzu gustuko jan edo edateko?

Patrizia Vitelli, marrubiari horzkada egiten. | PATRIZIA VITELLI

"Argitaratutako errezeten kontua ez dut zaintzen; ehun bat izango dira"

Gazta eta ardoa. Ardoa zuria, bereziki, txakolina; eta gazta fuertetxoa, intentsua den edozein.

Eta gorrotagarrien?

Martorria (zilantroa). Eta, akaso, Burgosko gazta ere esango nuke. Oso-oso zozoa da.

Zuk argitaratutakoetatik ze errezetak izan du arrakastarik handien?

Hirugiharra duen quiche batek. Blogaren bisiten erdia horrek ditu. Ez dakit zergatik. Urte eta erdi dela sartu nuen blogean.

Nondik ateratzen dituzu horrenbeste errezeta?

Gustatzen zait irakurtzea orokorrean, eta sukalde kontuei buruz ere bai. Internetetik ere ateratzen ditut, lagun batzuen beste blog batzuetatik. Eta familiako errezeta-liburuak ere pisu handia dauka. Aldaketatxo txikiak egin eta argitaratu egiten ditut.

Zelan hasi zinen kozinatzen?

Bilbora, ikasle-etxebizitzara joan nintzenean, amak esan zidan: "Hara joan nahi baduzu, ondorio guztiekin: hona ez ekarri arroparik garbitzeko, tuperrik ez duzu eramango…". 18 urte nituen, baina ez nekien ezta arrautza bat frijitzen ere. Eta ikasle-etxebizitzan egiten genituen egunero makarroiak eta paparra; paparra eta makarroiak… Penaz hiltzen nenbilen! Niri txikitatik asko gustatu izan zait jatea. Eta etxebizitzan ez zegoen ezer… edo ikasi egiten nuen, edo gosez hil behar nuen.

Eta lana lau haizetara zabaltzen?

Bilbora orain sei urte joan nintzen. Orain Facebookera igotzen dira janarien argazkiak-eta; orduan ez. Eta lagunek esan zidaten astun samarra nintzela [Barre] eta bloga egin behar nuela… Informatika ikasle lagun batek txoko bat egin, eta horrela hasi nintzen. Pretentsio handi barik, errezetak konpartitzea zen helburua.

Noraino iristen da blogaren oihartzuna?

Euskal Herritik eta Madrildik jasotzen ditut erantzun gehienak, baina hizkuntza hispanoa duten herrialdeetatik ere iritsi dira, eta oso tarteka baita Japonia, Txina eta halakoetatik ere.

Zinema, musika... eta bidaia gogokoenen gainean ere idazten duzu...

Oso ikuspuntu pertsonalarekin idazten dut. Eta bidaiatzen dudanean edo zinemara noanean horri buruz ere idazten dut, nire ikuspuntutik. Ez aditu modura.

Orain bidaien atala bizi-bizi duzu.

Indian egingo ditut otsaila eta martxoa. Punera noa, gero hamar egun Calcutara, Maria Teresa de Calcuta etxera, boluntario. Bestalde, apirilean eta maiatzean Txinara noa, Azti Teknaliaren The Food Mirror proiektuan lan egitera, bertako kontsumo ohituren gaineko ikerketa egiteko.

PATRIZIAREN GUTIZIA

Patrizia Vitelli

MUGURDIZKO TXOKO BROWNIEA

Txokolatearen eta frutaren arteko nahaste miragarriaren adibide ezin hobea da gaur ekartzen dizuedan gozokia.

Osorik janez gero tripa potolatzen bazaizue, ez bota niri errua gero.

Gainera, egiteko ezin da errazagoa izan, begiak itxita egiteko moduko errezeta da-eta.

Jatorri amerikarra

Txoko brownieak Ameriketako Estatu Batuetan du jatorria. Duen kolore marroi ilunari zor dio izena. Amerikarra izan arren, munduko leku guztietan topa daitekeen pasteltxoa da.

Berez, txoko browniearen errezeta originalak intxaurrak erabiltzen ditu mugurdiak edo franbuesak beharrean; franbuesak sartzea ekarpen pertsonala da.

Txoko browniea barrutik ikusita. | P.V.

Txoko brownieak duen itxura, franbuesak gainean dituela. | PATRIZIA VITELLI

Fitxa

- Denbora: 40 minutu.
- Zailtasuna: ★☆☆☆☆

OSAGAIAK

- Postreetarako txokolatea, 150 g.
- Azukrea, 300 g.
- Arrautzak, 4.
- Gurina, 250 g.

Prestaketa

1. Gurina urtu egin behar da txokolatearekin batera. Hori kazolan eginez gero, maria-bainua erabilita egin behar da. Eta mikrouhin-labean desegitea erosoagoa iruditzen bazaizue, modu hori ere erabil daiteke, baina 30 segundoko tarteetan ipini behar da desegiten, erre ez dadin.
2. Behin hori eginda, arrautzak azukrearekin irabiatu behar dira. Eta hori ere egin ostean, txokolatearen eta gurinaren nahastutako masarekin batu behar da guztia.
3. Fruituen txanda dator ondoren. Masa bateratua mugurdiekin (franbuesekin) batera nahastu behar da. Irina ere gehitu eta berriz nahasi prestakin homogeneoa lortzeko. Molde bat gurinez igurtzi, browniearen orea bertan jarri eta aurretik 180 graduan berotutako labean sartu behar da 20 minutuz.
4. Jan baino lehen epeltzen utzi... eta on egin!

Erresuma Batuko gobernuak laster software askea erabiliko duela dio

- 2010a ezkero eraldaketa digital sakonean dihardu gobernu britainiarrak
- Erakundeak digitalizatu eta herritarren beharretara egokitu ditu

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Erresuma Batuko gobernu erakundeek irekitasunaren aldeko eraldaketa digitalean dihardute 2010a ezkero. Estoniarekin batera, Europako estaturik aurrerakoiena da *open data* eta zerbitzu publiko digitalei dagokienez. Britainiarrek jada notario-ahalordeak edo espetxe bisita-orduak Internet bidez eska ditzakete. Horretaz gain, berriki iragarri da gobernu-erakundeetan software askea ezartzeko asmoa dagoela. Iragarpena da oraingoz, baina konpromisotik asko dute asmo berriek.

Erakundetze digitala

Software pribatiboa uzteko iragarpenak aurrerapen digitalaren lehen lerroan kokatu du atzera ere Erresuma Batuko gobernua. Aurkeztutako txosten baten jasotzen du estatuak 200 milioi libera aurreztuko dituela software aldaketarekin. Oraingoz, asmo hutsak besterik ez bada ere, ez litzateke britainiar gobernuak gauzatuko lukeen lehen eraldaketa digital handia. 2010ean biztanleen %100ek Internet sarbidea izateko plana abiarazi zuten. Gaur egun oraindik ere herritar poltsa handiek konektatu barik jarraitzen badute ere, plangintzekin aurrera jarraitzen du gobernuak.

Lantalde digitala izaten lehen ministerioa Justiziakoa izan zen eta ziurtagiri digitalen bitartez izapidetzeak egin daitezke jada; notario-ahalordeen eskaerak, kasu. Ministerio horrez gain, erakunde-egitura osoa digitalizatzea da helburua, eta, horretarako, *Government Digital Services Team* lantaldeak *Gov.uk* webgune zentrala berdiseinatu du diseinatzaile, produktu arduradun eta eduki kudeatzaileekin. Herritarren informazio eskaera eta beharrak aztertu eta eskatzen den hori ematen zaio herritarrari, hain ohikoak izaten diren albiste, argazki, informazio atal eta abarrekoak alde batera utzita.

Informazioa eta bilatzailea

Hain zuzen, *Gov.uk*-en deigarria da; izan ere, direktorio soil bat eta bilatzaileak dira protagonista, baina, hala ere, iazko Erresuma Batuko web diseinuko sari nagusia jaso zuen. Herriarrei zerbitzua ematea du lehentasun webguneak eta arrakasta lortu du. Erabaki guztiak erabiltzaileengan pentsatuta hartzen dira eta ondo ulertu ei dituzte herritarren beharrak: garraioa, lankontratuak, zergak, diru laguntzak eta negozioak dira webguneko kategoria nagusiak; herritarrek bilatzen dituzten gai nagusiak. Aktualitaterik ez da jasotzen, ez da politikarien argazkirik ezta prentsa-oharrik; gurean egiten den planteamenduaren oso kontrakoa da hori, hain zuzen. Informazioa da zentrala eta herritarren behar administratiboei irteera ematea, lehenik eta behin.

Martxoan askatzekoak dira iOS 7ren azken bertsioa

J.B. | ARRASATE

Enpresa barneko iturrien arabera, iOSen azken bertsioaren behin betiko bertsioa, iOS 7.1 delakoa, martxoan da iristekoa. Sistema egonkortzeaz gain, aldaketa estetiko sotil batzuk ere ekarriko lituzke bertsio horrek.

Hain zuzen, duela egun batzuk askatu zuten garatzaileentzako 7.1 bertsioaren azken *beta*. Sistema eragilearen azken bertsioak ausazko zenbait berrabiaratze egiten zituen eta sistemak berak hainbat hutsune zeuzkan. Horrekin batera, ukitu berri batzuk izango ditu interfazeak; estetikoak, oro har. Diseinuan, nagusiki, telefono aplikazioak eta blokeatze aginduetan izango dira. Aurreikusten diren aldaketak txikiak dira.

Mozillak iragarkiak erakutsiko ditu fitxa berriaren orrian

J.B. | ARRASATE

Directory Tiles izeneko programarekin fitxa berriak zabaltzerakoan agertzen den orrian iragarki txikiak txertatuko dituzte aurki. Nabigatzailea erabili ahala, orri horretan webgune ikusienen miniaturak agertu ohi dira. Erabiltzaile berrien kasuan, hasieran espazio hutsa geratzen da. Tarte hori hartuko luke Mozilla nabigatzaileak iragarkiak sartzeko. Halaber, lokalizazioarekin lotutako edukiak ere agertuko dira.

GADGET.COM

Polizia, Google Glass-ekin lanean

New Yorkeko poliziaren zenbait unitate Googleren Glass betaurrekoak probatzen hasi dira. Betaurrekoekin balizko delituen irudiak graba ditzakete edo aurpegiak antzeman, sarera konektatuta. Poliziaren datu basera konektatuta erabiltzen dituzte betaurrekook.

Egileak berak ebaki dizkio hegoak 'Flappy Bird'-i, arrakastak gaindituta

J.B. | ARRASATE

Arrakastak itota, antza, *Flappy Bird* mugikorretarako jokoa eten egin dute eta *on line* aplikazioa denda guztietatik desagertu zen aurreko astean, egilearen beraren ekimenez. Dong Nguyen da hura eta arazo pertsonalak aipatu ditu arrazoi bezala; argitu du tartean ez dagoela arazo legalik edo aplikazioa bigarren bati saltzeko asmorik.

Arrakasta betean eten

Flappy Bird iaz jarri zen doako deskargan eta joko sinple bezain adikzio-eragilea da. Azken asteetan aplikaziorik deskargatuenen zerrendetan agertu da eta milioika deskarga izan ditu jokoak. Nguyenek hiru egunean egin zuen garapena duela urtebete, baina azken asteetan modu biralean zabaldu da sarean, modako joko bilakatuta. 8 bit-etan diseinatuta, sinplea bezain gaitza da jokoa eta horrek ere txantxen jomuga eta makina bat *meme*-ren inspirazio iturri bilakatu du. Antza, horrek samindu du egilea. Arrakastak eta piztutako zeresanak gainez eginda ei dago Nguyen eta horixe bera adierazi du Twitter bidez. Bada, *store*-etatik kendu eta gehiago ez eskaintzea erabaki du. Eguneraketarik ez da egongo eta ez da gehiago eskainiko sarean.



Txoritxo bat da protagonista *Flappy Bird*-en. | GOOGLE

Androidek eta iOSek merkatu kuota osoa hartu dute 2013an

J.B. | ARRASATE

Sistema eragileen merkatu kuotaren jabe dira Android eta iOS. 2013an jabetu dira kuota osoaz eta eragina izan du iaz Blackberryk izan zuen gainbehera erabatekoak.

Zifra horiek errekor berria ezarri dute; 2013an, hain zuzen, IDCren arabera mila milioi smartphone baino gehiago saldu ziren urtean. Android da, hala ere, merkatu kuota handien duena eta iaz 793,6 milioi dispositibo saldu ziren, Googleren sistema eragilea darabiltenak.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA

Gora Infanta!

Gora Infanta esan dut? Barkatu! Goya infantarentzat esan nahi nuen. A ze antzezlan bikaina egin zuen epailearen aurrean. Telebistaz ikusi ahal izan dugu egunotan bueltaka ibili den bideo famatua. "Ez dakit", "ez naiz oroitzen". Horiek ziren ikasi behar izan zituen esaldi bakarrak. Gidoia ere ez da oso landua, baina eraginkorra bai, antza.

Nola da posible zuzendaritza ikasi duen abokatu batek ez jakitea zer ari zen sinatzen? Eta epaileek diote 80 urteko agure zahar batek bazekiela zer ari zen sinatzen preferenteen iruzurraren auzian. Kasik irakurtzen ere ez dakien agure zahar batek badaki zer sinatzen duen eta infantak ez? Adarrik ez jo gero!

Nik ez dakit borboiek ondo pentsatu ote duten euren estrategia, infantaren antzezlanaren ostean bi ondorio soilik atera baititzakegu: Erregearen alaba erabat ergela da eta ez daki zer egiten duen (Zumarragako dukeari zor dion maitasuna dela medio) edo arduragabe galanta da, ez dakielako dokumentu bat irakurtzen. Agian hirugarren ondorio bat ere badago. Lapur hutsa da eta gure lepotik barre egiten ari da. Den ondorioa izanda ere, gillotinak kalera, faborez!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 17

'Harmailatik'

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketan jaso duguna erakutsiko dizuegu, besteak beste. | **19:30**

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Ikusmira: Ispasterreko ziklo krosa
13:25 Ikusi irratia: Joseba Insausti
14:30 Berriak
15:00 Tripa-zorri
15:30 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Ikusmira: Asmo txarrak
17:50 Ur eta lur
18:30 Berriak
19:00 Erreportajea
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Harmailatik
00:20 Debagoiena zuzenean

MARTITZENA, 18

Kantari

Kantariren azken edizioko Aretxabaletako saioa ikusteko aukera izango duzue martitzenean. | **19:30**

12:00 Ikusi irratia: Joseba Insausti
12:50 Ikusmira: Abadiño San Blasetan
13:05 Aizank!
13:35 Ikusmira: Ispasterreko ziklo krosa
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein: Tomate entsalada
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Atik Zra: Lomce legea
18:00 Tripa-zorri
18:30 Berriak
19:00 Erreportajea: Hazitik garbi
19:30 Kantari
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Pedalka
00:20 Debagoiena zuzenean

EGUAZTENA, 19

'Erakusleiho'

Bailarako negozio eta komertzioendako tartean, *Aurreztu.com* ezagutuko dugu *DZ* saioan. | **20:00**

12:00 Erreportajea: Hazitik garbi
12:30 Klaketa
13:15 Erreportajea
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Pedalka
15:30 Onein: Infusioa
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Klaketa
18:15 Ikusmira: Abadiño San Blasetan
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Erreportajea: Kontsumo ereduari buelta
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Erreportajea: Slow fashion
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Klaketa
00:35 Debagoiena zuzenean

EGUENA, 20

Kultura ekitaldiak

Debagoiena zuzenean saioan asteburuan izango diren kultura ekitaldien berri emango dizuegu. | **20:00**

12:00 Erreportajea: Slow fashion
12:30 Atik Zra: Lomce legea
13:30 Ikusmira: Abadiño San Blasetan
13:50 Erreportajea
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Aizank!
15:30 Onein: Meroa
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Bideo klipak
17:40 Erreportajea: Slow fashion
18:10 Ikusmira: Abadiño San Blasetan
18:30 Berriak
19:00 Erreportajea: Kontsumo ereduari buelta
19:30 Kantari
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Erreportajea: Hazitik garbi
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean

EGUBAKOITZA, 21

'Berriak'

Albiste esanguratsuenak erakutsiko dizkizuegu Monika Belastegik aurkeztutako albistegietan. | **14:30**

12:00 Ur eta lur
12:35 Atik Zra: Lomce legea
13:35 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Ikusmira: Asmo txarrak
15:20 Onein: Muskuiluak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Klaketa
18:15 Erreportajea
18:30 Berriak
19:00 Pedalka
19:30 Aizank!
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Erreportajea: Kontsumo ereduari buelta
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Ikusi irratia: Joseba Insausti
00:35 Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazleari elkarrizketa gaur

Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketan irabazle izan den Amaia Artola tolosarra elkarrizketatuko dugu gaur, astelehena, Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan, 11:00etan. Lehiaketan aurkeztu duen lanari buruz hitz egingo digu.

Gazte informazioa jaso ahal izango duzue bihar, martitzena

Gazte Bulegoko Dorleta Kortazar elkarrizketatuko dugu bihar, martitzena, Arrasate Irratiko elkarrizketaren tartean, 11:00etan hasita. Kortazarrek egunotako gazte informazioari buruzko xehetasun guzti-guztiak emango dizkigu 107.7ko uhinetan, beste batzuetan bezala.

Joxe Landaren eguraldi iragarpenak egunero Arrasate Irratian

Igo autobusera! irratsaioan eguraldiari buruzko informazioa ematen digu Joxe Landa eguraldi adituak. Bada, zuk nahi duzun tokian zein eguraldi egin nahi duen jakin nahi baduzu, galdetu zuzenean Landa eguraldi adituari 943 25 05 05 telefonora deituta, edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

TELE-ALBISTEAK

Eduki ugari izango ditu asteon 'Debagoiena Zuzenean' saioak

Astelehenetik egubakoitzera eskaintzen ari gara saioa 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Duela astebete estreinatu genuen Goiena telebistan *Debagoiena zuzenean* saioa. Edukiak modu fresko eta arinean eskaintzen ditu Txomin Madinak aurkeztutako saioak eta erreportariak hara eta hona ibiltzen dira albisteak dauden tokietatik informazioa ematen. Aste honetan ere gai ugari landuko ditugu.

Gai ugari landuko ditugu

Gaur, astelehena, kontu hauek landuko ditugu: Oñatiko musika eskolaren 25. urteurrena, Amodiozko Gutunen Lehiaketa eta asteburuan Arrasateko Amaia antzokian izan den haurrei eta familiei zuzendutako *Kapsulak* emanaldia.

Martitzenean, berriz, Bularretik Mintzora ekimena hobeto ezagutuko dugu eta Bergarako Angiozar auzoa ere bertatik bertara ezagutuko dugu.

Eguaztenean, ostera, lehenengo, Arrasateko San Felipe Apostol elkarlaguntza elkartea ezagutuko dugu, gero *Aurreztu.com* atarian murgilduko gara *Erakusleiho* izeneko tartean, eta azkenik, sare sozialak izango ditugu berbagai eguaztenero moduan.

Eguenean Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako obren nondik norakoak jasoko ditugu eta egubakoitzean sukaldaritza eta moda kontuak landuko ditugu.

Txomin Madina, saioaren aurkezle eta gidaria, Goiena telebistako plato berrituan. | A.T.

Erreportariek albisteen tokietatik bertatik emango digute informazioa

Ordutegia

Astelehenetik egubakoitzera 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean eskaintzen dugu saioa. Egun horretako 00:30 inguruan ere errepikatzen dugu eta hurrengo eguneko 14:00etan eta 16:00etan.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Mara Garcia Martin
Otsailaren 23an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtebete jada, maittia! Muxu potolo bat amaren eta aitatxoren partetik!

OÑATI
Haizea Frutos
Otsailaren 21ean, 7 urte. Zorionak, gure etxeko erregina! Ondo-ondo pasatu familia guztiaren partetik eta txokolatezko muxu handi-handia amatxoren eta aitatxoren partetik.

BERGARA
Ander Ilarduia Arteaga
Otsailaren 20an, 2 urte. Patxo potolo-potolo pila bat etxeko bihurritxuandako! Eta bi tirakada goxo Harkaitzen eta Oihanen partetik.



OÑATI
Izar Gil Albizu
Otsailaren 19an, 5 urte. Zorionak gure etxeko printzesari familia danaren partetik. Muxu bero bat eta ondo pasatu eguna.

BERGARA
Elaia Maure Azkarate
Otsailaren 19an, 8 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta goxoki gehiegi ez jan, *golosa*. Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Baita Senegaletik ere.

ARRASATE BERGARA
Noa Laiseka Leturia, Garazi eta Libe Ugarte Leturia
Otsailaren 18an, 5 urte. Zorionak, hirukote! Bost urtekin zuein antzerkixak bai izengo diela mundialak! Gertatu politt bat zuein merendolarako, bai? Ondo pasatu zuein eguna eta mila patxo, printzesak, Naroa, Jon, Ximun, Hur, aitatxo, amatxo eta familixa danaren partetik!



ARRASATE
Danel Gonzalo Maria
Otsailaren 18an, 7 urte. Zorionak! Gure begi disdiratsuak zazpi urte bete ditu. Ondo pasatu zure egunean. Besarkada bat aitaren eta amaren partetik eta belarri tirakada bat Anderren partetik.

OÑATI
Maialen eta Ander Altzelai Santa Cruz
Anderrek 10 urte, otsailaren 18xan eta Maialenek 8, 22xan. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bana familixakuen partetik!

OÑATI
Liher Sancho
Otsailaren 17an, 10 urte. Zorionak, Liher! Ondo pasatu zure hamargarren urtebetetzean eta muxu handi bat maite zaitugunon partetik.

ARETXABALETA
Danel Lopez Fernandez
Otsailaren 17an, 3 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztion partetik.

OÑATI
Irati Pelayo
Otsailaren 16an, 6 urte. Zorionak, Irati! Ondo pasatu eta muxu handi bat etxeko danon partetik.

OÑATI
Maider Murillo Astigarraga
Otsailaren 16an, 16 urte. Zorionak, *guapixima*! Ondo-ondo pasatu zure 16. urtebetetze eguna! Muxu eta besarkada handi bat etxeko danan partetik!

ARRASATE
Elene Kortabarria Aranzabal
Otsailaren 14an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Hiru urte jada! Muxu potolo bat etxekoen eta, bereziki, Eiderren partetik.

ARETXABALETA
Jare Berezibar Epelde
Otsailaren 14an, 5 urte. Zorionak zure bosgarren urtebetetzean. Muxu handi bat Iratzen, amatxoren eta aitatxoren partetik.

BERGARA
Kemen Bilbao Alvarez
Otsailaren 13an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat eta zorionak beti... etxeko danon partetik.

ANTZUOLA
Maria Lopez Nuñez
Otsailaren 13an, urtebete. Urte bat bete behar du jada gure txikiak! Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunean, printseza!

OÑATI
Aimar Etxebeste Bolinaga
Otsailaren 13an, 10 urte. Zorionak, *kanpeon*! 10 urte bete dituzu.... zu bai zu mutikote ederra! Ondo-ondo pasatu eta patxo handi bat etxekoen partetik!



ARETXABALETA
Alaitz Iturbe Murgiondo
Otsailaren 13an, 10 urte. Zorionak etxeko guztion partetik. Ondo-ondo pasatu zure eguna.

ARRASATE
Ane Urbina Orobengoa
Otsailaren 12an, urtebete. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzia. Muxu handi bat etxeko danon partetik!

ARRASATE
Mara Madinabeitia Vázquez
Otsailaren 11n, urtebete. Zorionak, pototi. Urtetxo bat dagoeneko.



DEBAGOIENA
Mara De Goñi Campos
Otsailaren 15ean, 2 urte. Zorionak, poxpolin! Muxu goxo asko etxeko guztien partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROIGARRIA

Manu Otero Garcia

2014ko urtarrilaren 30ean hil zen, 42 urte zituela.

Beti gogoratuko zaitugu zure alaitasunagatik eta sinpatiagatik.
Maite zaitugu eta ez zaitugu ahaztuko.

Soraluzen, 2014ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA

Karmelo Arzelus Mujika

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Goxotasunaren bidea
izan da zurea
zure tartekoak gordeko dute bihotzean
aitta -aittitte maitea.

Gatzagako lagunak.
Gatzagan 2014ko Otsailaren 17an.

HILETA

Karmelo Arzelus Mujika

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, astelehena, izango da, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian.
—
Sustraiak sendo eta hegoak arin.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2014ko otsailaren 17an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

OROIGARRIA

Karmelo Arzelus Mujika

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Bergaran, 2014ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA

Karmelo Arzelus Mujika

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Batura Mobile Solutions

Batura Mobile Solutions.
Bergaran, 2014ko otsailaren 17an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIGARRIA

Karmelo Arzelus Mujika

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

arteman KOMUNIKAZIOA

Arteman Komunikazioa.
Aretxabaletan, 2014ko otsailaren 17an.

JAIOTAKOAK

Osama El Morakib

Arrasate. 3,035 kilo. Otsailaren 13a. Argazkian, Osama jaioberria sehaskan.

Oihan Velasco Naranjo

Arrasate. 3,500 kilo. Otsailaren 13a. Gurasoak: Naiara eta Ander. Argazkian, Oihan gurasoekin.

Alain Algaba Vazquez

Aretxabaleta. 2,980 kilo. Otsailaren 13a. Gurasoak: Nuria eta Santiago. Argazkian, Alain gurasoekin.

Aner Ferreira Gomez

3,500 kilo. Otsailaren 11. Gurasoak: Miriam eta Jorge. Argazkian, Aner gurasoekin.

Libe Alberdi Etxabe

Eibar. 4,350 kilo. Otsailaren 10a. Gurasoak: Argi eta Jokin. Argazkian, Libe amaren besoetan.

Aron Silber Carvayo

Oñati. 3,310 kilo. Otsailaren 10a. Gurasoak: Alejandra eta Carlos. Argazkian, Aron jaioberria amarekin.

Noa Revilla Urrutia

Bergara. 3,670 kilo. Otsailaren 10a. Gurasoak: Patricia eta Fernando. Argazkian, Noa amarekin.

Unai Gullon Iñarra

Bergara. 3,530 kilo. Otsailaren 9a. Gurasoak: Amaia eta Alberto. Argazkian, Unai jaioberria..

Garazi Bragado Alvarez

Arrasate. 4,130 kilo. Otsailaren 7a. Gurasoak: Andoni eta Monica. Argazkian, Garazi jaioberria.

Aimar Villanova Ruiz

Gasteiz. 3,340 kilo. Otsailaren 8a. Gurasoak: Ricardo eta Raquel.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,
zorionak!
Eroskik zuen lehen beharretarako,
OPARIA*
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

AI, ENE!

Lau gurpileko autoa beharrean, bostekoa

Ez gaude oso seguru kamioneta honen jabearen asmakizunak funtzionatuko duen edo ez; baina orijinala izan, bada.
www.facebookfails.es

AHOBERO

"Autoekin, emakumeekin bezala gertatzen zait: apur batera aspertzen naiz"

ROBERTO CARLOS | FUTBOL JOKALARI OHIA

Real Madrileko jokalari ohiak sei emakumerekin zortzi seme-alaba dituela esan du Italian egindako elkarrizketa batean, eta ondoko esaldia ere bota du. Okerrena da oraindik ere egongo dela hitzok barregarriak direla pentsatuko duenik.
www.gazzetta.it

EGURALDIA

Max. 13º
Min. 2º

Hego haizea ibiliko da; tenperatura igo egingo da eta garbiago egongo da zerua.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2014-02-17

HAMARREKOA

Ivan Velasco Txirrindulari arrasatearrak 26 urterekin egin zuen debuta profesionaletan; Espainiako Vueltan izandako lesiotik errekuperatzen ari den arren, Caja Rural taldean jarraituko du | TXOMIN MADINA

"Dietarekin ez dut arazo askorik; euriarekin sufritzen dut"

1. Lesioak lesio, beste urte batez profesionaletan.
Oso pozik nago. Azken lesioa oso gogorra izan da, errekuperatzen nabil, eta, beste talde baten kalean egongo nintzen arren, Caja Rural taldea %100ean dago nirekin. Errehabilitazioa gogorra ari da izaten, baita psikologikoki ere.

2. Badaramazu izandako lesioen kontaketa?
Pentsatzen jarrita, zazpi ebakuntza izan ditut, baita ebakuntza gabeko hausturak ere. Haustura gehiegi izan dira. Gogorrena? Azken hau, mokor inguruan izan da-eta.

3. Eta pentsatu al duzu inoiz: "Nahikoa da, utzi egingo dut"?
Batzuetan bai: erorketa duzun egunean, edo ebakuntza egunean. Baina egunak pasa ahala, errehabilitazioan buru-belarri sartu eta bizikleta berriz noiz hartu izaten da pentsamendua.

4. Aurretik dituzun lasterketen artean, zeinek ilusio handien?
Ez dakit lehiatzeko moduan egongo naizen, baina Euskal Herriko Itzulia polita da guretzat; eta Espainiako Itzulia da egiten ditugunen artean garrantzitsuena.

5. Ohi baino beranduago eman zenuen profesionaletarako saltoa.
Ikasketetan buru-belarri sartu nintzen, lehentasuna eman nien. Ingeniaritza bukatzean, urtebeteko epea eman nion neure buruari ziklista profesional izateko, eta gero Orbeako aukera etorri zen.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Munduko ezberdintasunak amaituko nituzke: Afrikan jaiotzen denak, esaterako, ez dauka ezer egiteko aukerarik"

6. Unibertsitate tituludun asko dago tropelean?
Asko ez, baina lehen gutxiago zegoen. Poliki-poliki jendea badabil ikasketak profesional munduarekin uztartzen, txirrindularitza bukatzen denean zerbait izateko.

7. Zer kostatzen zaizu gehiago, euria egin arren entrenatzea ala dieta mantentzea?
Dietarekin ez dut arazo askorik, denetarik jaten dut eta ez dut kilo askorik hartzen. Euriarekin bai sufritzen dut, hozbera samarra naiz-eta.

8. Bost orduko lasteketaren ostean, helmuga begi bistan duzu. Zer duzu buruan?
Normalean, ezer ere ez: topera joan ohi zara, 190 pultsaziotara, eta une horretan pentsatzea zaila da. Oso kontzentratuta zaude gauzak ondo egiteko.

9. Paisaia ederretan ibiltzen zarete. Lasterketan baduzue horretaz jabetzeko astirik?
Astiro goazenean; oso bizkor bagoaz, ezin da. Pena da: Pirinioetan edo Alpeetan zure sufrimenduarekin zoaz portuan gora, ez duzu ezer ikusten eta telebistatik konturatzen zara non ibili zaren.

10. Semeak edo alabak txirrindulari izan gura du. Zein da lehen aholkua?
Errepidean kontuz ibiltzeko. Izan gura badute, izateko; baina nik etxean sufrituko nuke, emazteak nirekin sufritzen duen moduan.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA

Egutegia

Krisia baliatuz orotako zerbitzu sozialetan inoizko hondamendi latzenean gaudenean, joan den asteko prentsak kontu polit hau ekarri du: soldata txikiko eredu bat ekonomiaren porroterako bidea da. Etxaide edo Muñoz sindikalisten ideia ematen du baina, bai zera, Bañez Españan lan-erreforma kudeatu duen ministroarena da.

Santa Teresak argiturik ibili ote da Bañez ministroa ere, edota deskuidu bat edozeinek duela pentsarazten duen gogoeta bat baino ez da? Egia da aitorpen horren atzetik Guindos ekonomia-ministroaren eta patronal-buruaren erantzun-hitzak etorri direna, doi-doi kontrakoa seinalatuz, hau da, soldata ipotxen aldia luzea izatea komeni zaiela... enpresariei, eta ekonomiari.

Itxurak itxura, zerbait aldatzen hasi ote da PPko agintari liberal temosoen bururen batzuetan? Erantzunak ez du inongo Teresarekin zerikusirik, baizik hauteskunde-egutegiarekin. Bañez ohartua da 2014an eta 2015ean zehar (urte eta erdian) hiru hautes-deialdi daudela eta PPren behera-behar elektoralak behera bidean segituko duela. Gauza izango ote da Bañez Raxoy eta enparauak kontuan jartzeko?

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

ez dugu esango "ez jan hainbeste azukre"

EROSKI Sannia
Barratxoak fruta gorriak edo txokolatea 6x23g
1,35 €
Kiloa: 9,78 €
GUK EGIN EGITEN DUGU ETA HORREGATIK 22 TONA AZUKRE BAINO GEHIAGO KENDU DITUGU EROSKI MARKAKO PRODUKTUETATIK

ez dugu esango "ez bota gatz gehiegi"

EROSKI Sannia
Urdaiazpiko egosia, gatz gutxi 2x100g
2 €
Kiloa: 10 €
GUK EGIN EGITEN DUGU ETA HORREGATIK 16 TONA GATZ BAINO GEHIAGO KENDU DITUGU EROSKI MARKAKO PRODUKTUETATIK

www.eroski.es/somosmasdehacer
Eskaintza baliagarria 2014ko otsailaren 26ra arte